ALBERTO BARANDIARAN

Ez zaigu ahaztu

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1998 Alberto Barandiaran
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1998ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

A pobres que comíamos paciencia / nos
crecieron almas de volar / alas / armas /
contra la sombra que dictadura su ley
de plomo / o sea callar / aguantar / encerrarse / fue así
que empuñamos el alma por la culata / la
ala por lo que suele andar de aire /
y lo de menos fue morir / como fuego
matando la derrota general

JUAN GELMAN

Bidaia

– Argentinara noa.

Telefonoak ekarri zidan erantzuna argia eta ironiko samarra izan zen:

– Igeri egiten ba al dakik?

Nire zuzendariak ez zuen, nonbait, hain garbi ikusten.

Bost hilabete neramatzan Atlantikoaz bestaldeko jendearekin harreman logiko samarra lotu nahian, diktadura militarraren garaian desagertutakoei buruz datuak biltzeko, baina etsita nengoen. Ez telefonoak, ez faxak, ez e-mailak ez zidaten balio argitu beharreko dudak argitzeko, zer edo zer gehiago jakiteko. Lehen ere norbaitek ohartarazia zidan inork egin ez zuen ikerketa telefonoz egin nahian nenbilela. Hara joan beharra zegoen.

Bost hilabete horien ondotik sinetsirik nengoen merezi zuela, are, egin beharra zegoela. Egunkarietan maiz azaltzen ziren Baltasar Garzon epaileak hainbat desagerpen ikertzeko Argentinako hamar militarren kontra Madrilen za-

baldutako prozesuei buruzko informazioak. Ordurako banekien horien artean euskaldunak bazirela. Familiarrekin hitz egin nahi nuen, hogei urtetan inork entzun nahi izan ez zuena jaso, eta hemen kontatu gero.

Banuen esperantza testigantza hauen bidez 1976tik 1982ra bitarte desagertutako 30.000 lagunen sofrimendua ere konta nezakeela, herritartasunak ematen duen konplizitateari esker askok ulertuko luketela basakeriaren nondik norakoa. Uste betean nengoen ni. Oraindik, baina, nire zuzendaria konbentzitu behar nuen.

Beste bost hilabete igaro dira deiaz geroztik, eta zuzendaria konbentzitzeaz geroztik. Atlantiko gainean nago jada.

Nire ondoko bidaiariak lotarako prestatzen ari dira. Leihotik sartzen den ikusmira zoragarri ederra da eta urduri nago, zorabiatzeko moduko sukarrez iritsi eta lanean hasteko. Datu soil bakar batzuk baino ez dauzkat eskuartean, badakit aurki ditzakedala oztopoak bai familiarren aldetik –gogoratzea zaurian gatza botatzea be-

zalakoa izaten ohi da horrelakoetan– bai Garzonen epaiketarekin urduri jarri diren batzuen aldetik ere. Benetako ikerketa egin behar dudala pentsatze hutsak akuilatzen nau. Nire baitan ezagutzen ez nuen adorea sortzen zait barruan. Argentinara noa, bai. Eta abioiz.

Gauak badu kolore berezia hemen goian. Hodeiek islatu egiten dute han urrun, bonbilla batek bezala argitzen duen ilargiaren txuria. Abioian amatatu dira pixkanaka ahots eta hots oro. Orain isiltasun monotonoa besterik ez da entzuten, markako autoek autobideetan egiten dutenaren antzekoa. Ezin dut burutik kendu korrika ari garela denboraren aurka, egunsentiari alde egin nahi diogula desesperaturik, eguzkiaren beldur-edo bagina bezala.

Brasilgo itsasertzaren gainean gaude lehen izpiek harrapatu gaituztenean. Hautsi da sorginkeria. Eski pistak diruditen hodeiak zulatu ditugu orduan, Rio de Janeiroren gainean arrano handi bat bezala pausatzeko.

«Munduko hiririk ederrena da Rio». Entzun dut esaldia noizbait. Galeaoko aireportuko kristal handietatik ikusten den terrala eta Miamiko he-

galdia atzeratu dela esateko bozgorailuko funtzionarioak darabilen tonua –eztitsua, erotikoa ere esango nuke–, erakargarriak egiten zaizkit arraso. Tropikoaren lurrin guztiak hor daude, kristalaren bestaldean, tentagarri.

Rion igo da nire aldamenera neska brasildar xarmanta, abioia beteta doala-eta laguna bi lerro atzerago utzita. Papaia eman digute gosaltzeko. Uste dut barre egin duela kolore gorriko meloi horren aurrean mesfidati ikusi nauenean. Berak eskuekin jan du. Nik, berdin, noski. Montevideora eraman gaituen hiru orduko bidaian gutxienez sei aldiz atera du ezpainak apaintzeko lapitza, eta ispilutik, zeharka, begiratu didala iruditu zait. Ilusioa egin dit. Bere ondoan eserita azkar asko joan zaizkit gelditzen zaizkigun bidaia orduak.

Uruguaiko eta Argentinako hiriburuak bainatzen –eta banatzen– dituen Rio de la Plata itsasoa lohia da, zikina eta ernegatua, nahiz eta eguna argia den. Haserre dirudi, urduri. Belztasun hori, ez dakit... siniestro samarra egiten zait.

– Dantzara! Dantzara!

Eszena irreala da, amesgaizto batetik ateratakoa. Buenos Airesko Armadako Eskolako (ESMA) sotoan hogeita hamar lagun daude eserita, kateatuta. Jorge Eduardo Acosta *Tigre,* korbeta-kapitaina, ESMAko Inteligentzia Zerbitzuko zuzendaria, oihuka ari zaie atxilotutakoei.

– Hemendik kartzelara joango zarete! Pozik egon zaitezte gero! Dantzara! Dantzara!!

Samba doinuen neurrira, atxilotutako batzuk dantzan hasi dira, artega, zoraturik, bizirik jarraitzeko dakusaten aukera bakarra epilepsia honetan erabakiko bailitzan. Gehienak eserita gelditu dira, xoxoturik bezala. Acostaren azken esaldiaren benetako esanahia ulertu nahian daude. Legeztatu egingo dituztela entzutea gogorregia izan da.

Izkina batean, gazte bizarduna besteei ohartarazten ahalegintzen da:

– Ez da egia! Hilko gaituzte denak, ez da egia!!

1977ko ekaina da. Acostak –uniforme militar dotore, makularik gabekoa, ilea bikain moztua– musikari bolumen handiagoa emateko agindu

dio laguntzaileari. Adolfo Scilingo eta Alfredo Astiz tenienteak, hitzik esan gabe, begira daude. Lehena berri samarra da tortura zentroan. Astizek badu esperientzia.

Biek parte hartu zuten etsi nahi ez duen gazte bizartsua atxilotzeko ekintzan.

Caballito kalean izan zen. Scilingok gidatzen zuen Ford Falcona. Astiz, taldeko burua, izan zen gerrillari montoneroari pistolarekin aurre egiten lehendabizikoetakoa. Gero, Buenos Airesko kaleak ziztu bizian zeharkatu zituen auto barruan, Astizek berak jarri zion zianuroaren kontrako txertoa, badaezpada ere.

Montonero guztiek zeramaten pilula ahoan. Atxilotuta egon ondoren ihes egin ahal izan zuten taldekideen lekukotasunen bidez zuzendaritzakoek bazekiten jende asko zutela zentro klandestinoetan bahiturik, eta oso gutxik eusten ziotela torturari. Sare osoak erortzen ziren horrela. Hobe, beraz, militante baten heriotza talde oso baten suntsipena baino. Zianuro dosiak bost minututan eragiten zuen.

Autoaren zoruan etzanda, bala bat gerrian, montoneroak eduki zuen nahikoa indar militarrei oihu egiteko:

– Ez duzue irabaziko! Herriak ez dizue...

Astizek bota militarra jarri zion ahoan, isil zedin.

Semaforoak gorriz gainditzeko lasterketa zoroan laguntzaile, beste auto bat zerraien. Atzeko besaulkian eserita zegoen salataria, Astizi «hori da» esan zion gerrillari-ohia. Trukea? ESMA barruan lasai, pribilegioekin bizitzeko eskubidea.

Orain, tortura zentroaren sotoan, mediku militarra da txertoak jartzen ari dena, eta hauek ez dira zianuroaren kontrakoak.

– Bidaia lasai egin dezazuen –esan die atxilotutakoei.

Handik ordu erdira, drogaturik denak, kamioi batera igoarazi dituzte. Beste ordu erdia eta hiriburuko Jorge Newbery aeroparkera iritsi da kamioi militarra.

Bi taldetan banatu dituzte atxilotutakoak. Jorge Vildozak, ESMAko Ekintzen buruak, azken aginduak eman dizkio Scilingori:

– Pilotuak erabakitzen duenean medikuak bigarren dosia jarriko die.

Montevideo eta Buenos Aires lotzen dituen hegaldi ohiko baten ondoren jaso du hegazkinak aireratzen hasteko agindua. Asteazkenero bezala –batzuetan larunbatetan ere egiten dira hegaldiak–, Skyvanak, abioi txiki eta arinak, berehala hartu du goia. Hiriburua gainetik zeharkatu ondoren Rio de la Platako bokalerantz zuzendu du muturra.

Kondenatuak eserita daude, hegazkin barruan barreiatuta. Medikuak bigarren txertoa jarri eta, gutxira, konortea galduta daude denak. Gorputzak biluzteari ekin diolarik –noizbait aurkituz gero arropengatik inork identifika ez zitzan–, Scilingok bere atzean negar-zotina entzun du. Medikua nerbioak jota dago.

– Aberriarengatik da dena –Scilingo saiatzen ari da lasaitzen–, gogoratu Mendia almiranteak esan zuena, drogaturik botaz gero heriotza kristaua izango zutela horrela.

Aberriaren aipamenak, edo heriotza kristauarenak, lasaitu egin du medikua. Kabinan sartu da. Ez da aterako lurra hartu arte.

Scilingok bukatu du lana eta orain hamahiru gorputzek meta bat osatzen dute. Irudia lazgarria da.

Tupustean, bizarduna altxatu da. Lo dago, baina altxatu egin da. Erreflexu bat. Montoneroa zutik dago hegazkinaren erdian. Bigarren ofiziala –abokatu zibil bat– hurbildu egin zaio eta gerritik atera duen pistolaren kulatarekin buruan jo du. Gazteak, kamera geldoan, burura eraman du eskua. Abokatuak bigarren kolpe bat eman dio, fuerteagoa. Hurrak kraskatzean egiten duen zarata aditu da. Montoneroak burura eraman du berriro eskua. Jaitsi duenean, dena kamera geldoan, dena begiak itxita, dena lo, odoleztatua dauka. Eseri egin da berriro.

Hegazkinak nahikoa altura hartu du. Behean, ez dago antzematerik non amaitzen den Rio de la Plata eta non hasten den ozeanoa. Pilotuak kabinatik dakusan ur zikina nahasten da itsasoaren urdinarekin. Scilingok, bigarren ofizialaren laguntzarekin, ireki du atea. Banan-banan, gorputzak hartu, ateraino ekarri eta bota egin ditu.

Atxilotutakoak lo daude. Heriotza kristaua.

Ezeizako aireportutik Buenos Airesko zentrora garamatzan autobidearen bazterretan marrazten da giza-geografia, inongo mapatan baino hobeto: larreak hasieran, latorrizko txabolak gero, adreiluzkoak ondoren, porlana eta kristala azkenean. Eraikuntzaren bidez txirotasunetik aberastasunerainoko graduazioa.

Erdialdea kaotikoa da, neurrigabea: munduko etorbiderik luzeena, munduko etorbiderik zabalena, istripuak/autoko portzentaiarik handiena, inolako historiarik ez duen obeliskorik garaiena...

Bazkaldu ondoren gogotsu sentitzen naiz, bizkor. Erabaki dut inorekin hitz egin baino lehen hobe dudala hogei egunez nire hiria izango den hau apur bat ezagutzea. Uste dut urduri ere banagoela, nondik hasi ez dakidalako, izua diedalako agendan apuntatuta dauzkadan telefonoei. Deiari erantzungo diotenen erreakzioa nolakoa izango den arrastorik ere ez dut-eta.

Lagunen prekauzio gomendio guztiak gehiegi kontuan hartu gabe, –«ibili beti taxietan, ez eraman gainean diru asko, atera pasaportearen fo-

tokopia, aldatu dolarrak pixkanaka...»– hartu dut metroa eta abiatu naiz erdialdera.

Retiroko geltokiaren inguruan Carlton Hotelaren itzala nagusitzen da begi-bistan, beste ezer baino lehenago. Hor hasten da finantza gunea, non banku amerikarrek eta dolarraren paritateak Argentinako ekonomiaren gainean aginteak ematen dituzten. Hori beste nonbait ikusi dudala-eta berriro metroan sartu naiz. Haragi errearen lurrinarekin, matearen usainarekin edo –oi, inuxente halakoa!– tangoaren doinuarekin zerikusi handiagoa dukeen beste zerbaiten bila hasi naiz. Mapan Boca ikusi dut. Ezaguna egin zait.

Buenos Airesko auzorik jatorrena da, dudarik gabe. Itsasoari begira dagoen inguru honetara iritsi ziren Argentina osoa populatu eta marka iraunkorra utzi zuten italiar gehienak. Hemen, kaiaren inguruko putetxe eta tabernetan, hemen jaio zen tangoa, gaur egungo gazteek erabat urrun eta anakroniko ikusten duten doinu melankoliko eta gordina.

Buenos Aires zeharkatzen duen Matanza ibaiaren bokalean bertan egotetik datorkio izena auzoari. Itsasadar estu batean –El Riachuelo–

behiala portu garrantzitsua izan zenaren arrastoak daude egun, dena txatarra herdoildua eta ahantzia. Hortxe, italiarrak ekartzen zituzten itsasontzi deseginen aurrean Caminito kalea dago, Carlos Gardelek Parisen eta Madrilen famatu zuen huraxe. Nostalgiaz betetako gunea da.

Latorrizko etxeak dira denak, herri-lanetan langileek aldatzeko edo euria botatzen duenean hamarretakoa hartzeko gurean jartzen diren txabolen antzekoak. Hemen kolore biziez daude pintatuta –gorria, horia, berdea, urdina–. Bi edo hiru etxebizitza dituzte.

Etxeak etorkinek jaso zituzten, lehenago iritsitako senideen laguntzaz. Zerbait hobea aurkitzen zutenean hutsik gelditzen ziren etorri berriek okupatu arte. Urtetan horrela eraiki zen inguru osoa. Etorkinen seme-alabak argentinar egin zirenean, bigarren belaunaldiarekin, auzoak pertsonalitatea galdu zuen. Porlana nagusitzen hasi zen, etxe berriek lekua jan zuten, eta soilik bazter honetan gorde zen behialako itxura.

Caminito da egun gelditzen den lekukotasun bakarra. Udalak dirulaguntzak ematen dizkie bi-

zilagunei, etxeak kolore bizi horiekin eta oraingo egituraz manten ditzaten. Berrogeita hamar metro luze baino ez den kalean pintoreak dira ugari. Postalak ere saltzen dituzte, gai ia bakarra tangoa duten postal batere orijinaltasunik gabeak. Hiriak ez duen historia puxka txiki hau ez galtzeko edo turista despistatuen gozamenerako?

Kalearen mutur batean hiru agure, triste eta ximurturik, behatzaileen zain daude udaberriko arratsalde honetan, tangoak abesteko. Taldea osatu da azkenik haien aurrean eta bandoneonaren soinua entzun eta berehala ezagutu dut abestia. Hitz eder eta larri direnek axalekoak dirudite orain, argazki-makinen flashen artean. Parisko Tulleriasko museoan Moneten pinturak ikusi ondoren turistei saltzen zizkieten posterrak etorri zaizkit gogora.

Estatubatuar talde batek abeslariari txaloak egin dizkio. Dolar batzuk utzi dituzte gero, norbaitek aurrean paratu dien bonetean.

Molde zaharreko taberna batean zerbeza hartzen dudan bitartean sirena hotsek hautsi dute betikoa zirudien monotonia atsegina. Auto-

ek, motorrek, ziztuan denak, segizio urduri eta garrantzitsua iragartzen dute. Bat-batean, itzal luze bat bezala, limusin beltz eta dotorea: barruan Bill eta Hillary Clinton, agurka. Montevideo eta Buenos Airesko aireportuetan ikusi ditut abioi erraldoiak, *President of America* ziotenak. Egun horretan bertan Buenos Airesko egunkari batek titulatu du bost zutabera: «Aitta iritsi da».

Auzokoak, ezin sinetsirik, hurbildu egin dira berehala. Ez gara hogeita hamar baino gehiago izango, baina enperadoreak milaka ditu aurrean, eta gogotik ezpaineratu du bere irrimarrarik estudiatuena. Hor daude-eta kazetari estatubatuarrak.

Denda batean erosketak egiten dituen bitartean antolatu dira poliziak, bizkarzainak, segurtasun indarrekoak, kazetariak, motoristak, protokolokoak, idazkariak, adjuntoak... Ehun kiloko gihar puskak, ezkerreko besoan fusil automatikoa duela, erpurua altxata agurtu du ahoa bete hortz begiratzen dion haurra, eta garen gune hori Buenos Aires edo Washingtongo herrixka bateko auzo bat ote den dudatan hasten garelarik, hara non azaldu diren udal motorista argen-

tinarrak, izerditan, kaskoak buruaren alde batera erorita, euren hirian ere estatubatuarrek despistatu egin dituztela-eta amorraturik. Hesian orain gaztelaniaz hitz egiten da.

Margolari afizionatuen artetik bi haur atera dira eskuetan koadro bat dutela, eta udaltzainburuaren laguntzaz hurbildu dira amerikarrengana, Jaunari oparia emateko asmoz, baina ezkerreko belarrian mikrofonoa daraman gizonezko ilehori eta garaiak ezetz esan die antiojoekin, buruarekin, besoekin, ezetz behin eta berriro, ezetz biribil eta itsusia. Zaintza markakoa da: ikusle bakoitzeko bi polizia-edo egon arren, atentatu baten arriskua usaindu balute bezala antolatuak dira segurtasunekoak; misilekin teilatuetara apuntatzen dute arreta handiz. Jendeak, anartean, aipamen oso ederrak egin ditu autoen dotoretasunaz, uniformeen distiraz eta arma automatikoen ustezko efikaziaz. *Bienvenido Mr. Marshall* filmetik ateratako eszena dirudi. Halako batean, dendatik atera da bikotea eta hautsi egin dira orduan lerro guztiak. *Made in USA* bizkarzainak ahalegintzen dira orain, euren onetik

aterata, Billengan gehiegi hurbildu den jendearen entusiasmoa kontrolatzen.

Ez naiz hasierako tokitik mugitu, baina batbatean konturatu naiz ez nukeela inolako arazorik izango Estatu Batuetako presidenteari zaplatekoa emateko: besoa luzatu besterik ez... Pentsamendua saihesteko denborarik gabe hara doa berriro limusinera. Etorri den bezala desagertu da, segizio eroa atzean duela.

Nire ondoan bi emakumek:

– Bai umila, ikusi dun?

– Bai, eta Hillary ere bai. Beste batzuk ordea... handinahi eta handiuste.

Konkistadorea hemen ere.

Boca Juniorseko La Bombonera futbol zelai mitikoa bisitatu dut gero. Ateak zabalik ditu egun osoan, jendeak ikus ditzan zorabiatzeko moduko harmaila hori eta urdinak, argazkiak atera ditzan Maradonaren lehen golen lekuko izan ziren horiexen inguruan. Museo bat da ia. Bombonera deitzen diote harmailak, garaiak izateaz gain, oso zuzenak direlako eta, horrela, berdegunea bera goxokia kutxa txiki batean bezala gelditzen delako.

Badu zerbait, bai. Beteta zoragarria izango da.

Kanpoaldean futbolaren usaina aditzen da nonahi. Boca Juniorseko zaleei *bosteros* zaie –*bosta* behi-ongarria da–, alde batetik ibaiari darion kiratsarengatik eta, bestetik, jatorri xumeko jendea delako gehiena. River Platekoak, ordea, auzo itxurosoenetan dira nagusi, hiriburuko iparraldean. Geografia arau unibertsalaren agindua: iparra aberatsa, hegoa pobrea. Baita hegoaldean ere.

Maiatza Plazako amak

– Gogora ezazue: argentinarrak, jakin nahi izan dutenean, Maiatza Plazara joan izan dira beti.

Azucena Villaflor de Devicentik, Stella Mari eliz-kaperako aulki batera igota, ahaztu egin du hankak puztuta dituela eta etxera joan behar duela, senarra eta alaba zain dituela, urduri. Eta jendaurrean hitz egiten ohituta ez dagoen arren hortxe dago, armada garaitua dirudien senitarteko taldeari begira. Bikariogo kastrensearen harrera-gela txikian besaulkietara igo dira batzuk, gehienak bildu dira andre oparo honen ingurura... eta marmarra isildu da bat-batean.

Bost hilabete lehenago desagertutako Nestor semea etorri zaio burura Azucenari. Gainerako amen begiak beregana zuzendurik ikusi dituelarik eztarrira igo zaio larrimina: jendeak heldule-ku bat behar du, itxaropenari ate guztiak ez zaizkiola itxi behar sinetsi nahi du eta berak hartu du –orain badaki– ardura hori.

Askoz beranduago norbaitek gogoratuko zuen bezala, soldaduen animoari eutsi nahi zion jenerala zen andrea.

Kolpe militarra izan eta hurrengo hilabeteetan, gazte ezkertiarrak kale-kantoi guztietan desagertzen hasi zirenean, familiarrek benetako peregrinazioa hasi zuten bulegoz bulego, funtzionarioz funtzionario, leihatilaz leihatila... erantzun bera jasotzeko beti:

– Hemen ez dakigu ezer.

Horietarik asko bikariogoaren egoitzara bidaltzen zituzten, esanez han behar bezala hartuko zituela artzapezpikuak, berak egingo zituela gestioak.

Stella Mariko artzapezpikua baino idazkaria izan zen familiarren kexuak entzun behar izan zituena. Galdetegi baten bidez desagertutakoei buruz txostenak egiten hasi zelarik, amak laster asko ohartu ziren galdera gehiegi zirela, datu gehiago jasotzeko militarrek asmatu zuten beste bide bat zela. Seme-alabak bahitu zituen Armadaren beraren benetako informazio zerbitzua, sotanaz mozorroturik.

Etsipena sustraiak egiten hasia zen jendearengan, nekatuta zeuden eta nora jo jakin ezinik. Gero eta gehiago ziren, atxiloketak egunero gertatzen ziren, inork ez zituen aintzat hartzen... Azucenaren hitzek lortu zuten etsipen hura borrokatzeko grina bilakatzen. 1977ko apirilaren azken astea zen.

– Hara joango gara, eta asko garenean, zeharkatuko dugu plaza, zeharkatuko dugu kalea, sartuko gara gobernuaren egoitzara... eta hitz egingo dugu Videlarekin.

Senitartekoek, artean, uste zuten kontrolik gabeko taldeen lana zirela atxiloketa gehienak, eta jeneralarekin hitz egitea lortzen bazuten, gauzak bere onera etorriko zirela. Ziotenez, urtea bukatu baino lehen atxilotutako denak askatuko zituen Batzorde Militarreko buruak.

Maiatza Plaza aukeratzea ez zen ausazkoa izan. Leku estrategikoan egoteaz gain –katedralaren eta gobernuaren egoitzaren inguruan–, borrokaren sinbolo ere bazen: mende honetako erdialdetik aurrera hantxe egin ziren gisa guztietako mobilizazio eta protestaldi nagusiak. Horieta-

tik bi, biak ere peronismoarekin lotuta, denen gogoan zeuden.

Bata 1945ekoa zen. Juan Domingo Peron lehendakariorde zen. Militarrak urduri zeuden bere emaztea, Evita, bultzatzen ari zen aldaketa sozialekin, eta jenerala atxilotu eta kartzelaratu egin zuten. Evitak, orduan, inoiz ezagutu gabeko protestaldia antolatu zuen bera gurtzen zuten langileekin. Argentina osoko atorrabarikoak –horrela esaten zien Evitak txiroei– mobilizatu zituen Buenos Airesera, senarraren askatasuna eska zezaten. Eskualde guztietatik, gau eta egun ibili ondoren, Armadak bidean jarritako oztopo guztiak gaindituta, olde handi eta geldiezin baten gisara iritsi zen jendetza Maiatza Plazara. Hantxe aritu ziren oihuka bi egunez, mugitu gabe.

Peron askatu berriaren agurra Etxe Arrosaren balkoitik bertatik entzun zutenean, mistika peronistak unerik gogoangarriena bizi izan zuen Maiatza Plazan. Evita ondoan zuela, hurrengo hamar urteetan Argentinako buruzagi nagusia izango zenak banan-banan aletu zituen aurrera

eraman nahi zuen iraultza sozialaren ardatz nagusiak.

Bigarren une historikoa 1955ean izan zen. Evita hilda, Peronek galdua zuen jada herriaren atxikimendu itsu hura, eliza ere kontra zuen... militarrentzat mauka: boteretik egotzi zuten jenerala, eta erbestera bidali. Bere aldekoek berriro ere Etxe Arrosaren aurreko plaza hautatu zuten protestarako, han bildu ziren milaka. Orduko hartan, Armada ez zuen flakiak jo: bildutakoak bonbardatu zituen.

Telebista kameren aurrean irudi erdiragarriak ikusi ahal izan ziren: jendea korrika, jendea hilda plaza erdian, jendea zerura begira, sinetsi ezinik, eta zeruan helikopteroen joan-etorri etengabekoa, kupidagabea. Ehundaka hildako izan ziren. Peron, ordurako, Europarako bidean zen.

1977ko apirilaren 30ean, beraz, plaza honetan biltzeko estreinako hitzordua egin zuten amek. 15.30etan hamar besterik ez zeuden. Azucenak eta lagunek beldurraren beldurrez ikusi zuten plaza hutsik zegoela... larunbata zelako. Luze egon ziren geldi-geldi, elkar babestuz, zer egin jakin gabe. Eta erabaki zuten osteguna

izango zela elkartzeko egunik aproposena. Gaur arte.

Lehen hitzaldi harengatik, eta Alfredo Astizek gidatutako talde batek bahitu zuen arte erakutsi zuen lidergoarengatik, Azucena Villaflor Maiatza Plazako Amen fundatzailetzat hartua izan da beti.

Dezepzionante samarra da, egun, Maiatza Plaza. Buenos Airesen erdigunean, Etxe Arrosatik abiatu eta Kongresuraino doan alegiazko marra batek zeharkatzen du. Albo batera katedrala. Trafiko etengabe eta lotsagabea duten Balcarce, Colon eta Maiatza Etorbidea kaleek itotzen dute. Hegaletan metrorako eskailerak eta lorategi tristeak daude; plaza erdian estatua anodino eta zikin bat eta, inguratzen duen zirkulua itxiz, zapi zuriak lurrean pintatuta. Norbait biltzeko munduko tokirik deserosoena dirudi, baina hemen idatzi da desagertutakoen tragedia mundu osoan ezagutarazi duten emakume hauen historia.

Duela 20 urtetik hona egin izan duten bezala, ostegunero ohiko bilkura isila egiten dute Amek. Bukatutakoan, Hebe de Bonafini Amen lehendakaria labur solastatzen da, aste horretako gertakariren bat aipatu eta betiko mezuak errepikatzeko. Gero, normalitate osoa. Ministerioetako funtzionarioek zapaldu egiten dituzte lurrean margoturiko zapiak, gazteek ogitartekoak jaten dituzte belardietan eta metro zaharrak ahalkegabe egozten ditu bere korrokak eskaileretatik gora.

Ez dago ezer okasio handiko lurrin hori gogorarazten duenik, ez bada Etxe Arrosaren beraren handinahitasuna. Ez plaka bat, ez oroigarririk, ez lekukotasunik. Ez lore sortarik.

Gizarteak ahaztu egin du. Ahaztu nahi du. Lantzean behin protestak egiten dituzten atso maitagarri baina zoro samarrak dira Amak. Militarrak aluak bai, Astiz horrek ez du neurona bat sano, baina torturatzaile ezagunek igandero entzuten dute meza Buenos Airesko auzo dotoreetako elizetan, eta jendeak txalotu egiten ditu batzuetan. Antonio Bussi, Tucumango gobernadore militarra zelarik 600 gazteren desagerpenaren

arduraduna, eskualde horretako gobernadore aukeratu dute hauteskundeetan, eta «bi dea-bruen» teoriaren bidez –militarrak eta gerrilla-riak zein baino zein gaiztoagoak izan zirela, gerra bat izan zela– gehiegikeria asko justifikatu nahi izan dira. Justifikatu dira.

Aurrera begiratu behar dela entzuten da toki guztietan. Eta Argentinako justizia munduko onena dela dio Carlos Menem presidenteak.

AMEN ETXEAN

Hipolito Yrigoyen kaleko egoitzaren balkoitik zintzilik dira zapi txuriaren irudi famatua eta «Amen Etxea» dioen bandera handia. Udaberri-ko haizeak harrotzen du kale estuan, eta desa-fioka dagoela ematen du, orain begiratzen duela alde batean duen Parlamentura, orain bestalde-tik zaintzen duen Etxe Arrosara.

Barruan mugimendu handia dabil. Hogeita hamar inguru izango dira amak egun, gehienak 70 urteren bueltan. Kemen ikaragarria dute oraindik ere errebindikaziorako, beti prest, inoiz

baino erradikalago. Ahotsa indartsu dute agintarien bidegabekeria eta ustelkeriak salatzeko, gorputza gazte ostegunero plazara joateko ez ezik, eliza bat okupatzeko Argentinako behartsuen egoera salatzeko.

Gaur burtsako egoitzan pankartak aterako dituzte kapitalismoaren kontra, bihar Kubako Epaitegi Antiinperialistaren aurrean diskurtso grinatsua egingo dute, etzi unibertsitatean antolatuko dute hitzaldi zikloa iraultza eta demokraziari buruz. Intsumisoak zaizkie legeari –ez dute botorik ematen, nahiz eta derrigorrezkoa den Argentinan–, gobernuari –ez dute dirulaguntza ofizialik onartzen–, ahanzturari. Ez dute isiltzen semealabak akabatu zizkietenak libre eta lasai dabiltzala oraindik, libre eta lasai beraiek zapaltzen dituzten kale berberetan.

Hogeigarren urteurrena ospatzeko rock kontzertua egin zuten Argentinako talde garrantzitsuenek Buenos Airesko kiroldegi batean, eta sekulako arrakasta izan zuen ekitaldiak. Hurrengo egunean egunkari batek idatzi zuen Argentina osoan Amak bakarrik direla gauza horrelako jen-

detza erakartzeko eta elkartasun sentimendu bizi hori lortzeko.

Baina ordainik ere badu tinko eusteak. Jende asko urduri dago Argentinan justiziaren mugimendu batzuekin, garbi ikusten da zauria ez dela itxi. Egunkariek egunero dakartzate diktadura garaiari buruzko informazioak... eta Amen egoitza bi aldiz txikitu dute azken hilabetean. Artxiboak lapurtzeaz gain, hautsi egin diete hilero kaleratzen den kazeta egiteko tresneria, eta hankaz gora utzi dute dena. Biharamunean Hebe de Bonafinik, beste ama batzuekin batera, bere 75 urteak etzan ditu egoitzaren zoruan, eta gau osoa han igaro. Ozen esan nahi diete ez dutela beldurrik, segitzen dutela, segituko dutela.

Txikizioa gertatu eta astebetera ordenadore berriak dauzkate egoitzan, dena elkartasun taldeak lortuta. Ez da lehen aldia izan, ez da azkena izango. Beti berrosatu da egitura, elkarteak peso bat ere ez duen arren.

Amona ihar eta txiki batek ireki dit atea. Gela handi batean liburuak ordenatzen eta fotokopiak ateratzen ari dira bi gazte. Broma eta irribarreek kontraste polita egiten dute amen ahots geldo

eta pausatuekin. Armario batean, taldeari mundu osoko herrialdeetan egin dizkioten omenaldien oroitzapenak. Paretetan, desagertutakoen argazkiak.

Gabriel Fernandez kazetaria da hilabetekariaren arduraduna. Zertara heldu naizen azaldu diodanean mekaniko samar errepikatu du ia doktrina bihurtu den Amen filosofia.

– Akabatu zituztenen artean euskaldunik ezagutzen al duzue? –ur zurrunbilotsutan igerian nabilen sentipena dut.

– Guk ez ditugu inoiz nazionalitateen arabera sailkatu. Desagertu guztiak dira gureak, 30.000 horiek. Ezin da bereizketarik egin –erantzun dit.

– Euskaltasuna aitzakia da desagertutakoen gaia jorratu eta lekukotasunak biltzeko –esan diot–, ez zaizkit Tucumangoak edo jatorri italiarrekoak baino garrantzitsuagoak iruditzen, baina horiei buruz idatzi nahi dut.

Ez nago eroso, burua zuritzeko inolako beharrik ez dudalako sentitzen, baina behin eta berriro errepikatu beharko dut argudioa Argentinan nagoen bitartean. Gero jakingo dut Baltasar Garzonen epaiketak errezelo batzuk sortu dituela,

batzuen ustez bereizkeria egin izan delako pasaportearengatik.

Gabrielek ulertu duela iruditu zait.

– Hau duzu euskalduna –esan du bat-batean, iritsi berri den andreari begira.

ALICIA MEROÑO

Maria de las Mercedes Colas Irisarri egunero bezala heldu da Amen Etxera, ahal den guztian laguntzera. Orain arte ikusi ditudanen artean gazteena dirudi 74 urteko lodosar honek, sasoikoena. Bisaia argia du, indarra dario.

– Euskal jatorriko desagertuei buruz datuak biltzen ari naiz.

– Guretzat berdinak dira denak –berretsi dit berak ere.

– Nolanahi ere, zure alabaren historia jaso nahiko nuke.

Onartu du Aliciaz hitz egitea.

– Nafarroan gorriak pasatutakoak gara. Gure aita CNTko militantea zen eta 36ko gerra piztu zenean nazionalek atxilotu zuten, eta Tuterara

eraman. Hurrengo egunean fusilatu zuten. Garai hori sofrikarioa izan zen guretzat, ahizpa eta biok Lodosako karriketan barna ilea arraso moztuta pasearazi gintuztelako. Lotsa eta gorroto hari ihes egiteko, gure amak gu biok hartu eta Argentinara ekarri gintuen.

Mercedes han ezkondu zen eta han jaio zen Alicia bere alaba. Neskak 31 urte zituen militarrak etxera azaldu eta atxilotu zutenean. Ordu t'erdiko itaunketa egin behar ziotela esan zioten, berehala itzuliko zela. Haurrak –zortzi, zazpi eta lau urteko Martin, Patricia eta Leonardo–, bizilagun batekin utzi eta militarrekin joan zen.

Ez zuten berriro bizirik ikusi. 1978ko urtarrilaren 5ean izan zen.

– Alicia ez zegoen inongo taldetan, ezta sindikatuetan ere –dio Mercedesek–. Dendaria zen, merkatuetan-eta saltzen zituen produktuak. Borrokalaria zen, hori bai! Gure familian oso barruan zegoen sen hori. Sistema aldatu nahi zuen, baina jaso zuen heziketarengatik ezin zuen inongo taldetan jardun, ulertzen? Bere borroka askatasunarengatik zen, oinarrizko eskubideen aldeko askatasunarengatik.

Borborka ateratzen zaizkio oroitzapenak eta eskuak arin mugitzen ditu hitz egiten duen bitartean. Olatuak marrazten dituela irudi luke.

Han eta hemen galdezka hasi zen berehala. Paperak bete, habeas corpusa eskatu, ate guztiak jo zituen.

– Ate guztiak, Elizarena izan ezik, garai haietan inork ez zuelako apaizengandik ezer jaso. Ez zituzten mezak ematen desagertutakoen alde eta, maiz, galdera gehiago egiten zizkiguten, datuak biltzeko. Zerbait egin zuten batzuk izan ziren, baina horiek ere desagertu egin ziren.

Lehen sei hilabeteak tortura izan ziren, eta Nafarroan jasandako mina berriro erne zitzaion, alabaren azalean areagotuta.

– Ezin nuen hitz egin, ezin nuen lutoa eraman, ezin nuen ezer egin. Orduan bezala. Depresio gogorra izan eta gero, burua altxatu eta borrokatzea erabaki nuen: ostegun batez hurbildu nintzen Maiatza Plazara. Amek ikusi nindutenean inguratu egin zitzaizkidan, besarkatzera. Denek zekiten zein gogorra zen lehen urrats hori eta babestu nahi izan ninduten denen artean. Negar batean hasi nintzen. Haiei esker konturatu nin-

tzen borrokarik gabe ez dagoela ezer. Inoiz ez ginen asko izan, batzuetan atxilotuta eramaten gintuzten eta desagertutako batzuk ere izan ziren gure artean baina kalera atera ginen, gure seme-alaben borroka gure egin genuen.

Mercedesek ez zuen inoiz galderarik egin, ez zuen jo bizirik irten zirenengana Alicia zentroren batean ikusia ote zuten galdetzera.

– Zertarako? Xehetasunak jakiteko? Ez. Nik baditut 30.000 desagertutako, ez nire alaba bakarrik. Alicia beste bat izan da, baina denei egin zieten gauza bera.

Entzuten dudan bitartean mezuaren gatibu dela otu zait, kate ikusezin batek ondo lotzen bide duela. Mercedesen jardunak badu zer edo zer artifiziala, mezua hainbeste errepikatu denean sortzen den monotonia kutsu pixka bat. Ez kontatzen duenarengatik, baizik kontatzeko moduarengatik. Oroitzapenak porlanezko kutxa batean bildu eta ezerk aldatu ezingo balitu bezala.

– Zergatik amak eta ez aitak? –sartu naizenetik buruan darabildan galdera egin diot azkenean.

– Gure senarrek lana zeukaten. Etxetik ateratzen ginenean, norbait gelditzea nahi genuen, alaba edo semea etortzen bazen-edo. Oharrak uzten genizkien sarreran: «Alicia, berehala itzuliko naiz, hozkailuan aurkituko duzu jatekorik». Gainera, gutako asko alargun gelditu ginen, senarrek ezin izan zutelako presioa eta mina jasan. Beste ama batzuek senarrei kontra egin behar izan zieten, haiek ez zutelako uste borrokatik ezer atera genezakeenik.

Egoitzaren sarreran gaude, Amei buruz idatzi diren liburu ugariez inguratuta. Horietako batean –*Judas. La verdera historia de Alfredo Astiz*–, Uki Goñi kazetariak kontatu du nola izan ziren Mercedesek aipatutako desagerpenak, Amenak.

Maiatza Plazan astero-astero biltzen hasi eta komunikabide amerikar eta europarren arreta bereganatzen hasi zirenean –argentinarrek isiltasuna aukeratu zuten diktaduraren lehen urteetan–, amen taldearen aurka egitasmoa prestatu zuten Armadako Inteligentzia Zerbitzukoek, taldea desegiteko edo, gutxienez, taldekideak izutzeko, atzerrian gero eta oihartzun handiagoa zutelako salaketek.

Horretarako, partaide guztien datuak eta funtzionatzeko modua ezagutu behar zituzten lehendabizi. Alfredo Astiz tenientea aukeratu zuten infiltrazio lana egiteko. Astizek berak atxilotutako batzuei gero onartu zienaren arabera, Montoneroak talde gerrillariarekin harremana aurkitu nahi zuten Amen barruan, ez baitzuten sinesten protestaldi hura guztia ama soil batzuengandik sortua zitekeenik.

1977ko ekainean, bada, amen bilkuretako batera gazte ilehori bat azaldu zen. Orduko lekukoek gogoratzen dutenez, Gustavo Niño –Astizek izengoiti hori erabili zuen amekin– neska batek lagundu zuen. Anaia nagusia desagertuta zegoela eta gazte isil eta polit hura bere arreba zela azaldu zien denei.

1985ean Astiz kapitainari egin zitzaion epaiketan, jakin ahal izan zen «arreba» Silvina Labayru zela, Armadak bahitu eta urte t'erdiz desagerturik eduki zuen 22 urteko montoneroa. Silvina Labayruren haur jaio berria militarren eskuetan zegoen, gatibu, eta Astizek berarekin eraman zuen beste senideen artean susmorik ez pizteko.

Biak aktore bikainak ziren nonbait, oso berandu arte –Astizek taldea bahitzeko egitasmoa prest izan zuen arte– inork ez baitzuen ezer susmatu. Azucena Villaflorrek berak, Maiatza Plazako Amen fundatzaileak, estima handia hartu zion marinoari, eta ia semetzat izan zuen 1977ko hilabete haietan.

Abenduan, desagertutakoen alde eskatzeko egunkarietan publizitate orri bat argitaratu behar zuten bezperan, taldeko hamabi kide bahitu zituzten Armadakoek, Astizek emandako informazioei esker. Horien artean ziren Azucena Villaflor, eta Alice Domon eta Leonie Duquet moja frantziarrak.

– Bahiketa meza baten ondotik gertatu zen –gogoratzen du Mercedesek–. Elizaren ataritik dena ikusi zutenek ez dute ahaztu gazte ilehori gizalegeko hark Ford Falcon beltzak iritsi baino bost minutu lehenago alde egin zuela. Alde egin, ohi zuen gisan, denei musuak banatu ondoren.

Hamabi atxilotuak ESMA tortura zentrora eraman zituzten, eta inor ez zen bizirik atera.

Mercedesek ez du barkatu, eta oroitzapenak bere bizitzako minutu guztiak betetzen ditu orain.

– Gure seme-alaben odolaren mendekua etorriko da herria zoriontsua denean –errepikatzen du.

– Argazki bat egin nahi nizuke –esan diot.

Laster asko atera du poltsatik beti aldean daraman zapi txuria eta buruan jantzi du. Hor, Alicia bere alabaren argazkiaren aurrean, irrimarra triste, definigaitza, eskaini dio objetiboari.

Jon Pirmin Arozarena

Poliziak hainbat lasterren garbitu du kontua. Erantzun behartua eman dio ordutegiaz galdetu dion andreari eta aurrera jarraitu du gero bere ibilera aspertuarekin, geltokiko sarrera-gelatik barna. Galdetu ez galdetu egon ondoren –bekozko mudatua du, egun petrala– hurbildu naiz eta bota diot.

– Tigrera doazen trenak nondik abiatzen dira?

Entzun ahala irribarrea eskaini dit.

– Nondik heldu zara?

– Euskal Herritik.

– Polita Buenos Aires, ezta? Lastima, jende alu samar hau.

Argentinarrek euren burua gutxiesteko eta kanpotarrena ederresteko joeraren lehen adibidea. Entzungo ditut horrelako asko.

Funtzionarioa alaitsu eta animoso dago orain.

– Jende ona, euskaldunak.

Atseginez eman dizkit tren irteerei buruzko argibideak eta atseginez elkar agurtu dugu gero.

Emigranteen gainean eginiko herria izanik, ez ninduke harritu beharko guardiarenak, baina egun hauetan konturatu naiz jendeak oso present duela gurasoen edo aiton-amonen herritartasuna, berehala bereizten dituztela nazionalitateak –desagertuez mintzatzean izan ezik–. Argentinan euskalduna euskalduna da, ez galego, ez espainol ez frantses. Natural samar egiten dute. Ez da Hego Amerika osoan berdin jazotzen, seguruenik euskaldunek, Argentinan, inongo talde etnikok baino arrakasta handiagoa izan dutelako.

Une egokian iritsi ziren Eldorado honetara. Joan den mendean artzaintza ez zen itxurazko jarduera argentinarrentzat; aitzitik, ekonomikoki garrantzi eskasekoa eta sozialki arbuiagarria. Bigarren mailakoa behizaintzarekin alderatuta. Lehen kolono ingelesek, ordea, topatu zituzten belaze apartak artzaintzarako, eta amaierarik gabeko lurren mitoa berehala iritsi zen gure mugetara, Baztan eta Baigorri aldeko baserrietara. Animatu zirenek, Estatu Batuetan egin bezala, gogo onez hartu zituzten beren kargu Euskal Herrian pentsaezinak ziren artaldeak.

XIX. mendearen erdialdetik aurrera, gainera, garai onak iritsi ziren. Artzaintzaren industriak gora egin zuen izugarri, behizaintzarekin parekatzeraino, artileak lortu zuelako nahikoa kalitate Australiakoa edo Zeelanda Berrikoarekin lehiatzeko. Euskal artzainek lur gehiago erosi zituzten Pampan, ardiak ez ezik behiak ere jarri zituzten, eta garia, eta artoa, lur berriak kolonizatu zituzten hegoaldean, gobernuaren agintea iristen zen mugen ondoan, eta... edonon laketu ziren.

Joan den mendeko emigrante italiar batek, aditzera izan eta gero Ibai Beltzaren inguruan bazirela artean lur onak azienda gobernatzeko, hartu zuen zaldia eta hegoalderantz abiatu zen. Zortzi egunez inorekin topo egin gabe zamalkatu zen, harik eta gau batez muino baten magalean etxetxo batzuen argia eta tximinietako kea ikusi zituen arte. Kanpamentu bat. Denak euskaldunak ziren, herri berekoak.

1958an eginiko ikerketa bateko emaitzek argirik ematen dute euskaldunen garrantziaz. Datuon arabera, Argentinako hiru lurjabe nagusiak –200.000 hektareatik gorako lurraldeak zituzten bakarrak– euskaldunak ziren; hiriburuko elkarte

berezienen bazkideen artean %23k Euskal Herrian zuten jatorria, eta Abokatuen Elkargoan %14k. Gainera, 1853tik 1943ra bitartean izandako 22 presidenteetatik hamar euskaldunak izan ziren. Euskal jatorriko argentinarren kopuruarekin alderatzen baditugu –milioi bat lagun inguru 1960an, hau da, populazioaren %5a–, zenbakiak adierazgarriak dira oso.

Jende boteretsua beraz, agintearekin loturak zituena, ordenarekin eta garapen kapitalistarekin probetxua ateratzen zuena. Ez da harrigarria, horregatik, Buenos Airesko Laurak-Bat euskaletxean –Argentinako garrantzitsuena– gehiengo isil bat 1976ko diktadura militarraren aldekoa izatea. Ez da harrigarria, argentinar askok hartu zutelako arnasa militarrak boterearen jabe egin zirenean. Montoneroak eta Ejercito Revolucionario del Pueblo (ERP) gerrillari taldeen ausardiarekin izututa, kolpeak gizartearen oniritzia izan zuela esan daiteke gaur egun.

Arozarena Larreki familiak pairatu behar izan zituen amore emate horren ondorioak. Etxean

hiru egunez bahituta eduki ondoren, militarrek Jon Pirmin seme nagusia eraman zutenean, Laurak-Baten bazegoen, egon ere, diktadurakoekin harreman ona zuen bat edo beste. Gaztea oso ezaguna zen zentroan, bere familia bezala, baina alde horretatik ez zen inolako laguntzarik etorri.

Ramon Arozarenak, Jon Pirminen anaiak, leundua du orduko arrangura.

– Izan ziren bai, guri laguntza ematea bazuten arren ezer egin ez zutenak, baina, orokorrean, Laurak-Batekoak oso ongi portatu ziren. Giroari eta jendeari esker eutsi genion minari, horri esker atera ginen aurrera.

Belgrano kaleko Laurak-Bat etxearen goiko solairuan gaude. Gela handia da, handiegia nonbait ibiltzen den jende kopururako. Mahaiak hutsik daude, hautsak hartuta. Sabaiko leihotik sartzen den argia transluzidoa da, ahula, komentukoa. Anakroniko samarra.

Behetik iristen dira gisugileen oihuak eta makineriaren hotsak. Zaharberritzen ari dira joan den mendeko eraikina, aurpegia garbitzen ari zaizkio. Frontoian –trinkete dotorean– lau pilota-

ri partida jokatzen ari dira Buenos Airesen bertan egiten diren El Vasquito markako palekin.

Ramon eta Miren Amaia Arozarenak bata bestearen atzetik erretzen dituzte zigarroak zurezko mahai biribil baten inguruan. Biei baztandartasuna islatzen zaie aurpegian. Argentinako Euskal-Etxeen Federazioko burua da, gaur egun, Miren. Ramon hainbat urtez izana da Laurak-Bateko zuzendaritza batzordeko kidea. Anaiak hitz egiten du, Mirenek entzun egiten du. Jon Pirminena jazo zenean hamabi urte besterik ez zituen.

Arizkundarra sortzez, Ramon Arozarena aita 60ko urteen hasieran iritsi zen Buenos Airesera, Caracastik. Estatu Batuetako multinazional bateko enplegatua, bai Venezuelako hiriburuan baita Buenos Airesen ere euskal-etxeetara bildu zen, eta seme-alabak giro horretan hazi eta koskortu ziren. Jon Pirmin, Ramon eta Mirenentzat bigarren etxea zen ia Laurak-Bat, dantza taldean aritzen ziren hirurak, hangoak zituzten lagun eta ezagun gehienak.

Politikara kolpearen aurreko urteetan esnatu ziren. 1973an, aspaldiko partez, hauteskundeak deituak ziren lehendakaritzarako. Juan Domingo

Peron iristekotan zen erbestetik eta militarren agindupean bizitza osoa eman ondoren, gazte askorentzat demokrazia ezagutzeko lehen aukera zen hura.

Laurak-Batekoek eztabaida sakonak zituzten gai hori zela-eta: politikak betetzen zituen sola-saldiak. Lagun talde batek –haien artean Arozarenatarrak– elkarrizketak izan zituen alderdi politikoetako ordezkari batzuekin, erabakitzearren botoa zeini eman. Belaunaldi bereko askok bezala, beraiek ere peronismora jo zuten.

Bi anaiak auzoetan klaseak ematen edo herri pobreetan laguntza ematen aritu ziren astebuetan. 1973ko udan Tucumanera joan ziren, iparraldeko eskualde hartako Simoca herrian eskola bat eraikitzera. Han ezagutu zuten Carlos Valladares gaztea, bertako elkarte erlijioso bateko partaideekin egin zituzten harremanen artean. Valladares Montoneroetan zebilen.

– Guk ez genekien –dio Ramonek–. Gure laguna zen, besterik gabe. Buenos Airesera etortzen zenean, elkartu egiten ginen berarekin, zerbait hartu eta mintzatzeko.

1976rako, kolpe militarra izan zenerako, bi anaiek utzia zuten jada militantzia, kalean zegoen giro bortitza zela-eta.

– Ez zegoen antolatzerik –argudiatzen du Ramonek.

Urtebete lehenago, 1975eko uztailaren 14an, Lomas de Zamorako euskal zentroan egiten ari zen kultur aste baten barruan, Euskal Herriari buruz hitzaldi sorta bat antolatu zen. Horietako batean ETAren gaia jorratu nahi izan zuten antolatzaileek. Ezin izan zuten, Polizia aretora sartu eta bertan zeuden guztiak atxilotu zituelako. Zurrumurrua zabaldu zen ETAk eta Montoneroek antolatu zutela ekitaldia, eta komisaldegian «estremista» gisa fitxatu zituzten.

Biharamunean denak –haien artean Laurak-Bateko kide batzuk– libre atera ziren, kargurik gabe. Arozarena anaiak ez zeuden, baina bai beren lagun taldekoak.

1977ko apirilaren 27an, etxera bila joan zitzaizkionean, larrutik ordaindu zuen Jon Pirminek ezkerrerantz, peronismorantz, noizbait lerratu izana.

Goizeko hamarretan hasi zen neke-negarra. Txirrinak jo zuenean Ramonek zabaldu zuen atea: Jonengatik galdezka zetozen bi lagun. Anaia ez zegoela entzun ondoren aitarekin hitz egiteko eskatu zuten, edukazio osoz. Egongelara iritsi zirenean armak atera zituzten. Hiru egun iraungo zuen bahiketaren lehen aktoa.

– Mairuak, taldeko nagusiak, asmoak garbi uzteko edo, pistola mantso, kontu handiz, mahaiaren gainean laga zuen –begirada zigarroaren kearen eta hormaren arteko nonbait iltzatuta gogoratzen du Ramonek egun hura–. Hortxe egongo zen beti, baita gurasoekin kafea hartu eta solasaldietan ariko zenean ere.

Armaturik zeuden morroiez beteta zegoen etxea Jonek hots egin zuenean.

– Jon, etor hadi bizkor –esan zion Ramonek, pistola bat buru parean zuelarik.

Jon Pirmin iritsi zenean familia guztia egongelan bilduta aurkitu zuen.

Morroiek sukaldera eraman zuten, itaunketa egiteko. Azaldu ziotenez, Valladares buruzagi garrantzitsua zen Montoneroetan, eta militarrek bere mugimenduak ezagutzen zituztenez, baze-

kiten hots egingo ziola Buenos Airesera iristean. Horrela harrapatu nahi zuten.

Ramonek filma bailitzan kontatzen du hogei urte lehenagokoa, norbaiti entzundako ipuina bailitzan. Ez dago emoziorik, ez tristurarik. Fotogramak begien aurrean ikusi ahala botatzen ditu, horrela baizik ezin duelako gogoratu –esateko modua da–.

– Hiru egunez bahituta egon ginen denak. Bigarren egunean, osteguna zen, txikiak joan ziren eskolara normal, ama erosketak egitera atera zen, eta niri fakultatera joaten utzi zidaten, esan zigutelako bestela susmoak piztu litezkeela gure ezagunen artean. Jonen neskalaguna ere etxean zen ordurako. Estreinakoz hots egin zuenean, harrituta Jon ez zelako unibertsitatera joan, esan genion anaia gaixo zegoela, ez etortzeko sendatu arte. Egun berean beste bitan deitu zuen, eta gure bahitzaileek pentsatu zuten hobe zela kontrolatuta edukitzea. Agindu zehatza eman zidaten: «Berriro deitzen badu esaiok etortzeko Jon bisitatzera». Deitu zuen, esan nion, eta etorri zenean harrapatu egin zuten.

Valladaresek egin behar omen zuen deiaren zain zeuden denak, beraz. Familiak bizi zuen tentsioaren aldean harrigarria zen morroiek erakusten zuten patxada, lanari ohituta baileuden. Taldeko burua zenak behin baino gehiagotan hitzaspertua egin zuen gurasoekin.

Familia zintzoa zela bazekiela esan zien Arozarenatarrei, «ez askotan ikusi ditugun horiek bezalakoak», horregatik jokatzen zutela horren zuzen, normalean dena hautsi egiten zutela. Valladares harrapatutakoan bakean utziko zituztela eta bizimodu normala egin ahal izango zutela aurrerantzean. Hori bai, denei garbi azaldu zieten kanpoko norbaiti ezer esatera Jon hil egingo zutela. Ramonek, hala ere, ezin izan zuen presioa jasan, eta Gracian Legorburu lagunari aipatu zion bizitzen ari zirena.

– Ez zarete bakarrak –ohartarazi zion hark–. Beste etxeetan ere gauza bera gertatzen ari da.

Valladaresekin harremanen bat izan zuten Laurak-Bateko guztiek jaso zuten egun haietan militarren bisita.

Ostiralean montoneroak Jon Pirminen etxera deitu zuen. Jonek, bahitzaileen aginduz, biltzeko

tokia eta hitzordua zehaztu zuen berarekin: hurrengo egunean, goizeko hamarretan, Miserere Plazan. Militarrak pozez zoratzen zeuden. «Lasai, mutiko hauek perrexilak dira, ergelak, laster bukatuko da dena», esan zieten gurasoei.

Larunbata zen. Taldeko burua izan ezik, etxean zeuden militar guztiak joan ziren zehaztutako plazara, Hipolito Yrigoyen eta Rivadavia kaleen artean. Aitak, 1984an egin zen epaiketan gogoratuko zuenez, Mairua animoso aritu zen goiz hartan, berritsu. Hiru egunetan kendu ez zituen betaurreko beltzak eta bibote postizoa erantzi zituen –«mozorroturik joan behar dugu, badakizue»–, eta Euskal Herriaz aritu zen luze. «Nik badakit zuek oso elizkoiak zaretela, eta hori ondo dago. Ni ere oso katolikoa naiz, baina ETAren borroka hori... Franco asko estimatzen nuen».

Hamaiketan zalaparta handiz bueltan ziren, Jon zekartela. Amorraturik zetozen: Valladares ez zen azaldu. Sukaldean sartu ziren, ateak itxita. Oihuak familia zegoen egongelaraino iristen ziren. Baten batek aipatu zuen Jonen neskalaguna, Adriana, izan zitekeela montoneroari abisua

eman ziona. Jon deitu zuten sukaldera eta, gutxira, Adriana.

Bat-batean garajeko atea ireki zela entzun zuten egongelatik. Auto bat sartu zen. Bahitzaileen oihuak eta aginduak, eta autoaren gurpilen garrasia gero, alde egiten. Taldeko burua hurbildu zitzaien gurasoei. Bibotea eta betaurrekoak atzera jantziak zituen.

– Gaizki atera da dena. Ez dakit zer gertatuko den orain baina egin ezazue otoi Jonengatik.

Arozarenatarrak galdezka hasi ziren berehala, han eta hemen. Aitak Estatu Batuetako pasaportea zuenez, astelehenean bertan enbaxadara jo zuen laguntza eske.

Desagertutakoen senide asko joaten ziren estatubatuarrengana, alde batetik hango komunikabideak zirelako egoerari buruz berriak haizatzen ausartzen ziren bakarrenetakoak; bestetik, ustea zegoelako enbaxadaren presioa izan zitekeela eraginkorrenetakoa.

Jimmy Carter Estatu Batuetako lehendakariak, kanpo arazoetarako politikaren ardatzetako bat giza eskubideen defentsa zela erabaki ondotik, behin baino gehiagotan egin zituen adieraz-

penak Argentinan gertatzen ari zenaren inguruan. 1976ko udazkenean, enbaxadoreak bildutako 7.500 desagertutakoren zerrenda Jorge Videla jeneralari eman zionean, Carterrek berak eskatu zion jende horren berri zehatzak eman zitzala. Batzorde Militarreko buruak hitz eman zion, orduan, Eguberriak «baketsuak» izango zirela Argentinan.

Enbaxadarenaz gain, familiak saiatu nahi izan zuen baita horren ofizialak ez ziren bideetan barna ere. Boterearen zirrikituak ondo ezagutzen zituzten lagunei –euskal komunitateko Iñaki Aspiazu apaizari eta Antonio Astigarraga kazetariari– hel egin zieten. Haien gestioei esker jakin zuten Jon bizirik zegoela, Campo de Mayo –Buenos Airesko iparraldean– izeneko kontzentrazio esparruan.

Handik egun batzuetara telefono deia jaso zuten etxean. Amak hartu zuen.

– Kattagorri andrearekin ari naiz?

Maria Larreki ahotsik gabe gelditu zen, etxean egon ziren hiru egun haietan horrela deitzen baitzion Mairuak, emakumea ez zelako geldirik egoten.

– Faborez, lasai egon zaitezte, eta esaiozue zuen lagun horri eta bere lagunei gure lana egiten uzteko.

Bi aste beranduago, 1977ko maiatzaren 17an, etxeko atean jo zuten berriro. Oraingoan Ramonen bila zetozen.

– Goizeko ordu bata aldera zen –gogoratzen du Ramonek–. Lo netzan ohean. Esnatu nintzenean pistola bat nuen buruan eta janzteko esan zidaten. Ama eroturik zegoen. Esaten zien ea batekin ez zuten nahikoa, bakean uzteko. Haiek, zakar, hiru orduko kontua izango zela erantzun zioten. Autoan sartu eta kaputxa paratu zidaten buruan. Ordu laurden baten ondotik beste auto batean sartu ninduten. Ordubeteko bidaia egin eta gero, jaitsiarazi ninduten eta pareta baten kontra gelditu nintzen, esperoan.

Hotz zen. Jendez betetako orube batean zegoela konturatu zen Ramon. Oihu asko entzuten ziren, kolpeak ematen zizkieten tartean. Hots guztien artean Ramonek ezagutu ahal izan zituen Laurak-Bateko lagun batzuen ahotsak. Valladaresekin harremanik izan zuten guztiak han zeuden.

Halako batean norbaitek esan zion:

– Sorbaldan paratuko diagu eskua, eta sumatzen duanean esan ezak hire izena.

Lerroan jendearen deiturak entzun zituen. Ahots ikaratuak. Eskua bizkarrean sentitzean esan zuen:

– Ramon Javier!

Hurrengoarena deskarga bat bezala iritsi zitzaion belarrietara:

– Jon.

– Bera zen –distira darie Ramonen begiei–, segituan antzeman nuen bere ahotsa. Eskatu nien utz ziezadatela anaia besarkatzen, musu ematen, baina alferrik izan zen.

Orube eta gau berean bi anaien ondoan egon zen Carlos Lopez Echague gaztea, Laurak-Bat zentroko kidea bera ere. Joni gertatutakoaz xehetasun gehiago eman zituen Arozarena nagusiaren desagerketa argitzeko egin zen epaiketan. Orduan aitortu zuenez, gau hartan bizi izan zuen bere bizitzako unerik gogorrena.

Lopez Echague etxera iritsitakoan atxilotu zuten. Begiak estalita auto batean sartu eta ordubeteko bidaiaren ondotik orube batean jaitsia-

razi zuten. Gazteak azaldu zuenez, gero gela batera eraman zutela konturatu zen, negua izanda ez zuelako horrenbesteko hotzik egiten. Jendea sentitzen zuen bere inguruan. Isiltasuna mehatxu kutsuko galderak hautsi zuen, ea prest zeuden agindutakoa egiteko.

– Baietz esan genuen, jakina, nahiz eta ez genekien zer nahi zuten.

Ahots indartsu, autoritario batek azaldu zien bizitzaren merkatuan zeudela, biziak biziekin trukatzen zirela, eta esaten zietena egin ezean txarki pasatuko zutela.

Gelatik kanpora berriro, beste ahots batek esan zion belarrira: «Beizak motel, portatzen bahaiz eta agindutakoa egiten baduk ez zaik ezer gertatuko, bestela gaizki ibiliko haiz».

– Gero, entzun nuen –azaldu zuen Lopez Echaguek epaiketan– pertsona berak beste bati galdetzen ziola: «Hi, esan ezak zer gertatu zitzaian hasieran, laguntza eman nahi ez huenean». «Egurtu ninduten ederki», erantzun zuen hark. Hitz horiek gaur arte gelditu zaizkit gogoan iltzaturik, Jonen ahotsa zen inolako dudarik gabe... ahots torturatua zen, desegina, baina

bera zen. Berriro galdetu zioten: «Eta hobe portatu hintzenean, zer gertatu zen?». «Hobe tratatu ninduten», esan zuen Jonek. «Ikusi duk?», esan zidaten orduan. «Guk esandakoa eginez gero ez zaik deus gertatuko».

Handik torturatzera eraman zuten Lopez Echague. Ramonek entzun ahal izan zituen lagunaren oihuak, entzun hatz lodiaren inguruan jarritako kablearen voltaje gero eta handiagoa. Ikusten uzten ez diotenarentzat, akorduak denak baitira entzundakoez: garrasiak, ahots torturatuak, puskatuak, ahots autoritarioak, aginduak ematen zituztenak, ahots torturatzaileak.

Atera eta bost orduetara atzera etxean zen Ramon, ia joanda, fisikoki ez baina psikikoki torturatuta, amorratuta, etsita. Familian berehala ulertu zuten Ramoni gertatutakoa. Ez zuten berri gehiagorik izan.

Urte batzuk beranduago, Jonekin kontzentrazio esparru batean egondako lagun bat harremanetan jarri zen beraiekin. Ez zioten gehiegi galdetu nahi izan.

– Berak bazuen errudun sentimendua kalean zegoelako, eta Jon barruan gelditua –Mirenen hi-

tzek marrazten dute azken irudia–. Ez genuen bere oinazea areagotu nahi. Bakarrik esan zigun iritsi zenerako tortura egun gogorrenak pasatuak zirela jada Jonentzat.

Familiak, hurrengo urteetan, amorruarekin, etsipenarekin, baita itxaropen ixilarekin ere bizitzen ikasi behar izan zuen. Eta herritarren axolagabekeriarekin, «desagertu bazen zerbait egingo zuen» esaten zietenekin, Joni buruz informazio faltsua eman eta dirua eskatzen zutenekin, militante sozial oro kriminalizatu nahi zituztenekin, demokraziaren etorrerarekin batera dena ahaztearen alde egin zuten politikariekin...

Demokrazia estreinatu berriko garai hura, Mirenek dioenez, oso garrantzitsua izan zen, tuneletik atera eta argia ikustea bezalakoa izan zelako jende askorentzat.

– Raul Alfonsinen gobernuarekin hasi zen itzuleraren esperantza apur bat pizten. Jendeak esaten zuen orduan hasiko zirela azaltzen desagertutakoak, bahituta zituztela denak oihanean, militarrentzat lanean... baina nik nahiko goiz galdu nuen itxaropena. Amak ez. Amari, oraindik gaur egun, sumatzen zaio argi txikiren bat ba-

duela. Batzuetan, Joni buruz hitz egiten duenean, mintzatzen da egunen batean atetik azaldu behar balu bezala...

Garin anaiak

«Inora ez daramaten etorbide handiusteek zeharkatzen dute alderik alde Buenos Aires». Bidaiatzea behar genetikoa eta nomadismoa gizakiaren estatus naturala zirela uste zuen Bruce Chatwinek idatzita. Ezin jakin zer den –trafiko eroak eragiten duen egoneza, kale eta etxe askoren inguruan begi-bistakoa den behin-behinekotasuna, hiritik kanpo dagoen basamortu berdea–, baina egia da beste norabait joateko hiria dirudiela Buenos Airesek. Hona iristen diren turistak ere ez dira bi egun baino gehiago geldi-tzen, berehala alde egingo baitute Patagoniara, Iguazura, Valdes penintsulara edo Barilochera. Nekez hartzen zaio traza hiri honi.

Joan Garai bizkaitarrak 1580an fundatutako portuaren inguruan eraikia, joan den mendean Argentinako hiriburua izendatu zutenak ez ditu bi mende eginak, eta denborak uzten duen hondar hori gabe –Historiaren pisua, esaten zaio–, antzematen da urteekiko mesprezua: zahartasuna zaharkeria da gehienetan. Nekez aurkitzen

dira ehun urte baino gehiagoko etxeak, eta gelditzen diren bakarrak arrailduak daude, zaharberritze ezinbestekoaren zain. Hego Amerikako hiriburu guztiei gertatzen zaie. Kaleetan ez dago deus auzo bat bestetik bereiz dezakeenik, txirotasuna ez bada, eta hori harrigarria eta aztoragarria da europarrentzat. Borges kexu zen izkina guztiak berdinak zirelako Buenos Airesen.

Distritu federalaren erdialdea Madril edo Parisko auzo modernoekin pareka daiteke, baina hemen kontrasteak metatzen dira oso espazio gutxian. Auzo dotoreetako portal guztietan atezainak daude –txatxuak, laguntzaileak, baita, behar izanez gero, bizkarzainak ere–, eta etxeetan neskameak, gehienak indiar arrazakoak. Denda finetan gazta frantsesa, zerbeza alemana eta Brasilgo fruta exotikorik onenak eros daitezke, galeria handietan marka famatuenetako arropaz jantzitako manikiek betetzen dituzte erakusleihoak, jatetxe koloretsuek era guztietako platerak iragartzen dituzte, eta ikastetxe ingelesen ateen aurrean familia oneko seme-alabek txantxak egiten dituzte hesiez inguratutako

etxeetara eramango dituzten luxuzko autoen zain.

Errepidea zeharkatu besterik ez da egin behar, ordea, miseria gorriko auzuneak bisitatzeko, alde txukuneko argentinar askok sekulan ezagutu ez duten errealitatea ikusteko. Hor, zentrotik ordu erdira, oraindik ziklikoki izaten dira kolera izurriteak, ura inolako kontrolik ez duten putzuetatik edan behar izaten dutelako bertakoek. Hor pilatzen dira Tucuman, Jujuy edo Saltatik iristen diren nekazariak, hiriak inoiz emango ez dien aukera horren zain. Hor, euria egiten duenean, lokatza sortzen da nonahi, inork ez du ulertzen zer den Menemen garapen politika eta irtenbide ia bakarra da familiako alaba gazteak etxeren batean lana topatzea, neskame.

Retiroko geltokia hiriburuko iparraldearekin komunikatzen duen Libertadores etorbidearen ondoan, Palermo parkearen atarian, bi Argentinaren arteko aldea higuingarria da ia. Sabatini, Vilas edo Maradonak maiz bisitatzen dituzten tenis eta golf zelai esklusiboen ateetan, gazte goizegi zahartuek egun horretan jan ahal izateko dirua ateratzen dute goi mailako porteñoen arra-

za-txakurrak –hogei, hogeita hamar, denak aldi berean– paseatzen. Barruan, klubaren terrazan, familia oneko gazteen partidak axola barik jarraitzen dira, Julio Boccaren azken ikuskizuna edo presidentearen emaztearen azken ateraldia mintzagai diren bitartean.

Geltoki ondoko belardi batean buhame taldea alferrean ari da itzal bakanetan. Berotzen ari du eguerdi honetan, eta mokadua jaten dudan bitartean ikusi dut ezkerreko hegaletik iritsi zaidala bisitaria. Bankuan eseri da nire ondora, txintik esan gabe. Hamar urte, hortxe ibiliko da, baina inolako lotsarik gabea esan didanean:

– Ikusten duk hor dagoen agure hori? Bada, jo egin behar duk.

Gauden tokitik hamar bat metrora dakusat piltzar zikinez bildutako gorputza, lo dagoenaren planta duena. Mutikoari hobeto begiratu diodanean gosea joan zait bat-batean. Begi bat erortzekotan du, eta aurpegia nazkagarria iruditu zait, orbanez beteta.

– Lagunduko didak jotzen? –galdetu dit berriro.

Ogitartekoa eskuan dudala, ez dakit zer egin, zer esan, baina mutikoak temoso dirau.

– Jo egin behar diagu, jipoi ederra eman.

Orain eskuinetik hurbiltzen ari da beste bat. Aurrekoa bezala, ez dakit nondik heldu den, eta urduri jarri naiz. Ez dut diru askorik, baina ordenadorea edo grabagailua kenduko balidate broma latza egingo lidakete.

– Santiagokoa haiz? –galdetu dit bankukide berriak–. Berdin dio, ikusi duk ze bitxi ederra? –eta erakutsi dit zilarrezko domina handia.

Ez dut begiratzeko beta ere hartu, trenaren txirrina entzun eta altxatzea bat izan delako. Geltokian sartu baino lehen atzera begiratu dut. Mutikoa borrokan ari da buhamearekin bankuan utzi dudan ogi puskarengatik. Uste dut haurrak irabazi duela.

Ez dira, hala ere, horrelako hiri handi batean begi-bistakoak diren injustizia hauek gehien harritzen nautenak, baizik eta oinarrizkoa zer den erabakitzeko dituzten irizpideak. Eritetxe publikoek beldurra ematen dute kanpotik ikusita, ira-

kasleek hilabetetako grebak egiten dituzte soldatak ez direlako ezertarako iristen, ez dago dirurik zentrotik hamar kilometrora dauden auzuneak urbanizatzeko... Baina etxe ia gehienetan dago kable bidezko telebista, mundu osoko informatiboak ematen dituena –gehienak ingelesez–, eta kaleetan etengabe entzuten dira sakelako telefonoen hotsak.

Porteñoak europarrak sentitzen dira, sentitu nahi dute, ez dute zerikusirik eduki nahi Hego Amerikako beste edonongo herrialderekin. «Guk ez ditugu ez indiarrak ez beltzak» esaten dute askotan, Amerikara baino Europara begira daudela gogorarazteko.

Emigrazioak badu bere pisua. Joan den mendearen hasieratik iritsi ziren italiarrak, galegoak, britainiarrak, euskaldunak... saldoka denak. Argentinar guztiek ondo samar ezagutzen dituzte arbasoen gorabeherak, aitona-amonei hainbestetan entzundako herrixka bisitatu dute askok, eta harro dira jatorriaz. «Ni euskalduna naiz», esango dizu doinu porteño garbiz amona Baztangoa zuen edonork. Askotan, hala ere, kopeta belztuta begiratuko dute honantza, une txarre-

netan ondoan egon ez den anaiari begiratzen zaion bezala.

Hauteskunde giroa dago bazterretan. Legebiltzarra aukeratu behar dute oraingoan eta badirudi Carlos Menem presidentearen alderdiak galduko duela egun arte izan duen nagusitasuna, oposizioa batu egin delako. Jendearen artean izen handia duten Gabriela Fernandez Meijide eta Chacho Alvarez izango dira, inkesten arabera, garaileak.

Programen zorabioa toki guztietara iritsi da. Buenos Aires erdi-erdian dagoen Ingeniaritza Fakultatean sarrera osoa beteta dago hamaika talderen proposamen, promesa eta aginduekin, ikasleek gobernu erakundeen ordezkariak hautatuko dituztelako egunotan. Konturatu orduko, eskuetan bost panfleto dauzkat, kolore ezberdinetakoak denak.

Goizegi iritsi naiz hitzordura. Bazkaltzeko tenorea denez, jatetxera abiatu naiz. Menua baino merkeagoa da eguneko platera: makarroiak eta fruta. Coca-Cola eskatu dut eta ikasleen artean

eseri naiz, bazter batean. Gure fakultateko giro nahasia, urduria eta aktibitatez beterikoa gogorarazi dit lokalak.

– Axola dizu esertzen banaiz? –entzun dut Peronismo Berria izeneko taldearen programa irakurtzen ari naizela.

Berrogei urte izango ditu, hor nonbait. Dauzkan liburukoteekin, irakaslea inondik ere. Ezetz, jakina, ez didala axola. Mahai gehienak okupatuta daude.

Kaneloiak eskatu ditu, eta ardo botila txikia. Programetara itzuli naiz. Ia denetan irakurri dut eskakizun bera: diktaduran parte hartu zutenak zigortu beharra. Poztu egin naiz, ez bide dagoelako horren zabalduta ahanztura. Garai hartan, gainera, ikasle asko erori ziren unibertsitate barruan burutu zuten militantziarengatik eta...

– Ez zara ikaslea, ezta?

– Ez, esperoan nago.

– Eta ez zara hemengoa. Zu euskalduna zara.

Hara bestea!

– Nola jakin duzu euskalduna naizela?

– Doinuagatik. Eta aurpegiarengatik.

Joder.

– Badut familia han. Duela urte batzuk egon nintzen. Senideak bisitatzera etorri zara?

– Ez... zera..., tira, bai...

Mozolo itxura hartuko zidan neskak, eta bazkaltzen jarraitu du. Programa guztiak mahaian barreiatuta dauzkat, nahas-mahas izugarrian.

– Interesatzen zaizu politika? –ez da luzamendutan ibiltzen.

– Bai, batzuetan... Hemen bai.

Ez dakit nola heldu nik galdetzeari, biolento samarra egiten zait, baina azkenean ausartu naiz.

– Hemen naizenetik ez dut ezer ulertzen. Zein dira peronistak?

Galdera guztien ama egin diot. Utzi du sardeska eta begiratu dit, begi argi eta esankorrez.

– Egun peronistak deitzen zaien horiek ez dira ez peronistak ez ezer. Ez du zerikusirik. Peronismoa kontu serioa zen.

Haserre esan du. Hor bukatu zait ausardia guztia. Beste saiaketa bat egin edo ez dudatan nagoela Julio Watts ikusi dut jatetxearen atarian, niri agurka. Eskerrak. Errepresoreei buruz datu gehientsuen duen elkarteko kidea da bera. Infor-

mazio batzuk emango zizkidala hitzartu genuen lehengoan, elkartean egon nintzenean.

Guregana iritsi eta nire mahaikidea agurtu du lehendabizi.

– Zer moduz, Belia?

– Ondo, eskerrik asko.

Gero eskua luzatu dit eta eseri egin da gure ondora.

– Eta elkarrizketak? Ezer lortu duzu? –galdetu dit Juliok.

Zalantzan nago. Berak ulertu du.

– Lasai hitz egin ezazu. Belia ere gure elkartekoa da.

Atxilotu Ohien Elkartea da Julio Watts eta Belia Cardosorena. Ahanzturaren aurka bizkor borrokatzen direnak. Hitzaldiak antolatzen dituzte, kanpainak egiten unibertsitateetan, dirua biltzen ama eta amonendako. Orain artxiboa hornitzen ari dira errepresoreen datuekin. Harrigarria bada ere, oraindik ez dago militarren diktaduraren garaiko errepresioaren datu bilketa osoa. Alta Elkartekoek badute, benetan izan ere, interes han-

dia, are beharra ere, errudunak behin-betiko zigortuak izan daitezen, kontzentrazio esparruetatik atera zirenek bai baitakite zer den norberari gertatutakoa ezkutatu behar izatea, isiltzea, susmagarri izatera kondenatuta bizi behar izatea.

Jada ez da horrenbeste entzuten, aipatzen denean halako haren desagerpena edo ezagun bati gertatutakoa, «zerbait egingo zuen bada» esaldi famatu eta krudela, baina oraindik badira zerrendak ere zalantzan jartzen dituztenak, badira Hebe de Bonafinik semeak desagertuak dauzkanik ukatzen dutenak –«atzerrian egongo dira horiek, beste izen batekin» esan zuen Euskal-Etxeko andre edadetu eta ezagun batek duela ez asko–.

– Orain ez da isiltzeko garaia –azaldu dit Juliok–, baina jendea konturatu da gure desagertuak ez direla inoiz bizirik itzuliko. Esperantza guztiak amaitu dira dagoeneko. Gelditzen zaigun bakarra justizia eskatzea da, justizia bizirik atera zirenentzat.

Julioren bulegoan gaude, fakultate izugarri handi honen hirugarren solairuan. Peronismoa

eta montoneroena berak argitu beharko dit. Berak edo inork ez.

– Dakidan apurraren arabera –esan diot–, Peronek arrakasta izan zuen jende behartsuaren alde lan egin zuelako. Berak legeztatu zituen sindikatuak gainera, borrokatu zen hierarkia militarra eta elizaren kontra... baina gaur egun ezkerreko taldeak peronismoaren kontrakoak dira. Esan didate definiziorik onena Borgesek emanikoa dela –«peronismoa ez da ez ona ez txarra, zentzakaitza da, besterik gabe»–, baina ez dit balio. Orain irakurtzen ari naiz ikasle talde batzuen programak, eta peronismoa gora eta behera berriro.

– Zail da benetan peronismoa definitzen, ez duelako zerikusirik Europan erabiltzen dituzuen ezker eta eskuin kontzeptuekin. Peron, badakizu, lehendakari izan zen 1946tik 1955era bitarte. Eva Duarte bere emaztearekin egin zuen politika progresista eta populistarekin arrakasta handia izan zuen. Peronistek «gobernu zoragarria» deitu izan diote garai honi: lurrak eman zizkieten nekazariei, lehen sindikatuak sortu ziren, zortzi orduko lan ordutegia ezarri zen, barneal-

dean zabaldu ziren ikastetxe eta eritetxeak, alfabetatze kanpainak hasi ziren... Herriaren atxikimendua lortu zuten, handia, baina goi mailako jendearen pribilegioak arriskuan ikusi zituzten askok.]1952an, Evita hil zenean, jeneralak galdu egin zuen langileen artean zuen aliaturik onena eta makina gasolina galtzen hasi zen.

– Peronismoak, beraz, ezkerraren tokia bete zuen.

– Gutxi gorabehera. Beraiek nahi zuten kapitalismoaren eta komunismoaren arteko hirugarren bide bat topatu baina...

– Baina?

– Peron ez zen iraultzailea, militarra zen.

– Montoneroak, ordea, peronistak eta iraultzaileak ziren.

– Peron erbesteratu ondoko errepresioarekin sortu ziren Montoneroak. Peronismoa debekatu zuten, liderraren argazkia edukitzeagatik jendea atxilotzen zuten, ezin zen jeneralaren izena publikoki aipatu... Batzuk hasi ziren jeneralaren itzulera aldarrikatzen, baina urteak igaro eta ez zen aurrerapausorik antzematen. Gazte batzuek itzulera hori armen bidez baizik ezin zela lortu

ikusi zuten. Horrela sortu zen Montoneroak, 1969an. Lehen ekintza lurrikara izan zen ia: Pedro Aramburu jenerala –estatuko agintari gorena izandakoa– bahitu zuten. Epaiketa egin eta hurrengo egunean fusilatuta azaldu zen. Ordurako baziren jada talde armatu batzuk Argentinan, baina aurrerantzean inork ez zuen hartuko Montoneroek izango zuten garrantzia eta egitura.

Xumea da oso bulegoa. Liburuak eta paperak altzari nagusi, eta paretetan bi poster: Maiatza Plazako bilkura bat, batean, eta irakasle eta ikasle desagertutako batzuen argazkiak eta datuak, bestean. Hainbeste inprimatzearen poderioz definizio guztia galtzen duten argazki hauek lagun ditut jada elkarrizketa guztietan. Dela paretan, honetan bezala, dela egongelan eseki duten koadro batean, edo kartera zahar baten barruko tolesean, edo album potoloan... Pasaportearentzat eginak diruditen horiek dira gogorrenak. Anonimoenak.

–Montoneroek, beraz, militar baten etorrera aldarrikatzen zuten eta, era berean, jeneral bat fusilatu zuten. Ez ziren marxistak, bai borroka armatuaren aldekoak... Zein zuten idearioa?

– Peronek eta Evitak hasitako aldaketetan sakontzea, sozialismoa argentinar erara eraikitzea. Ez zuten inoiz onartu ortodoxia sobietarra –garai hartan ere ERP gerrillari talde marxista-leninista ari zen, ari zenez– eta Kuba zen erreferentzia nagusia, askok oso gertu ikusten zutelako Hego Amerika osoa askatuko zuen iraultza. 1971tik aurrera taldeak indar handia hartu zuen, talde txikiago batzuk batu zitzaizkiolako, eta 1973ra bitarte sistemaren kontra kolpeak etengabe eman zituen. Peron itzultzeko eskaera oihu bat zelarik Argentina osoan militarrek amore eman behar izan zuten. 1973an hauteskundeak egin eta peronistek aise irabazi zuten. Hiru hilabete beranduago jenerala iritsi zenean, hiru milioi pertsona joan ziren Ezeizako aireportura, harrera egitera.

– Hor izan zen haustura.

– Hala da. Peronen pentsamendua jada ez zen pobreentzat etxebizitzak egiten zituen harena, Madrilgo erbeste-urteetan eskuinerantz jo zuen. Argentinan berriro, ozenki kritikatu zituen asmo iraultzaile oro. Honek zatiketa eragin zuen peronismoaren barruan: lerroen eskuin muturre-

tik Triple A famatua sortu zen, Montoneroak eta ERP akabatzea beste asmorik ez zuen talde faxista, eta ezkerrean montoneroak gelditu ziren. Jeneralak garbi utzi nahi izan zuen norekin zegoen, eta Triple Aren fundatzailea zen Lopez Rega jarri zuen gobernuan. «Sozialismoa amaitu da», esan zien orduan Montoneroen ordezkariei.

– Orduan montoneroek zer errebindikatu zuten?

– Jarraitu zuten hasieran eskatzen zutena eskatzen, baina lider historikorik gabe. Traidorea zen jada beraientzat. 1974an, Peron hil zenean, Estela Martinezek hartu zuen lehendakaritza. Bere agintaldian Triple A asko indartu zen eta bortizkeri giroa Argentina osora zabaldu. Urte gogorrak izan ziren haiek: egunero ziren hildakoak, alde batekoak zein bestekoak. Hala ere, gerrillariek inoiz baino gertuago ikusi zuten garaipena: 6.000 lagun zituen Montoneroen taldeak, 3.000 inguru ERPk. Armatuta zeudenak askoz gutxiago ziren, akaso bi mila baino gehiago ez, baina oinarria hor zegoen. Militarrek bi urtetan, 1976 eta 1977an, deuseztatu zituzten bi taldeak.

Gaucho Garinek buruan orratza sartu baliote bezala sumatzen du mina, eta gero eta bustiagoa dauka begiak estaltzen dizkion benda. Badaki odola lehortuko zaiola gero, eta gorriak ikusiko dituela kolpe batez kentzen diotenean baina ez du ez indarrik ez gogorik abisua emateko. Gainera, koman dago. Hori uste dute denek, behintzat.

Badaki egunean bi aldiz ziegan sartzen denari –«Gaucho, Gaucho!» xuxurlatu dionari– ez diola jaramonik egin behar, min handia, bai, baduela, baina ondo dagoela, lasai egoteko esateko ere ez, militar haren kulatak ireki ziola burua atxilotzerakoan, baina oraindik konortea ez duela galdu nahiz eta zaintzaileek hori uste, eta ura edango lukeela gustura, eztarria lehertzear duela beroak kiskalita. Badaki, hilabete batzuk direlako jada klandestinitatean, haiek zenbat eta gutxiago jakin hainbat hobe izango dela berarentzat eta kanpoan segitzen dutenentzat, irautea delako irabazteko modu bakarra. Irautea, eta ziega ilun eta kirasdun honen kanpoaldean dagoena antzematen saiatzea.

Orain, mugitzeko inolako aukerarik gabe, ez du damu zianuro-pilula ahoan eraman ez izana. Ez du inoiz maite izan zuzendaritzak ezarritako eredua, heriotza beste irtenbiderik ez dagoela onartzea delako hori, eta horregatik saiatu da Rosariorako autobusa hartzera zihoala atxilotzera etorri direnei aurre egiten. Retiroko geltoki ondoan zegoen jendearen aurrean gertatu da dena, baina inork ez du keinurik egin, ez da oihurik atera eta ez da galderarik entzun. Inor ez baita gehiegi harritu. Ohituegiak daude Garinen aurrean jarri den bezalako Ford Falcon beltz horiek ikusten, eta barrutik, fusilak eskuetan, lau lagun atera direnean, denek begiratu dute, baina ez dira mugitu.

Gauchok pistola ateratzearena egin duenean, atzetik heldu dionak buruan kolpea eman diolarik izutu dira batzuk, baina auto barrura sartu ondoren Libertadores kalean gora ziztuan abiatu direnean ez da komentariorik izan. Dena ikusi duen taldea osatu bezala desegin da: lotsaz, elkarri begiratzeko ere adorerik gabe. Retirok betiko itxura jendetsua du orain.

Gaucho Garinentzat amenjesus batean gertatu da dena. Ziega hotz honetan esnatu denean burua lehertzear zuela iruditu zaio. Nola atera, hori du pentsamendu bakarra. Eta torturari nola eutsi.

* * *

Arturo Garin *Gaucho*, Jose Maria Garin eta Marcelina Sarasola irundarren biloba, erlijio gaiek salatzen zuten. Erlijioak, eta familia eta adiskideak tratatzeko moduak. Hor azaleratzen omen zitzaion euskal sena. Hala diote bere lagunek, ondo ezagutu zutenek. Nekazaritzarekin lotura estua zuen barrualdeko familia batean sortua, sindikalistak txakur berdea zirudien Montoneroetako zuzendaritza bileretan, peronismoa, marxismoa, sozialismo nazionala eta beste teoriak erruz erabiltzen zituzten taldekideen artean. Bera langilea baitzen finean, gauchoa, La Platako sindikatu peronistari inoiz izan ez zuen adinako indar eta egitura eman ziona. Hori, eta maila handiko militantea.

1976a izan zen gogorrena, ustez Armadari aurre egiteko gai izango zen taldea harea erlojuan bezala amildu eta desegin baitzen. Gaur egun montonero ohiek gogoratzen dituzte lehen hilabeteko dudak eta ezin ulertuzko egoerak, jendea –militanteak, buruzagiak– desagertu egiten zenean bata bestearen atzetik, dozenaka, ehundaka, egunero, inolako azalpen logikorik gabe. Segurtasun neurri guztiek huts egiten zuten. Zianuro-pilularena pentsatu zuten orduan buruzagiek. Militante gehienek ahoan eramaten zuten pozoi neurria, baina Garinek ez. Berak asmoa zuen ez etsitzekoa.

* * *

– Atxilotu zuten garaian Garin gure etxean bizi zen.

Jorge Bielliri chaman indiar baten itxura ematen diote txima luze eta gorputz oparoak, begi marroi distiratsuek. Buenos Airesko Guenes kaleko tabernan handiegia da musikaren zarata, baina hala nahiago omen dute denek, esan beharrekoak lasaiago esango dituztelako.

– Neskalaguna etorri zitzaigun abisua ematera, eta hantxe, etxean gelditu ginen 24 orduz, zer egin behar genuen erabaki ezinean. Erokeria izan zen, alde egin behar genuen segituan, baina ez genuen erreakzionatzen jakin. Nolanahi ere, Arturok, nahiz eta gure datu guztiak zituen, ez zuen ezer esan, ez zen torturapean hautsi.

Bielli, bere ondoan kafesnea hartzen ari den Carmen Zunorekin batera, Montoneroetan zegoen garai hartan, baina inolako ardura militarrik gabe, taldearen atal sozialean, nolabait esateko.

– Arturo, Gardel zen –dio.

Onena alegia, espeziala, eredugarria.

– Bera zen denok nahi genuen militante hura, solidarioa, ideologikoki garbia, koherentea... berarekin izandako solasaldiak oraindik gogoan ditut. Oso garrantzitsua izan zen gure bizitzan.

* * *

Garajes Azopardo kontzentrazio esparruan denek dakite norbait garrantzitsua harrapatu dutela milicoek. Zaindariak harrotuta daude, oihu handiz ari dira, eta ziega komun batean dauden

hamabost atxilotuek ezagutu dute ondoko gelara –tortura gelara– ekarri duten laguna Arturo Garin dela, Gaucho, Montoneroen adar sindikaleko burua. Medikuak ere esan die konorterik gabe dagoela, koman ia, burua hautsita, ez duela uste toki eta baldintza hauetan errekuperatuko denik.

Eduardo Lardiesek hori guztia bere kaputxaren azpitik entzun du. Torturaren garai gogorrena joan zaio jada, baina ez du esperantza handirik. Ikusi ditu torturatzaileen aurpegiak, entzun ditu haien irainak, aditu du gorrotoa. Beste atxilotu batzuekin izaniko hizketaldietatik ondorioa atera du: fusilatuko dituzte laster batean.

* * *

Bielli eta Zunoren artean, tea ixilik eta trago txikitan edaten ari da Lardies. Burusoila, txiki samarra, tristura lasaia dario, bizirik egoteagatik pozik bai baina bizirik egotearen arrazoia orain-dik ulertu izan ez balu bezala. Kontzentrazio esparruetatik atera ziren guztiek irrimarra bortxatu antzekoa dute, urduri erretzen dituzte zigarroak

eta halako ironiaz begiratzen dute, herio gertutik ezagutu dutenek dena baitakite aldez aurretik.

– Arturo egun t'erdiz egon zen horrela, denen ustetan hilda. Baina hurrengo arratsaldean, batbatean oihuak entzun genituen zaindarien gelatik zetozenak, eta konturatu ginen ihes egin zuela. Izugarria zen hori guretzat, horrela norbaitek azal zezakeelako zer gertatzen ari zen barruan...

* * *

Zailena ez da izan lokarriak askatzea, baina leihatila irekitzea. Goizean, ondo aztertu duenean, iruditu zaio ez zuela aparteko korapilorik izango baina gero ezagutu ahal izan du herdoildua zegoela, mendeak zirela irekitzen ez zutela. Zabaldu duenean krisketaren hotsak gorputzaren ile guztiak tentetu dizkio. Ez dira konturatu, ordea. Orain barrualdeko patioan dago, biluzik, buruko benda gogortua baino ez duela soinean. Ez dio inporta, bero dago kanpoan, eta libre izan daitekeela pentsatze hutsa... Auto bat, autoa harrapatu eta irteera aurkitu.

Hankak bizkor sumatzen ditu, ahaztu du mina, eta soilik ametsetan egin daitekeen salto batez gainditu du hesi metalikoa. Hormari pega eginda dago. Ez du asko behar izan dena aztertzeko. Funtzionarioen autoak dakuski dagoen tokitik, eta paretak izkina egiten duen alde horretara irteera behar du. Gainera, handik heldu dira motorren hotsak. Ez da oso zaila izango irteerara iritsi, azeleradorea topera zapaldu langa gainditzeko, komarkala hartu eta...

Gelditu egin da une batez, gihar guztiak tentsioan, zalaparta entzun duelako barruan. Baina badaki ez duela atzera egiterik, orain dela zirt edo zart egitekoa eta korrika zeharkatu du patio ordu honetan hutsa. Lerroko bigarrenean sartu da. Giltzak jarrita daude. Motorra martxan jarri du zaindariak korrika ikusi dituenean. Ez dutela geldiaraziko pentsatu du lehen martxa sartu duenean, irteera aurkitu behar du, irteera aurkitu...

* * *

– Zoritxarrez, ez zuen aurkitu –azaldu du Lardiesek–, eta harrapatu egin zuten. Gu geunden ziegara ekarri zuten orduan. Lotu ondoren niri begira jarri zuten, bost bat metrora. Hurrengo egunak torturatzeko erabili zituzten, baina eutsi egin zion. Esaten zioten Montoneroetakoa zela, bazekitela, lehertu egingo zutela. Berak dena ukatzen zuen, ez zeukala inolako ardurarik errepikatzen zien behin eta berriro. Egun horiei esker jende asko salbatu zen.

Gero beste zentro batera eraman zuten. Eduardo Lardies, handik sei hilabetera, libre gelditu zen.

Taldekideek salbu, kanpoan inork ez zuen jakin Arturoren bahiketarena. Etxean ere uste zuten Rosarion zebilela, garai hartan berririk eza berri ona zelako ia. Horregatik Mari Garinek, bere bila zetozen gizon armatuak ikusi zituenean eritetxearen atarian, pentsatu zuen anaiari buruz informazioa atera nahi ziotela. Mari erizaina zen. Poliziek Arana izeneko tortura zentrora eraman zutenean, 1977ko urtarrilean, haurdun zegoen. Adriana Calvok han ezagutu zuen.

– Ni ere haurdun nengoen atxilotu nindutenean, eta ziega berean egon nintzen Marirekin. Iritsi nintzenean bera izan zen hitz egin zidan lehena. Kontsuelo handia eman zidan.

Atxilotu Ohien Elkarteko kidea, Adriana Calvok, Belia Cardosok eta Julio Wattsek bezala, Buenos Airesko Ingeniaritza Fakultatean lan egiten du. 1977an, La Platako fakultatean sindikalista zela, Poliziak irakasle bat atxilotu zuen, beste lagun bat zelakoan. Ikusi zutenean hortik ez zutela informazio askorik aterako, fakultatean zegoen ezkerreko jendeari buruz galdegin zioten. Horrela erori ziren Adriana, bere senarra eta beste lankide bat.

Arana zentroko ziega baten barrura bultzatu zutenean, inoiz imajinatuko ez zuen egoera topatu zuen Adrianak. Kiratsa izan zen adimena kolpatu zion lehena: haragi errearen usaina, odolarena, gernuarena, torturarena aditu zituen. Gero, iluntasunera ohitu zenean, izuak nazka gailendu zuen: atxilotutakoak torturatuta zeuden, aurpegia erreta, ilea erauzita, kolpatuta denak...

– Giza hondarrak ziren, eta hala ere bazuten animoa etorri berriari beroa emateko.

Haien artean zen Mari Garin. Adriana hasieratik adiskidetu zen neskarekin eta elkarrekin egon ziren hilabeteetan harreman oso sakona egin zuten.

– Mari oso pertsona lasaia zen, bakea barreiatzen zuen bere inguruan. Laguntza handia eman zidan tortura gainditzeko.

Adrianak gogoratzen duenez, Mari oso kezkatuta zegoen bere anaiarengatik, baina guardiek tortura mahaian egiten zizkioten galderak zirela medio –non zegoen Arturo, zer zekien berari buruz– pentsatu zuen libre zebilela oraindik. Horrek lasaitzen zuen apur bat.

Tratua ez zen animaliei ematen zaiena baino hobea. Porlanaren gainean lo egiten zuten denek, ez berokirik eta ez ezer. Jateko salda nazkagarria ematen zieten hiru egunetik behin edo. Noski, haurdun izateagatik ez zegoen pribilegiorik. Are, alu haien artean halako bi egiten zuen zigorra. Aspaldiko garaiei buruz asko hitz egiten zuten, gutxiago gertuko gauzei buruz, ezer ez etorkizunaz.

Adriana iritsi eta aste batzuetara taldeko neskatxa batek haurra izan zuen. Kuarteleko sukaldera eraman zuten eta han, ama iraintzen ari ziren guardiez inguratuta, Leonardo jaio zen. Neska egun bakar batez izan zen ama, hurrengo goizean kendu egin baitzioten haurra. Bizitzaren gainean erabakitzeko ahalmen mugaezina: hor amaitu zen amatasuna, eta erregimen berezia. Neska hurrengo egunean ziegan zegoen berriro, haurra izan zuenik ere ahaztera derrigortuta.

Adriana traslado batean erditu zen. Lehen kontrakzioak igerri zituenean ziegatik atera eta auto batean sartu zuten. Egun euritsu eta iluna zen. Bigarren mailako errepideen artean, gidaria, halako batez, galdu egin zen. Norabide jakinik gabe luze ibili ondoren, bide-bazterreko autobus geltoki batekin topo egin zuten. Esperoan zegoen bidaiariari argibideak eskatzera joan zitzaizkionean, honek autoaren kristaletik ikusi ahal izan zuen eszenak Auschwitzeko judutarren lekukotasuna zirudien: Adriana atzeko eserlekuan erorita zetzan, eskuak sorbaldan lotuta eta begiak estalita, zilbor-hestetik zintzilik zegoen jaio berriari gorputzarekin beroa ematen ahale-

gintzen zen bitartean. Dena polizia-auto zikin baten atzeko eserlekuetan. Apirilaren 16a zen.

Zentro berrian neska guztiak elkartu zituzten atzera. Marik eta besteek lortu zuten esku-oihal txiki bat Teresarentzat. Adrianak harekin garbitu zuen neskatxa, harekin tapatu, ferekatu, bildu, lokartu. Harekin babestu.

Kontzentrazio esparru berria gogorragoa zen oraindik. Mari tristeago zegoen.

– Denok esperantza baikenuen toki hobe batera joan behar genuela azken trasladoarekin, gutxienez kartzelaren batera.

Astebete beranduago, apirilaren 25ean, beste toki-aldaketa bat izan zen, eta ziegan Adriana eta Teresa txikia gelditu ziren, bakarrik. Handik kartzelara eraman zituzten eta hiru hilabeteren ondotik, libre utzi zituzten biak.

Behin kanpoan, Adriana harremanetan jarri zen Mariren familiarekin. Orduan jakin zuen Arturo ere desagertua zela. Teresa Garinekin –Mari eta Arturoren arrebarekin– hasi zuen adiskidetasunak gaur arte iraun du.

Demokraziaren aurreneko urteetan, basakeriak aleka ezagutzen hasi zirenean, hezurrak az-

tertzen aditua zen forense talde batek Buenos Aires ondoko hilobi komun batean ezagutu zituen Mariren hezurrak. Ondorioztatu ahal izan zuenez, neskak izan zuen haurra. Adrianak, berria egunkarian irakurri zuenean, inoizko une latzena bizi behar izan zuen.

– Familian beti pentsatu nahi izan zuten haurra ez zela jaio, eta nik ere esperantza hori nuen. Horregatik, jakin nuenean haurraren hezurrak ez zeudela Mariren gorpuzkinen ondoan negar bizian hasi eta negarrez iritsi nintzen Teresaren etxera. Baldintza haietan beste bost hilabete bizi behar izan zituela pentsatzea bakarrik...

Teresak eta bere gurasoek ahaleginak egin zituzten haurra aurkitzeko, baina berehala etsi zuten. Gaur egun jota daude hirurak.

Pampan

Herrialde zentralizatua da Argentina, hiriburu-rantz bilduta dagoena, populazioaren erdia Buenos Airesko probintzian bizi baita. Han da komertzioa, industria, dirua... baina aberastasuna, egon, barrualdean dago, Andeetako magaleko edo ozeanoaren itsasertzeko petroliotokietan, Iguazuko turismoan eta, batez ere, Patagoniako eta Pampako aziendetan.

Horra iritsitako emigranteen lanaren emaitzen gainean eraiki zen gaur egungo nazioa, horregatik behitaldeen kalitateaz eta okelaren zaporeaz harro hitz egingo dute beti argentinarrek, batez ere solaskidea kanpotarra bada.

– Hau duk hau haragia! Orain ekarriko dutenari *vacío* esaten zaio. Espeziala, ikusiko duk!

Aurpegia jarriko nuen, denak barrezka hasi direlako batera. Palermo auzoko jatetxean gaude, Buenos Airesen oso ohikoak diren erretegietako batean. Jatea okela festa da hemen. Hasi gara txorizo puska banarekin, gero atera dizkigute barrukiak –txahaltxoarenak–, ondoren hes-

teak eta solomoak... Ezin dut gehiago tripan sartu eta oraindik lehen platerean!?

Azaldu didatenez, ebakieran dago gakoa, okelaren apartekotasunaren sekretua. Ebaki beharrean, okela bereizi egiten dela esan daiteke.

Egia esatera, ez zait gure haragiaren aldean horrenbesterako iruditzen, lepoa egingo nuke sagardotegi batzuetakoa hobea dela, baina ez da gizaseme edukatuena jakien apartekotasunari kontra egitea. Batez ere argentinarrei. Gainera, hainbeste goraipatzen duten ardo beltz honi –«Argentinako caubernet-sauvignon!, oso goxoa!»– urardoaren tankera hartzen diodala esango banie...

Dagoen giroa ikusteagatik, hala ere, merezi zuen etortzea. Portugaldar baten esnetegi ezaguna zena inguruko jatetxerik preziatuenetakoa da egun. Lepo dago lokala. Hamaika t'erdiak dira eta kalea jendez mukuru dago, mahaietako bat noiz libratuko zain. Iristen diren ordenan izena paratzen dute arbel txiki batean, eta ordena horretan deitzen ditu zerbitzari batek gero, tokiren bat dagoenean. Gu sartu garenerako hogei bat lagunek izena emana zuten.

Barruan olio eta kearen usaina itogarria da ia. Landarejale bat gaixotuko litzateke sartzearekin bakarrik.

– Bihar Trenque Lauquenera goaz. Etorriko haiz?

Aspaldian ezagutzen dut Jorge, Sanferminetako gau zoro batean mateaz eta tangoaz hitz egiten bukatu genuenetik, bera kamisetak saltzen ari zela Parte Zaharreko kale batean. Itsusi iruditu zait ezetz esatea. Gainera, barrualdea ezagutzea ez da makala izango. Baietz.

Euskal Herrian komarkala ere izango ez zen errepideak lotzen ditu Buenos Aires Pampako hiri nagusiak diren Trenque Lauquen (Lakuen Artean araukarieraz) eta Santa Rosarekin. Ordubete inguru behar da atzean uzteko hiriburuko teilatu eta hotsak. Belarra eta ixiltasunera arteko trantsizioa benetako plazer-hotelek egiten dute hemen: Apolo, Venus, El Paraiso... Errepide inguruan daudelako eta batez ere izenarengatik bereiz daitezke ohiko hoteletatik. Desagertu dire-

nean zeharkatu dugu marra. Orain barrualdean gaude.

Berehala antzematen dira Carlos Menem presidenteak inflazioari eta kanpo zorrari aurre egiteko martxan jarri zuen politika ekonomikoaren ondorioak. Adibidez, Trenque Lauquenera joateko bidesariak ordaindu behar dira, autopista balitz bezala, duela hiru urte lehendakariak pribatizatu egin zituelako Buenos Airesko errepideak.

– Zoruaren kalitatea hobea da enpresak bere gain hartu zituenetik errepidearen mantenu lanak –dio, serio, Jorgek–. Lehen jauzika egin behar genuen bide osoa.

Orain saltoka goaz, baina tira. Bera ari da gidatzen, eta berak egingo ditu bostehun kilometroak, gelditu gabe. Astero edo hamabostero errepikatzen du bidaia, Trenque Lauquendik –hango baserri batean lan egiten du– Buenos Airesera, eta buelta. Ez dut ulertzen nola.

Ez da bide osoan lautada handi bat besterik ikusten. Ez mendixkarik, ez muinorik, ez maldarik. Ezta errepidean bihurgunerik ere. Laua da hau gero! Garia, alpapa eta artoa, eta, tartean behin, zuhaitz multzoak –ombu, eukalitu eta pi-

nuak– edo estatuak diruditen txekorrak. Inguruak Frantziako hego-mendebaldeko alderdi batzuk gogorarazten ditu batzuetan, baina diferentzia handi batekin: han herrixkak daude nonahi eta hemen ehun kilometro joaten dira bat bera ere ikusi gabe.

Bazterretan ikusten dira urmael asko. Duela hamar urte uholde izugarriak, biblikoak ia, gertatu ziren probintzia osoan. Hiru urte iraun zuen ekaitzak dena –larreak, herriak, animaliak, uztak– urpean utzi zuen. Azienda gehiena hil zen itota. Ibaiak, errepideak desagertu ziren urtegi handi batek edanda. Otutzen zaizu desagerpenerako jaidura patologikoa duela herri honek.

– Hura ez zen okerrena izan, ordea –dio Jorgek–. Hemengo lurpea gazia denez, ura lehortzen hasi zenean gatza gelditu zen azalean. Lur sail asko betirako galdu ziren. Ikusten dituk horko lurrak, zurituak? Belarrik ez da hor atzera haziko.

Jendeak gogoratzen du nola apartatu behar izan zituzten txahal gazteenak eta onenak muino bakanetara, ura noiz jaitsiko, eta nola hil ziren hantxe, mailak gora eta gora besterik ez

zuelako egin. Oraindik ez dituzte ahaztu animalien orro desesperatuak, haizeak kilometrotan zehar barreiatuta, herrietan gauez entzun zitezkeenak.

Lurralde osoa hondoak jota gelditu zen, ez aziendarik ez errepiderik ez lurrik. Egun baserriak erabat errekuperatu ez badira ere, okela asko esportatzen ari dira Europara. Garai onak datozela dirudi.

Trenque Lauquen barnealdeko herri tipikoa da. Itxurosoa, garbia, maila onekoa irudiz. Inguruetan etxalde izugarri handiak daudenez, ez da lanik falta. Herritarrek badute landetako jendearen arima lasai, pausatu baina harro hori. Asko dira indiar itxurakoak. Jende ironiko, bakarti, mesfidati eta oso-oso independentea.

Astean zehar lan egin, larunbatean mozkortu eta igandean emaztearekin paseatu: horra programa. Hemen, pick-up furgoneta sabairik gabekoetan paseatu. Hartzen dute etorbide nagusia, herria alderik alde zeharkatzen duena, eta hara non egoten diren orduak eta orduak kalean gora kalean behera, abiadura motzean joan-etorri aspertua egiten. Gazteek, bitartean, joko-makine-

tan xahutzen dituzte pesoak eta, bozgorailuak lehertzera, zerrenda amerikarretako azken diskoak entzuten dituzte.

Hiritik atera eta inguruko hamaika bideetako batean oharkabean haietako norbait esnatuko balitz eta non dagoen galdetuko baliote ez luke inola ere asmatuko. Landatutako ezer ez dagoen tokietan lurra ardo kolorekoa da, iluna. Kamio guztiak pistak dira, ehundaka kilometrotako pistak. Asfaltoa behin ere zapaldu gabe irits daiteke 300 kilometro hegoalderago dauden Olavarria edo Azul hirietaraino eta bidaiariak ez luke ikusiko belarra baizik. Ez dago herri edo tontorrik, erreferentziarik eman lezakeen ezer.

Argentinan esaten dute Pampa ez dela existitzen, ezin delako zeharkatu turista batek nahiko lukeen bezala, erreferentzia konkretuen bidez. Egia da. Antzeman besterik ez daiteke egin, irudikatu. Beti gelditukо dira, harantzago, milaka kilometrotako errepideak, lur puska amaiezinak edo herri deskubritu gabeak.

Trenque Lauquenen dagoen baserririk handienetakoa La Indiana da, herritik 30 bat kilometrora dagoena: 7.000 hektarea hartzen dituen lur sail izugarria.

Ikusten den guztia bertakoa da. Txahalak eta zezenttoak, garia, artoa, alpapa eta eguzki-loreak. Jatorrizko jabeek, Italiako iparraldetik iritsi zirenean, sekulako dirutza egin zuten okela eta garia saltzen. Garai onenean, duela berrogei urte gutxi gorabehera, lau hegazkin eta 700 langile izan zituzten enpresan, baina batzuek lapurtu, besteek gaizki administratu, gehiena galdu zen. Orain aurrera ateratzen ari dira etxea, baina inola ere ez lehengo mailarekin.

Nagusi berriak, duela hiru urte enpresaren ardura hartu zuenean, lau gauza debekatu zizkien langileei: alkohola, armak, autoak eta txakurrak.

Lehen biak logikaz. Txakurrak, nagusi berriaren apetarengatik, antza. Autoak, errezeloak sortzen zirelako langileen artean. Autodunak gauero etxera joatea bazuenez, beste langileek senperrenak egiten zituzten pribilegiatuarekin adiskidetzeko, berekin herrira eraman zitzan

lana bukatuta. Borrokak ere izaten ziren horren kariaz. Orain denek egiten dute aste osoa baserrian bertan eta larunbat arratsaldean herrira itzultzen dira.

Uzta garaian gaude orain. Urteko sasoirik garantzitsuena. Makinek deskantsurik gabe jorratzen dituzte gari eta arto ilarak, egunero. Belarria adi-adi jarrita ere chimangoen oihuak –hemengo gabiraia– baizik ez da entzuten, baina gauez ipurtargiak bezala ikusten dira, urrunean, uzta-bilgailuen argiak.

Aziendari goizeroko bisita egin dugu Jorgek, kapatazak eta hirurok, pick-up batean. Pistetan zehar goazela ikusi ditut, han urruti, eguna zaldi gainean ematen duten langileak.

– Pampan txahalak izan dira beti preziatuenak –Jorge mintzo da–. Duela ez asko ia ez zegoen beste lanik baserrietan, behitaldea gobernatzea baino ez. Gaur egun, ordea, gariak ematen du diru gehien. Horregatik lurjabe eta arduradunek egunero begiratzen dute, egunkarietan, New Yorkeko burtsan gari ontzak duen prezioa, horrek baldintzatzen baitu uztak merkatuan izango duen salneurria.

Aurten kezkati dabiltza alderdi honetan, udaberriaren hasieran ur asko botatzen ari duelako. Horrek hezetasun handia ekarri dio bai lurrari bai galburu sortu berriei. Uztaren zati bat galdu da dagoeneko. Orain aztertzen ari dira produktu kimikoren bat botatzea, dena gal ez dadin. Baina garestiak dira, gero.

– Irabaziak kolokan leudeke –azaldu dit Jorgek–, eta aurtengoa oso garrantzitsua da La Indianarentzat. Nagusiak bi mila hektarea saldu nahi ditu, garai zaharretatik heredatutako zorrak behingoz kitatzeko. Erosle taxuzkorik ez da azaldu oraindik, eta irabaziak ez badira...

– Baina lurra zerbait bizia da –dio kapatazak, gariaren hezetasun puntua eskuekin aztertzen duen bitartean–, eskatu adina eman egin behar zaio.

Gariak arreta eskatzen badu, ez da lasaiagoa behitaldeen gobernua. Unaiek, egunero, hiruzpalau larretara aldatu behar dituzte animaliak, eta arreta handiz zaindu gero, gehiegi edo azkarregi jan ez dezaten. Orain, euriarekin, arriskua halako bi da, alpapa puztu egiten delako sabelean. Behia hil daiteke horrela, itota. Hori gerta-

tu baino lehen behiaren atzetik joan behar du behizainak zaldi gainean, galopan. Bere parera iristean, labana luze eta zorrotz batekin sabela zulatu behar dio, puxika bat balitz bezala. Dena zaldi gainetik. Jakina, labana gehiegi sartuz gero, akabo puxika eta akabo txahala.

Artaldeak, ordea, larre pobreenak diruditen sail txikietan dituzte, abandonaturik. Hirurehun bat buru izango dira, baina apenas ateratzen dieten probetxurik.

– Lehen artiletarako erabiltzen ziren, baina gaur egun ezin gara lehiatu Australiako edo Zeelanda Berrikoekin. Hor daude, langileen otorduetarako.

«Langileen otordua» ez da arkume errea edo saiheskiak, ez: ardi zaharra patatekin, gantzuez blaitua. Platerean berehala solido bihurtzen den saltsa usain fuertekoa. Sabel gogorrentzakoa, dudarik gabe.

Oilaskoekin berdin gertatzen da: ezezaguna da hemen janaritarako. Konejua zer esanik ez. Ikusten dituzte bai, belazeetan korrika. Hurbilago inoiz ez.

Etxera bueltan, eukalitu multzo baten itzalpean ikusi dugu zaldi zahar bat etzanda, ondoan igaro garenean burua jiratu duena. Izututa ohartu naiz begirada galduaz gain apatxak neurrigabe luzeak dituela, hanketan txirikordatuta, eta horregatik ezin dela mugitu. Kapatazak azaldu dit albaitariak gomendatu ziela apatxak ez mozteko, animalia hil zitekeela bestela. Eta hor dago, urtetan ahaztuta, izurriak jota balitz bezala. Hilabeteak igaro izan dira inork ikusi gabe. Furgonetan urruntzen garelarik ezin dut begirada bere begietatik apartatu, eta mendeak dituela iruditzen zait.

Arrastiri epiko baten ondotik, ondo afalduta, Argentinan nagoenetik lehen aldiz matea eskaini didate. Hitz bakar batek definitzen du: mikatza. Lehenengo galdera: «Baina benetan gustatzen zaizue?». Bigarren tragoska hobeto sartzen da eta hirugarrenean goxoa da ia. Sekuentzia bera errepikatuko da hartuko dudan guztietan.

Oso sinplea da. Potixa batean jartzen da belarra, eta propio horretarako erabiltzen den pipa

bat, infusioa bakarrik igaro dadin muturrean filtro bat duena, sartzen da bertan. Gero ur beroa botatzen da. Sei bat aldiz edan daiteke horrela, azkenean belarrak galdu egiten duelako zaporea.

Sekretua da belarra gehiegi ez garbitzea, hau da, ura ez oso bero –inoiz ez irakiten– eta belarra ez oso zapalduta edukitzea. Argentinar gehienak txoratzen ditu mateak, eta bitxia ematen badu ere, inoiz ez da tabernetan hartzen. Zerbait intimoagoa da, etxean bakarrik edan daitekeena, etorri berriari eskaintzeko, maitalea agurtzeko edo lagunartean hartzeko. Gutxitan bakardadean.

Mateak solasaldi sakonak pizten ditu eta ideia argi eta burutsuak eragiten –hori diote argentinarrek–. Horregatik, nahiz eta jatorria Uruguain izan, matea argentinarrekin lotzen da Europan, hauek dutelako filosofoen fama. Mate baten inguruan edozein argentinarrek grina izango du beti munduko edozein arazori buruz bere iritzia emateko, are, baita defenditzeko ere. Horretan greziarren antz handia dute.

Oso soziala da, finean. Jorgek, Europan zelarik, dirutzak ordaintzen zituen denda esklusiboenetan belarra erosteko.

Tximinian eukalitua erretzen den bitartean, kanpoan isiltasuna besterik entzuten ez dela, Euskal Herriaz ari gara. Jorge eta Daniel duela hamar urte Europara joan ziren, euren adineko gazte asko bezala Argentinak eskaintzen zienak itota eta mundu berriak deskubritzeko gosez. Mahats-biltzaile aritu ziren Italiako iparraldean, udare-biltzaile Frantziako hegoaldean, bitxi-saltzaile Espainian, kamiseta-egile Euskal Herrian.

Biek gogoratzen dute, barrezka, Bilboko jaietan gorriak ikusi zituztela behin, bandera espainola zela-eta gertatu ziren istiluetan. Gaupasa eginda zeudela, espaloi batean eserita gau hartako salmenta onak ospatzen, Jorgek ikusi zuen kale batetik ateratzen zen gazte saldoa, kaputxadun. Beste aldera begiratu eta beltzak azaldu, kaputxadun. Bere ondora begiratu, eta Daniel, lo. Lehen ke-poteak gainetik pasatzen zitzaizkiela atera ziren hartatik.

– Bi trenek elkarren aurka jo behar zuten eta gu trenbide erdian geunden –pasadizoa imintzio esanguratsuez apaintzen du Jorgek.

Oso oroitzapen politak dituzte herriz herri eta jaiez jai eginiko ibilaldi haietaz.

– Jaietarako gogo, aldarte hori izugarria da. Zazpi egunez denaz ahaztu eta gozatzera!

– Izan ere, Argentinan ez dago jairik –kexu da Daniel–. Hemen Aberriaren Eguna, Banderaren Eguna edota Independentziaren Eguna besterik ez daude. Hori bai, Peronek, umore onez zegoenean, izendatzen zuen San Peron Eguna, baina hori beste istorio bat da...

Biek gogoratzen dute, bada, Euskal Herria, eta idealizatzen. Etorriko liratekeela bizitzera, maite dutela asko giroa, garagardoak edatea lagunartean hiri handietako parte zaharretan, han ia 300 kilometro egin behar dituztelako lagun bat bisitatzeko. Baina Euskal Herrian zeudela, herriminak haiek ere jo zituen. Jende gehiago ezagutu ahala behin eta berriro entzungo ditut argudio berberak, inkonformismoa, desasosegu hori hemen egoteagatik han egon nahi nuenean, hau egiteagatik hura nahiago banuen ere. Pesi-

mistak dira berez, ezkorrak. Dena doa gaizki, beti joan da gaizki, eta oraindik okerragoa izango da.

Emigranteen sena nonbait: lurralde berrietan probatzeko gogoa, beste bizitza bat zerotik hasteko desioa, hemen ukatzen zaizkien aukerak han topatuko dituztela sinetsita. Baina ezin alde egin. Oso argentinarra da sentimendu hori, Adriana Varelaren tangoaren hitzak hainbat: *Pasada por pasión / triste porque sí / bien, pero mal también / porteña al fin / yo busco... no se qué.*

Hitz egin dugu, gero, desagertuei buruz. Unibertsitatean sartu zirenean errepresioa onenak emanda zegoen jada. Gogoratzen dute giroa itogarria zela. Gero Malvinetakoa.

– Hamazortzi urte nituen nik –Jorge ari da–, mobilizazioa iragarri zutenean. Etxean garbi esan nuen, deitzen bazidaten desertatu egingo nuela. Izugarria zen, giro patriotiko handia bizi zen ingelesen aurka. Jendea gero konturatu zen milicoen azken erokeria izan zela hura. Nik uste dut jende askok gorrotoa diela gehiago horregatik errepresio guztiarengatik baino.

Kontatu dizkiet izan ditudan elkarrizketak. Danielek ixilik entzun du dena, matea eskuan. Gero esan dit, begietara:

– Ondo da. Bukatzen duzunean biktimekin, euskal errepresoreekin hasi beharko duzu, batzuk protagonista samarrak izan ziren-eta.

Ez diot erantzun.

Solasaldia erremediorik gabe Argentinako egoera politiko eta sozialera lerratu da. Denek kritikatzen dute osasun publikoa, hezkuntza, Menemen metodo diktatorial samarrak eta, arnasa hartzeko astirik gabe, ohartarazten dute, zorroztasun handiko irizpideez baliatuta, oso akats larria egingo lukeela Boca Juniorseko entrenatzaileak heldu den astean jokatu behar den Boca-River klasikoan Maradona aterako ez balu, Francescoli eta Rivas txiletarraren aurrean bosteroek ez dutelako jokalari tekniko-teknikorik, nahiz eta Chemo Del Solar izugarri bizkor jokatzen ari den aspaldi honetan...

Suaren sorgin-dantzari begira amatatzen da, ezarian, hizketaldia. Ondoko txabisketik iristen dira ahotsak: laster argituko du eta matea eta

opila gosaltzen ari dira langileak. Gustatzen zait jende hau.

Andres Armendariz

Iraultza anarkista 1920an lehertu zen Patagoniako hegoaldeko artzainen artean. Europa zeharkatzen zuen matxinada haizearen –Errusia, Alemania– eraginpean, zirku ibiltari batekin iritsitako Antonio Soto galiziarrak nagusi ingelesen kontra altxatu eta bandera gorria eta beltza haizatu zuen Puerto Gallegosen. Bere armada? *Wondervögel* alemanak, anarkista errusiarrak, legez kanpoko *cowboy* batzuk eta Chiloé irlako indiar saldoak. Idealistak, batzuk, ezer galtzeko ez zutenak, besteak.

Proudhon, Bakunin eta Malatestaren zalea, Antonio Sotok Batzorde Gorria taldea eratu zuen lurjabeek ezartzen zituzten lan baldintza basatiak salatzeko, baina urtebetez Buenos Airesko agintea eta kolono ingelesen tirania kolokan jarri ondoren, Varela teniente koronelaren armadak errebolta zanpatu zuen. Hildako asko izan ziren. Patagonia Trajikoa deitu izan zaio garai hari.

Txile eta Argentina artean banatuta, joan den mendearen bukaerara arte inork ez zion aparteko xarmarik aurkitu mundu guztiko lainoek bilkura egiten duten lurralde honi. Magallanes eta Elkanoren espedizioaz geroztik hara iristen ziren guztiek baleak edota indiarrak harrapatzea –biengatik ondo ordaintzen zuten inguruko hirietan– beste asmorik ez zuten. Marinelentzat ere ezertarako balio ez zuen alderdi ilun, hotz eta euritsua, arriskutsua zen Patagonia. Galestarrak joan ziren arte.

Txilera ematen duen aldea ez bezala –ohian itxi eta zaila–, Argentinako lurraldean Andeetako ibaiek zeharkatutako bailarak eta ordokiak dira nagusi. Onak, oso onak artzaintzarako. Ez dute Pampako belardien berdea, baina lautada eta muino amaiezinetan milaka burutako artaldeak goberna daitezke.

Argentinako Gobernuak lurrak oparitzen zituenez, 1840 aldera iritsitako emigranteak –Birmingham eta Liverpoolgo meategi eta lantegiak utzita– animatu ziren: lehen ardiak Malvinetatik ekarri zituzten. Britainiar gehiago etorri ziren atzetik, lur gehienak eta onenak hartu arte. Bri-

tainiar Inperioaren azken konkista izan zen, Buenos Airesen inor larritu ez zuena, alderdi hau oso urrun baitzegoen haiengan interesa pizteko.

Gurasoak estatubatuarrak izan arren Buenos Aires ondoko Quilmes herrian jaiotako W.H. Hudson idazleak urte luzez iraun zuen ikuspegi bukolikoa laburbildu zuen *Aisialdi egunak Patagonian* liburuko pasarte batean: «Hona ez da ezeren bila etorri behar, ez baitago ezer. Sentitu egin behar da, eta hunkitu. (...) Bere xarmaren sekretua ez da ezezagunaren efektua, ez da irudimena, baizik eta paisaje arras bakarti honetan, Naturak... inon baino sakonago hunkitzen gaituela».

Patagonian kolono galestar, ingeles eta eskoziar, eta langile txiletarrak zeuden, nagusiki, XX. mendearen hasieran. Baita zenbait euskaldun ere, horien artean Angel Armendariz eta bere emaztea, Nafarroako Obanos herrixkatik etorriak.

– Aziendadunek irabazi handiak izan zituzten 1914tik 1918ra bitarteko gerrari esker. Artilearen prezioa asko igo zen, esportazioa ere bai... garai oparoa. Gerra bukatuta, hauspoa gelditzen hasi zen, eta etekinak eskuratzen segitzeko lur-

jabeei zer bururatuko eta errazena: baserrietako langileen lan baldintzak gogortzea. 1920ko irailean lehen greba orokorrerako deialdia egin zuen Batzorde Gorriak.

Aitonak Patagonian bizi izandako garaia xehetasunez kontatzen didan bitartean, Maria Angeles Armendariz zirriborroz betetako nire koadernoa aztertzen ari da. Adolfo Perez Esquivel Bakearen Nobelaren Serpaj (Servicio Paz y Justicia) erakundearen egoitzan egin dugu hitzordua. Iritsi naizenean sarreran zegoen eserita, bere poltsari itsatsita. Badirudi egoitza ilun honek eskaintzen dion anonimotasunetik aztertu nahi duela Andres bere anaiari gertatutakoaz galdezka Euskal Herritik heldu den kazetaria. Telefonoz bestaldean ahotsik gabe gelditu da hots egin diodanean. Ezer baino lehen, zenbakia nola lortu dudan galdetu dit.

Hezkuntza Ministerioko bere bulegotik zuzenean etorri da, etxera joan gabe. Kafea hartu eta San Telmoko kaleetan paseatu dela esan dit, han bizi zelako Recoletara, iparraldera, joan baino lehen. Jertse txuria eta praka bakerotan etorri da, urrezko domina lepotik zintzilik. Iharra

eta aurpegi zorrotzekoa, hizketako doinua ez du oso argentinarra, ez oso porteñoa. Are, nafar samarra esango nuke.

Gela handi batean gaude biok eserita, bakarrik. Piedras kaletik inusturiak bezala igarotzen diren kolektiboen burrunbak Maria Angelesen jarduna eragozten du batzuetan. Gehiago hurbildu natzaio.

– Batzorde Gorriaren deialdiak arrakasta izan zuen: ingurua ernegatu zuen, eta udazkenean zehar asaltoak, hildakoak eta sute ugari izan ziren. Soto galiziarrak, nonbait, matxinada Argentina osora zabaldu nahi zuen, baina Buenos Airesko talde anarkistako bilera batera joan zenean inork ez zion jaramonik egin. Eta hala ere kolono ingelesak arduratuta zeuden, egoera latza baitzen inguruan. Argentinako Gobernuak Britainia Handiko enbaxadaren eskaera ofiziala jaso zuen esku har zezan eta, azkenean, Zalditeriaren X. Erregimendua bidali zuen.

Hori neguan izan zen. Soldaduak iritsi bitartean, barrualdeko baserriek eta hiri handienetako dendek etengabeko erasoak jasan zituzten hala mendietan ezkutatzen zen Sotoren taldeen-

gandik nola miliziak osatuak zituzten kolonoengandik ere. Gau batez Armendarizen dendari eraso egin zioten anarkistek.

– Aitona saiatu zen defenditzen Argentinan zeukan aberastasun bakarra –kontatzen du Maria Angelesek–, baina taldekoek harrapatu, kalera atera eta biluzik eduki zuten gau osoan, 50 zentimetroko elurra zegoela. Ahal izan zuten guztia lapurtu ondoren, denda txikitu zuten. Aitona hemiplejiak jota eritu zen.

Udaberriaren beroarekin Patagonian zen Armada, buru Ignacio Iza kapitaina zuela. Izak borondate oneko keinua egin zien matxinatuei: amnistia osoa armak uzten bazituzten. Antonio Sotok eta bere taldekoek onartu zuten eskaintza, eta Iza Buenos Airesera itzuli zen.

Handik lau hilabetera istiluak berpiztu ziren. Ingelesek behin baino gehiagotan ohartarazi bezala, buruzagi anarkistaren marroa izan zen dena, denbora irabazi eta indarrak batzeko azken saialdia. Eraso, hilketa eta sabotajeen eraginez Patagonia osoa berriro kiskali zen.

Britainia Handiko enbaxadaren presioa gero eta handiagoa zenez, Hipolito Yrigoyen presiden-

teak gogorraren fama zuen teniente koronel bat aukeratu zuen azkenean Patagonia baketzeko. Agindu zehatza eman zion: iraultzaileak betiko isilarazi. Hector Benigno Varelak hitzez hitz hartu zuen mandatua.

Mila eta bostehun hildako inguru eragin zituen, horietako asko langileak, ez zituztela hilko entzun ondoren armak entregatu zituzten langileak. Antonio Sotok, gero eta bakartuago, La Anita izeneko baserrian eusten zion, bostehun kidez inguratuta. Bi chilote bidali zituen teniente koronelarengana, negoziatzeko prest zegoela mezuarekin.

«Negoziatu? Zer negoziatu?» erantzun zien Varelak. Errendizioa exigitu zuen, ez zituztela hilko berriro ere hitz emanda.

Sotok gau hartan bertan alde egin zuen Txilera, jarraitzaile batzuekin. Gelditu zirenen artean –hirurehun bat indiar– erdia-edo militarrekin iritsitako lurjabeek hartu zituzten, baserrietan esklabu lan egin zezaten. Beste erdia fusilatuta hil zen. Soldaduetako batek esango zuen gero chiloteek «geldotasun benetan harrigarri batekin» onartu zutela heriotza. Antonio Soto ga-

liziarra Punta Arenasen hil zen 70eko hamarkadan, jatetxe anarkista baten jabea zelarik.

Aitaren ahotik entzundakoa gogoratzen ari da Maria Angeles.

– Errepresioarekin dena lasaitu zen, baina aitona gaixo zegoen, dena galdu zuen... Amonak bi seme-alabak hartu eta Obanosera itzuli zen, senarra hemen utzita. Semeetako bat, Angel, zen gure aita.

Obanosen koskortu zen Angel. Lan egin zuen nekazaritzan, gero diputazioan... Patagoniara itzultzea erabaki zuenean, 1958an, zazpi seme-alaba zituen. Ia arrotza zitzaion lurraldera itzuli zen aita ezagutu nahi zuelako, eta lan egiteko ere, mahastiek eta diputazioko lanek ez zutelako ematen familia osoa elikatzeko. Maria Angelesek zortzi urte zituen. Andresek hamar.

Anai-arreba guztiak Argentinan hazi ziren, Santa Cruz eskualdean, Antartidatik gertuen dagoen inguru hotz eta urrunean. Ikasketak bukatu behar izan zituztenean Buenos Airesera joan ziren. Batzuk ikasten, besteak lan bila, etxebizitza alokatu batean zeuden bost anai-arreba 1975ean.

Adinarengatik, Maria Angeles eta Andres oso lotuta egon ziren beti. Emakumeak gogoratzen duenaren arabera, neba aspalditik zen peronista eta 1976ko hasieran sindikatuko ordezkari hautatu zuten Austral hegazkin konpainian.

– Militarrek agintea hartu eta biharamunean izan zuen segurtasun indarrekin lehen estropezua.

Arratsalde batez izan zen. Felipe anaiarekin eta honen neskalagunarekin zegoen Andres, etxean. Bat-batean atean jo zuten, bortizki: poliziak ziren. Feliperen aurrean metrailadorea jarrita, Andres hartu eta eraman zuten. Felipek ikusi ahal izan zuen leihotik autoek ez zutela matrikularik eta okerrena pentsatu zuen. Handik bi egunetara Andres libre utzi zuten, sekulako jipoia eman ondoren. Lehen abisua zen.

Bigarrena lau hilabete geroago izan zen. Hirurak zeuden berriro, orain Conyren etxean. Dirudienez, neskaren lankide bat berriki atxilotua izana zen eta bere agendako izenen artean Conyrena zegoen. Horrek susmagarri bihurtzen zuen erremediorik gabe.

Hiru gazteei begiak estali zizkieten. Etxea goitik behera arakatu ondoren ahal izan zuten guztia txikitu zuten, eta bukatutakoan haietako batek galdetu zuen zein eramango zuten: «Neska», erantzun zuen arduraduna zenak.

Hurrengo goizean Felipe Armendariz komisaldegira joan zen, salaketa jartzera. Gazteak, beldurraren beldurrez, azaldu zion informea idazmakinaz idazten ari zen guardiari etxera joan zirenak komisaldegi horretakoak zirela, hori uste zuela. Isun baten berri jakinarazteko erabil zezakeen tonu berarekin funtzionarioak eman zion erantzunak izututa utzi zuen Felipe:

– Gu izan bagina, zu ez zinatekeen orain hemen egongo.

Feliperen neskalaguna desagertu eta astebetera, anai-arrebak bizi ziren etxera sartu ziren militarrak. Zorionez, ez zegoen inor.

Maria Angelesek lehen zigarroa piztu du, erre, gutxitan erretzen duenaren plantan. Egunotan Buenos Airesen daude gurasoei esan die etortzeko, niri kontatzeko beraiek ere bizi izan zutena, baina ez dute nahi izan.

– Ahaztea nahiago dute.

Arnasa hartu du jarraitu baino lehen.

– Niretzat garai hura beldurrarekin dago lotuta, erabat. Susmatzen genuen atzetik genituela militarrak, orduoro. Etxera iristeko bi edo hiru kolektibo hartzen genituen, ibilbide diferenteak egiten genituen egunero... Anaia gazteenak ezin izan zuen jasan: Suediara joan zen lagun batekin, erbesteratu zen.

Etxean bisita eduki eta gero, pisua utzi eta banandu egin ziren. Maria Angeles ezkondu eta bere senarrarekin joan zen bizitzera; Andres neskarekin; ahizpa zaharrena Patagoniara itzuli zen.

Videlaren Juntak urtebete egina zuen boterean Armendariztarrak jazarpen psikologikoaren ondorioak jasaten ari ziren garaian.

Rodolfo Walshek, montoneroen prentsa-zerbitzuko buruak, orduan idatzi zuen *Batzorde Militarrari Gutun Irekia* txostena. Balantze aski beltza marraztu zuen: hamabost mila desagertutako, hamar mila atxilotutako, lau mila hildako, milaka erbesteratutako; langileen soldata erreala %40 urritua, urteko inflazioa %400ekoa... eta

Juntako buruek 1.800 milioi dolar –Argentinako esportazioen balioaren erdia– inbertitu behar zituzten Segurtasun eta Defentsa Ministerioan.

Datu hauek eskuetan, idazle eta kazetaria zenak adierazpen ofizialen gezurra salatu zuen: «Zuentzat azertua direnak errakuntza dira, errakuntza direnak krimen, eta ixiltzen dituzuenak lazeriak».

Gutuna idatzi eta hurrengo egunean, 1977ko martxoaren 25ean, ESMAko talde berezi batek Walshen aurrean trabeskatu zuen Ford Falcon beltza, Buenos Airesko kale batean. Montoneroa saiatu zen bahitzaileei aurre egiten. Bertan hil zuten.

Bi egun beranduago, martxoaren 27an, Andres Armendarizek etxeko atarian agurtu zuen neskalaguna. Eguerdia zen. Arratsaldean etxean elkartuko zirela hitzartu zuten.

Gracielak hamarrak arte esperatu zuen, gertatu bide zena susmatzeak eragiten zion zimiko gero eta estuagoa barrenean. Kalera irten zenean, Andresen bila, bazekien. Joan zen biek

ezagutzen zituzten tokietara, kabinetatik hots egin zien lagunei, oinez zeharkatu zituen Andresekin hainbestetan ibilitako kaleak. Goizaldean, etsita eta deseginda, Maria Angelesen etxera joan zen.

– Andres eraman dute.

Bi emakumeek elkar besarkatu zuten. Izua gainditu, Maria Angeles anaiaren etxera joan zen, arropa eta gauza pertsonalenak biltzera. Txikituta zegoen. Graciela gutxigatik salbatu zen. Biharamunean Andresen bila hasi ziren. Espainiako enbaxadan, Polizian, erakunde zibil eta erlijiosoetan, egun bakar batean hogeita bost eskutitz bidali zituzten. Desagerpena gertatu eta astebetera komisaldegi batetik deitu zuten: Andresen hilketa ikertzen ari ziren.

– Ni joan nintzen –aulkian deseroso mugitu da Maria Angeles–. Hasieran esan zidaten gorpua aurkitu zutenean sutan zela, eta guardia batek ikusi zuela. Gero taxista batek topatu zuela, eta azkenean dei anonimo batek eman zuela abisua. Garbi zegoen kolpeka hil zutela, eta gero gasoila bota eta su eman ziotela. Euria ari zuenez, ez zen erabat kiskali.

Gorputegira joan zen, bakarrik orduan ere. Felipek jazarpen psikosi izugarria zuen neskalagunaren atxiloketaz geroztik, eta ateraino laguntzen zion arrebari, baina kanpoan gelditzen zen. Gainontzeko anai-arrebak eta gurasoak Buenos Airestik kanpo. Maria Angelesek nori heldu ez zuela jasan behar izan zituen une latz haiek.

Andresen gorpua erabat desitxuratuta aurkitu zuen.

– Hamar egun igaroak ziren desagerpenaz geroztik, eta erredurekin... zangoetako ilearengatik ezagutu nuen. Ez dakit zergatik, ez dago arrazoirik, baina horretantxe antzeman nion bera zela. Orduan hasi nintzen negarrez. Ordura arte eutsi nion, baina dena gertatu ondoren, daramazun guztiarekin... Gorpua ikustea azken kolpea da.

Gurasoei esan behar zieten.

– Anaiek bazekiten, baina ama eta aitarekin ez ginen ausartu egia hasieratik esatera. Parodia bat antolatu behar izan genuen. Azaldu genien Aste Santua zenez Andres eta Graciela oporretara joan zirela, eta istripu bat izan zutela, autoa suak hartu zuela. Prest ikusi genituenean, eraba-

ki genuen hileta igande batean egingo genuela. Gurasoek Cordobatik etorri behar zuten, baina aitak, abioiko eskaileretan, esan zuen ez zuela etorri nahi, «beranduago» etorriko zela. Ez zion aurre egin nahi, zerbait susmatzen zuen. Hegazkin konpainiako langileek ziria sartu behar izan zioten azkenean abioira igo zedin.

Arratsaldea aurrera doa Buenos Airesen. Argi grisa iristen da kaletik, aurpegien ertzak besterik marrazten ez dituena. Maria Angelesen begiak distiratsu daude leihorantz begiratzen duenean. Isilaldi luzea gertatu da. Bi aldiz saiatu da jarraitzen, bietan gelditu egin behar izan du.

Poltsatik zapiak atera ditu. Ez dakit nondik, jarraitzeko indarra.

– Andres lurperatu eta gero ni ere Cordobara joan nintzen, egun batzuk pasatzera. Buenos Airesera itzuli nintzenean abokatuaren deia jaso nuen, autopsia bazuela eta joateko. Ez zidan eman irakurtzeko, gogorregia zelako, baina zer edo zer azaldu zidan: hamar saihets zituen hautsita, hortzak eta haginak erauzita, barea lehertuta, biriketan edema larria... Whisky bat eman

behar izan zidan errekupera nendin. Bulegotik eroturik atera nintzen.

Baina ezin ezer egin, ez galdetu, ez arakatu... zaborra ez mugitu badaezpada ere. Abokatuak berak gomendatu zion hilketaren instrukzioa ahazteko, kasurik ez egiteko.

Familia desegin egin zen gutxinaka. Felipe Ingalaterrara joan zen eta beste anaia bat Espainiara, denak ihesi.

1983an, desagertutakoen gaia ikertzen hasi zenean, Maria Angeles ez zen azaldu senitartekoen lekukotasunak biltzen aritu zen batzordera, eurek bazutelako anaiaren gorpua, baina Garzonek epaiketa zabaldu zuenean eta Argentinako gobernuak desagertutakoen senideei dirulaguntzak eman behar zizkiela iragarri zuenean, erabaki zuen berriro ere dena mugitzea. Joan zen epaitegietara, aurkitu zituen agiri guztiak, zabaldu zituen ondo gordetako karpetak.

Hogei urte aurrerago, autopsia irakurri zuen. Mundua erori zitzaion.

– Garbi dago burua eta hankak lotu zizkiotela, atzetik, eta gero kolpeka hasi zirela, kolpeka gorputz guztian. Horietako batekin saihets bat

hautsi eta birika zulatu zioten. Hortik etorri zitzaion edema, eta horren ondorioz hil zen.

Orduan baino gogorragoa egin zaio orain.

– Nik uste nuen hori guztia itxita nuela, uste nuen banuela nahikoa indar berriro dena hasteko, baina txikitu egin nau, joana gelditu naiz. Eta guk badugu gorpu bat, badugu non negar egin, baina 30.000 desagertu horien familiarrek, horiek zer?

Gautu du, eta zigarroen garrak eta grabagailuaren argi gorriak ohartarazi digute ilunpetan gaudela. Isilik gaude biok.

Kasetaren hotsa mekanikoki errepikatzen da. Beste zinta bat. Pentsatu dut dena ezabatuko balitz soilik jende honen aurpegiez gogoratuko nintzatekeela, beren begiradez. Baina hori kontatu ahalko banu dena konta nezakeela. Aurpegiotan dago dena.

Mari Angeles hustuta dago. Besarkatzeko gogoa izan dut, baina ez naiz ausartu.

Metro geltokiraino bidea oinez egin dugu. Inoiz pentsatu zuen Nafarroara itzultzea, Iruñean saiatzea bere ikasketekin, baina orain ezin du,

orain baditu bi seme koskorturik. Dena haustea litzateke.

– Egidazu faborea: Gaztelu plaza inguruko taberna horietako batean letxefrita eskatu eta hartu. Nire partez.

Kanelak kiskail zaporea zuen.

Celia Lopez Ugalde

– Non dugu galego hori? –oihu egin dute atetik. Banekien diosal hori erabiliko zuela.

San Nicolas de los Arroyosko autobus geltokiko tabernan lau gaude: litro erdiko zerbeza baten aurrean manisekin jan ordua zaintzen agure bat; John Wayneren film zahar baten azpitituluei tarteka begiratzea beste lanik ez duten bi langile, eta neu, arrotz bakarra. Denok jiratu dugu burua, baina Javier Tiserak ez du dudarik izan. Niregana heldu da bizkor.

Zain eman dudan ordu luzean, Rosariora eta hiriburura doazen autobusen joan-etorriak kontrolatu eta pareko orubean futbolean ari diren mutikoei begiratzeaz gain, ahalegindu naiz belarrietan dudan ahotsari aurpegia jartzen. Ez dut batere asmatu. Helduagoa egiten nuen eta, nola esan, euskaldunagoa.

Aitarengandik duen odol indiarra indartsu dario begiradari. Gabardina luzea darama jantzita, bero egiten duen arren; ilea gominaz bustia eta atzerantz orraztua du, begi zabal eta biribi-

lak, eta musuak zuri-gorriak, baina beltzaxka; garaia eta harroa.

Buenos Airestik honako bidaian behin eta berriro gogoratu ditut berarekin telefonoz izan ditudan komunikazioak –desorduz eginiko deiak, nahasgarriak askotan, ilogikoak eta surrealistak–, eta konturatu naiz ezagutzeko gogo biziz nagoela. Ez agindu zizkidan izen, datu eta zerrenda guztiak eskuratzeko itxaropenik dudalako, ez. Aspaldian jakin nuen ez zuela ezer, promesa guztiak ni hona etorri eta Celia lehengusinari gertatutakoa jaso nezan jarritako amuak zirela, baina onartu nuen jokoa. Gudari bizkaitarren biloba hau ezagutzeko gogoa lotuago dago konplizitatearekin, lehen deitik antzeman nion ilusioarekin: bera izan zen nire asmoa hasieratik ulertu zuen bakarra. Bidaia, neurri batean, berari zor diot.

Taberna osoa pauso luzez zeharkatu ondoren nire mahaiaren parera iritsi denean, aspaldiko lagunak bagina bezala besarkatu nau. Luzatu diodan bostekoa zintzilik gelditu zait, jokoz kanpo.

– Zure etxean zaude –irribarre zintzoa irakurri diot.

Javier Tisera baikorren alderdian jokatzen dutenetakoa da, bizitza hau beste ezer ez dagoela eta bizi egin behar dela ikasi duena. Edozein toki izan daitekeela toki espeziala.

Duela hilabete batzuk utzi zuen Buenos Aires eta San Nicolasera, bere jaioterrira etorri zen bizitzera. Hiriburutik 250 kilometrora gaude, Parana ibaiaren ertzean. Etxerantz goazelarik, bere familiaren historia kontatu dit.

– Polentzi Edorta Etxeberriak, gure aitonak, Argentinara etortzea erabaki zuenean hasi zen dena, 1952an. Bilboko familia jeltzale batean jaioa, ingeniaritza ikasketak egin zituen eta bukatu berriak zituela piztu zen 36ko gerra. Gudarien lerroetan sartu zen, noski. Bazekien ardurak izango zituela, ikasketengatik, baina erabaki logikoa zen berea, familia osoa aritu zelako Francoren armadaren aurka.

Polentzi Edorta Bilbon ibili zen ia gerra osoan, hasieran teniente, gero kapitain eta, azken hilabeteetan, komandante. Nazionalak hiriburuko atean zeudela, tren geltokia lehertarazteko agin-

dua jaso zuen, erasoaldia albait gehien zailtzeko. Badirudi bertan gelditu zen azkenetakoa izan zela.

Nazionalek atxilotu eta Santoñan epaitua izan ondoren, bizitza osorako kartzela-zigorra gainean, epaile militarrak agindu zuen Puerto de Santa Mariako presondegian bete behar zuela. Hara joan ziren emaztea eta bi alabak ere, horietako bat Javier Tiseraren ama. Hiru urte beranduago Polentzi Edorta kartzelatik atera zen eta Cadizko ontzioletan lanean hasi, 1952an Argentinara joatea erabaki zuen arte.

Urrats geldotan egiten dugu bidea, narrazioaren gurdiari jarraiki.

– Aitonak entzun zuen han, Buenos Aires ondoko hiri batean, bazegoela altzairugintza dotorea, lanik ez zuela faltan izango, euskaldun asko zeudela. Itsasontzia hartu eta hona abiatu zen, bakarrik. Toki ona iruditu zitzaion eta dei egin zion familiari, etortzeko.

Urtebete beranduago emazteak eta alabek bide bera egin zuten, eta 1956an gainontzeko senitartekoek. Patriarkaren atzetik, erro bakarre-

ko adaskak bailiran, hamabi lagun iritsi ziren urte hartan San Nicolasera.

Polentzi Edortaren emaztearen familiaren artean zen Eladio Lopez, gerra hasi aurretik Bizkaiko Bankuan kutxazain izandakoa, dena galdu zenean Bartzelonara joandakoa. Han bataiatu zuen, erbesteko Euzko Jaurlaritzaren zigiluarekin bataiatu ere, Bilbon jaio berria zen Celia Lopez Ugalde. Javier Tiseraren lehengusina.

– Celiak hemeretzi urte zituen Agentinara iritsi zenean –Javierren pausoek San Nicolasko plaza nagusira eraman dute paseoa–. Zatoz, gauza bat erakutsiko dizut.

Oihan tropikalak mila kilometro iparralderago hasten badira ere, San Nicolasek basoari konkistatutako lurra ematen du. Han eta hemen jaiotzen dira Brasilgo intxaurrondoak, pikondoak, kakaotzeak, makarangoak, palmondoak, arkaziak, eukaliptoak... eta haritz bat, Gernikakoaren semea.

– Egun seinalatua izan zen Euskal-Etxekoek haritza landatu genuenekoa. Nik badut argazki bat zuhaixkaren aurrean, Celiarekin eta lehengusuekin.

Haritz koskortuak bere abarrak luzatzen ditu, harro, egun hura gogoratzen duen plakarantz.

Familia poliki moldatu zen lur berrian. San Nicolasek gerrak bereizitakoak elkartzeko eta lan egiteko aukera eman zien. Baita zauriak sendatzeko ere, Etxebarria, Lopez Ugalde eta Iriondotarren artean nazionalistak ez ezik, errepublikazaleak eta komunistak ere bazirelako, denak Francoren aurka ibilitakoak.

– Hemengo Euskal-Etxeak ere asko lagundu zigun. Ama, iritsi zirenen artean gelditzen den zaharrena, astero joaten da bertara afaltzera. Bukaera beti berdina da: gogora ekartzen ditu Deustuko zubia, hango kaleetako tabernetako gizonak... eta erregaliza. Tema berezia du horrekin.

Erbesteratzeetan konstantea izan ohi denez, lehen belaunaldikoei emigrazio-lurra arrotza gertatu zitzaien, baina jakin zuten esker ona adierazten. Polentzi Edorta hil zenean ikurrina eta Argentinako banderarekin lurperatu zuten San Nicolasko hilerrian, «aberriarengatik eta abegia eman zionarengatik».

– Urte onak izan ziren haiek. Gero, ordea, diktadura iritsi zen, militarrak... eta Celiaren bahiketa.

Javierrek kronista baten gisara kontatzen du lehengusinarena, xehetasun guztiekin.

– Buenos Airesen amaitu zituen Bartzelonan hasitako Arte Ederretako ikasketak, eta zoratzeko moduko lana aurkitu zuen berehala Colon Antzokian: urtero estreinatzen ziren opera montajeetako dekoratuak pintatzen hasi zen.

San Nicolasera egiten zituen bisitaldiak gertakari handiak ziren Javier eta gainerako lehengusuentzat. Celiak denak biltzen zituen bere inguruan eta, supazterreko ipuin kontaketen magia berberaz, *Traviata*-ren bigarren eszenarako egindako dekoratuak, tenore eta sopranoen arrandiak, palko nagusian esertzen zen honako eta halako jende inportantearen kontu txikiekin engainatzen zituen begiak biribil entzuten ziotenak.

Fikzioa eta errealitatea neurri egokietan nahasita, mundura orduan zabaltzen ziren adimen haiek elikatzen zituen Celiak. Oharkabean, hondar oso sendoa uzten ari zen Javierren eta bes-

teen bihotzean. Bera desagertuta ere iraun zuena.

– Arreba bezala zen gu guztiontzat. Berak erakutsi zigun ibai honetan igeri egiten, azaldu zigun Joan Miroren eta Picassoren arteko diferentzia, Cezanne eta Grecoren artekoa. Hamar urte genituela erakutsi zigun *Gozamenen Jardina* izeneko triptikoa ulertzen, Buñuel, Fellini eta Chaplinen filmak ikusi genituen berarekin... Denok ulertu genion langile eta nekazari baten arteko aldea zehaztu zigunean, esan zigun zein diren mundu honetako bidegabekeriak, herri honetako jende behartsua non dagoen... Horrek guztiak esanahi sakonagoa ematen dio «lehengusina» hitzari.

Operara joaten zen jende dotore eta distiratsu hura ez baitzen neska bitalista hark ezagutzen zuen herria. Espainiako Errepublika garaiko borrokak eta istorioak txikitandik entzunak zituen etxean, militantzia politikoa familiaren ezaugarria zen. Hori zela eta inor ez zen harritu 70etako hasieran Partido Revolucionario de los Trabajadores (PRT) alderdi marxista-leninistan militatzen hasi zenean.

– ERPko adar politikoa zen PRT –argitu dit Tiserak–, ezkerreko indar garrantzitsua garai haietan. Bi aldiz zen, beraz, militante, militarren garaian pintorea izatea politika egitea baitzen.

1976ko urriaren 13an, armaturik heldu ziren zortzi lagunek bota zuten Buenos Airesko bere etxeko atea. Etxean ordubete egon ondoren auto batean sartu zuten, eta hiriburuko etorbide handi batetik desagertu ziren, arrastorik gabe desagertu ere. Inork ez zuen Celia berriro bizirik ikusi.

Lehengusinari gertatutakoa 1987an hasi zen arakatzen Javier Tisera.

– Ez nuen egin bizirik aurkitzeko inolako esperantzarik genuelako, baina familiaren ohorearengatik.

Familiaren ohorea, klanaren iraupena, arbasoen tradizioa garrantzi handikoak dira denak Javier Tiserarentzat. Familiarik gabe ezer ez dela uste du berak, San Nicolas zeharkatzen duen ibai hau Amazoniatik jasotzen duen urik gabe ezer ez den bezala.

Emaztea eta haurrak aurkeztu dizkidanean doi bat ulertu dudala uste izan dut.

Etxeko atea zeharkatu eta berehala lepotik zintzilik ditu bi umeak, eta Raquelek, nekatuta dirudien arren aurpegi goxo eta polita duen andreak, irribarretsu agurtu du gabardina ohe gainean utzi duenean.

Tiseratarren etxeak kanpotik badu itxura, baina txiroa da oso, iluna eta arimarik gabea. Javierren liburuek betetzen duten apalategia izan ezik, paretetan ez dago apaingarririk, biluziak dira, deserosoak. Atzealdean duten lur puska –belar txarrez betetakoa, ezer landatzeko baino partidak jokatzeko eta okela erretzeko erabiltzen dutena–, hori da arnasa hartzeko bide ematen duen toki bakarra.

Eta hala ere, abegikorra egin zait. Izango da, akaso, munduko etxerik politena balitz bezala erakutsi didatelako, edo Argentinan ikusi ditudan etxe dotore bakarrak aberatsenak direlako. Eroso nago, gustura. Miresten dut umiltasun eta, era berean, bizi diren tokian eta unean bizitzeagatik duten alaitasun hori.

Pablok eta Claudiak atetik begiratzen didaten bitartean, asmatu ezinean zer izango den interesgarriagoa, etorri berria ezagutzea edo pilotari ostikoak ematea, Javier agertu da ekarri behar izan diodan Athleticeko elastikoa jantzita. Telefonoz emandako informazioaren ordainean eskatu zidan, txantaje eta guzti.

– Bestela ez da traturik –mehatxu egin zidan, Realekoa ez ote zuen nahiago esan nionean.

Barregarri samar dago, zinez. Handiagoa erosi behar izan nion, baina tira, haurrei gustatu zaie. Berehala piztu da futbolaz eztabaida. Larunbatean jokatuko da Buenos Airesen River Plate-Boca Juniors klasikoa, herri honetan pasio guztiak pizten dituen futbol partida, eta aste honetan ez da beste ezertaz hitz egiten Argentinan. Hauteskundeak ere ahaztuta gelditu dira. Etxean denek egiten dute amaren kontra, familian Bocakoa ez den bakarra. «Ohitu naiz Riverrekin bakarrik sofritzen», suspirioa izan da Raquelena. Kontu bakar batekin gaude denok ados: polita da Athleticeko kamiseta, baina inola ere ez Pablok atera duen Bocakoa adinakoa.

Txikienari bularra ematen utzi dugu Raquel, beste bi haurrek nahikoa eztabaida dutela erabakitzeko nork jantziko duen elastiko zurigorria lehengusuak etxera datozenerako.

Eltzekoa ari gara bazkaltzen Javier eta biok; plater bakarra.

Celiaren bahiketari buruz datuak biltzen hasi zen garaian Buenos Airesen zen Javier bere familiarekin, *La Nación* egunkarian lanean.

– Hamahiru urte nituela hasi nintzen hemengo egunkarian, mandatuak egiten. Gogoratzen dut bereziki erredakzioburu izugarri gogor hura, egun eta gau osoa teletipoen artean ematen zuena. Esaten zigun kazetari batek bazkaldu eta lo egin behar duela erredakzioan, eta nik estuestu jarraitzen nion aginduari. Koltxoi baten gainean lo egiten nuen eta bertan bazkaltzen. Askotan, gauerdian, erredakziotik ateratzen nintzen zerbait afaltzera, eta diskotekara joaten nintzen gero, dantza egitera. Jendea lotara joaten zenean ni bulegora itzultzen nintzen.

Egun batez, hirigunean areto handi eta txuritxuria duen talde masoiari buruz erreportaia argitaratu zuen egunkarian, eta handik astebetera

jipoitu egin zuten kalean. Babes eske joan zitzaion zuzendariari, oharren bat atera beharko zutela-edo.

– Txundituta utzi ninduen: «Ez hadi ba komeni ez zaizkian uretan sar». Egunkaria utzi eta hiriburura joan nintzen.

Handik itzuli berri da, askoz gehiago kobratuta ere bizimodu zoro samarra egiten zutelako emazteak eta biek egun osoan elkartzeko astirik gabe. Orain klaseak ematen ditu San Nicolasko Kazetaritza Fakultatean eta zutabeak idazten ditu kazetarako. Eta publizitateaz arduratzen da. Ez dirudi hori asko denik Argentinan, baina berarentzat lan bat da, nahikoa beraz.

– Familiak ahalegin guztiak egin zituen Celiaren berriren bat izateko –kafe lurrintsua dugu biok aurrean–. Lekuko bakarra zegoen, atezaina, baina ez zuen inoiz gurekin hitz egin nahi izan. Bere bizitzatik ezabatu nahi izan zuen gertatutakoa. Gogorra da, baino ulertzen diot. Argentina beldurrezko kontzentrazio esparrua zen garai hartan, eta gehienek nahiago izan zuten gertatzen ari zena ukatzea.

Celiaren aitak habeas corpusa aurkeztu zuen, eta Espainiako pasaportea zeukan eta enbaxadan salaketa jarri zutenen artean lehendabizikoetakoa izan zen. Oso katolikoak zirenez, Elizaren babesa ere bilatu zuten, baina, beste askori bezala, etsitzeko gomendatu zieten, begirada jainkoarengana zuzendu eta fedea ez galtzeko.

– Osaba duela hiru urte hil zen. Bere alabaz galdezka hil zen, ea aurkitu genuen. Badakizu, garai hau bizi ez zuen batentzat ulertzeko zaila da baina... semea, anaia, norbait desagertua duenari iruditzen zaio ezin izan diola bere bizitzari bukaera eman, eten bat izan dela. Oso traumatikoa da.

Espainiako Desagertutakoen Batzordean aritu zen Javier hainbat urtez, enbaxadaren bidez Espainiako Gobernuari ardura handiagoa eskatzeko, baina erantzun bera jaso zuten guztietan: Argentinako agintariek ez zutela inolako laguntzarik eman nahi. Hor hiltzen ziren, desagertzen ziren, ahalegin guztiak.

– 1987an lortu nuen Celia bizi zen auzoko poliziburuarekin hitz egitea. Aitortu zidan neska bahitu bezperan goitik jaso zuela agindua kalea

libre uzteko, hau da, trabarik ez jartzeko kanpotik etortzekoa zen talde berezi bati. Guk uste dugu San Nicolas bertako indarrek bahitu zutela lehengusina, hona ekarri eta hemen hil zutela. Hala ere, inork ez zuen ikusi inongo zentro klandestino edo kontzentrazio esparrutan, eta litekeena da bidean hiltzea.

Etxean ez da bakerik. Pabloren urtebetetzea da, merendua prestatu behar du Raquelek laster iritsiko diren lagunentzat, eta haurrak urduri daude, tximistak hartuta.

– Goazen paseoa ematera, ibaia erakutsiko dizut –gonbidapena egin dit Javierrek.

Giro hezea da oso, baina polita dago herria. Etxeak etxebizitza bakarrekoak dira gehienak, txuriak eta urdinak, garbiak. Kaleak karratuak dira, Argentinako barnealdeko gehienak bezalakoak: konpas batekin eta plano baten aurrean eginikoak dirudite.

Hiria hutsik dago ordu honetan, lasaitasuna arnasten da bazterretan, eta Etxeberria eta Lopez Ugaldetarrek hiri honekin zortea izan zutela pentsatzen ari naiz Tiserak orduko bakardade sentimendua laburbildu didanean:

– Diktaduraren garaian ez ziguten sinetsi, esaten genienean estatu terrorismoa gizartearen kontra erabiltzen ari zela, gauez gainera, jendea bahitzeko; erokeria zen gehienentzat. Baina lekukotasunak itzalpetik atera zirenean, jendeak izututa begiratu zigun, askotan entzunagatik inoiz sinetsi izan nahi ez zuelako: «A ze astakeria egin ziren, eta gu enteratu gabe!». Alfonsinen eta Menemen erabakiekin (amnistiak, indultuak) Argentinako gizarteak bide bat hautatu zuen: nahiago izan zuen zaurian atzamarrik ez sartu. Jendeak erabaki zuen baietz, hori gertatu zela, baina aurrera jarraitu beharra zegoela.

– Zaputza izango duzue barruan –barrutik atera zait neuri.

– Nik uste dut badirela iraunbizitzeko modu ezberdinak. Gizarteak ahanztura hautatu baldin badu, oso litekeena da akats berberak berriro errepikatzea. Eta ni ez naiz gai inor epaitzeko, baina gogoratu behar da desagertu zen jende hura gu bizi garen etxe berberetan bizi zela, gu sartzen garen tabernetara sartzen zela, guk ditugun pasio berak zituela. Ahantz dezatela hala nahi badute, nik ez dut ahaztuko. Batzuetan,

honi buruz hitz egiten dudanean, giristino sentitzen naiz Erromako koliseoan.

– Eraiki daiteke zerbait zauri honen gainean?

– Ez. Inork ezin du bizi bere miseriak zein diren jakin edo ezagutu gabe. Gizarte osasuntsu batentzat ahanztura ez da tokirik onena. Eseri beharko genuke denok eta garbi utzi gure artean dabiltzala kriminalak, eta biktimak... Niretzat garrantzitsua izango litzateke krimen hauengatik norbait preso egotea, nik sinetsi egiten baitut justizian, uste dut jendeak ordaindu egin behar duela egiten duenarengatik. Ordea, galdetzen badidazu hau guztia kita dezakeen bizitza osorako kartzelak, ezetz erantzungo dizut.

Parana harroxko heldu da, beldurtzeko gogoz. Itsasotik ehun bat kilometrora gaude eta bost kilometroko zabalera du jada ibaiak.

Euri handia bota du aspaldi honetan, eta bi hilabete barru, Brasil, Uruguai eta Paraguain jasotako ur guztiak burrunbaka eta orroka iristen direnerako, uholdeak espero dira. Orduan lur puskak ekarriko ditu korronteak, zohitiak, eta

hemen parean dauden irla hauei itsatsiko dizkie, bertan bizi diren ehiztarien gozamenerako, hartaka igarabak ugariagoak izango direlako.

Solasaldia entzun duen ibai honen aurrean, behinola euskaldun batek erregutu zion amari: «Itzul gaitezen Euskal Herrira, ama, ibai hau oso iluna da-eta». Itzuli egin ziren.

– Zuei ez zitzaizuen inoiz burutik pasa?

– Mintzatu ginen itzultzeko aukeraz, bai, baina errotuegi geunden. Bidea errepikatzea izango litzateke, berriro lur bila hastea. Familiaren erdia pozik izango litzateke, baina beste erdiak pairatu beharko luke hogeita bost urte lehenago pairatutakoa. Inor ez zen ausartu.

Etxeko bidea hartu dugu, poliki, hitz egin gabe ia. Han, urruti, Argentina osoan famatu den tenplu berria marrazten da arrastiriaren kontra. Duela zazpi urte, inguruko larreetan, neskatila batek Ama Birjina ikusi zuen. Hasieran, beti bezala, Elizak zuhur jokatu zuen, baina ikusita baserritarrak, ikasgabea izanik ere, hebreeraz eta sanskritoz idazten zituela Itun Berriko testuak, elizgizonek erabaki zuten, noski, hura mirakulua ez bazen... eta bedeinkatu zituzten agerkun-

deak, ofizialdu zituzten. Geroztik, urtero hirurehun mila inguru erromes azaltzen dira Argentina osotik San Nicolasera. Eskoziako itsasoan altxatzen diren petrolio dorreen itxura du tenpluak, eta fededunen diruarekin eraikitzen ari da.

Etxera iristen ari garela, Javierrek kontatu dit Malvinetako gerran nola elkartu ziren irla hotz eta urrun haietan irlandarra eta euskalduna, biak Argentinarekin soldadu. Azken erasoaren bezperan, britainiarren gerra itsasontzi modernoen dorreak ikusten zituztela, hiltzeko entrenatuta zeuden eliteko tropen aurrean kikilduta, aberrietako kantak abesteari ekin zioten, fusil zaharrak eskuetan, hotzak eta beldurrak akabatuta.

– Diotenez, muturreko egoera horietan jendeak ateratzen du barruen duena. Pentsa, biak ziren jaiotzez argentinarrak, hizkera, kultura eta bihotza hemengoa zuten, baina ikusi zutenean bertan hilko zirela, jatorriaz oroitu ziren. Familiaren goxoa iritsi zitzaien kanta zaharrekin batera.

Taldekideek emozioz entzun zituzten gau ilun hartan bi gazteek lubakian abestutako koplak.

Inork ez zituen hitzak ulertu, baina denentzat lasaigarri izan zen hura.

Hurrengo goizean ingelesek bonbardatu zituzten posizioak eta denak hil ziren. Belaunaldi oso bat kontzentrazio esparruetan garbitu ondoren, militarrek soldadutza garaian zeuden mukitsuak bidali zituzten munduko armadarik onenetakoaren kontra, eta gero abandonatu.

Tiseratarren etxea haurrez beteta dago. Kremazko enpanadak, fruta azukrez bustiak eta opilak prestatu ditu Raquelek. Baita cola eta laranja ere. Autobusa hartzeko ordua dut.

– Aukera izanez gero, zoaz klasikora –despedida egin dit Javierrek atean–. Nik ezin dut, baina animatu Bocakoak!

Geltokirantz noala, etxeko atarian zintzilik daukaten poema dut buruan. Gauaz eta izuaz zen, Javierrek idatzitakoa. Atzetik datorkidala ikusi dut, korrika. Liburu bat dakar eskuan, *La noche de los lápices*.

– Tori, irakurri Euskal Herrira joaten zarenean.

Lehen orrian honela dio: «Albertorentzat. Bere memoriagatik, eta basapiztien eta ahaztu-

tako istorioen latitude hauetaraino etortzeagatik».

LAPITZEN GAUA

La Plata, 1976ko udaberria. Lehen ere egin duten borroka batean dabiltza bigarren zikloko ikasleak, 1956tik indarrean izan den eskubide bat mantentzearen alde: garraiobideetarako txartelaren alde. Unión de Estudiantes Secundarios (UES) sindikatuaren barruan, Claudio Acha (17 urte) nabarmentzen hasia da gelako mahaien gainean igota errebindikazioak oihuka argudiatzen dituztenen artean, bera delako hezkuntza politiko handiena duena.

Bazekien Maok –horrela deitzen zioten Claudio Achari lehen mailako ikasturte batean *El Capital* irakurtzen ikusi zutenetik– militantzia benetan arriskutsua zela garai haietan, ezagutzen zuen taldekide batzuen artean zabaldua zen izua. Horren kontra egin beharraz mintzatzen zen, hala ere, ahal izaten zuen guztietan.

Adela Segarrak, bere lagun minenak, aurreko udazkenean gaztigatua zion:

– Jende asko erortzen ari da, Claudio. Ez dut militantzia utzi nahi baina ezin dut La Platan jarraitu.

– Etsita zaude? –galdetu zion gazteak.

– Apur bat. Egoera gero eta zailagoa da, ez al zara konturatzen?

– Bai, baina orain ezin dugu huts egin. Orain erabakiko da txartelarena. Kontu handiagoa izan behar dugu, gauza guztiak elkarrekin babestuta egin, laguntzak lortu...

– Ezin dut jarraitu... –moztu zion Adelak–. Buenos Airesera noa.

Claudiok ulertu zion, baina ez zen autobus geltokira joan neska agurtzera. Inoiz esan ez bazion ere, maiteminduta zegoen.

Ignacio Javier Acha eta Olga Koifmann ez ziren harritu semearen militantzia zaletasunarengatik, marxista porrokatuak ziren biak. Necoecheatik La Platara iritsi zirenerako hamabi urteko haurrak ezagutzen zituen Cheren bizitza, iraultza sobietarraren egunak eta Argentinako azken urteetako politikaren gorabeherak.

– Ama, hemen sozialismoa da irtenbide bakarra.

Bazekien, hurbiletik jakin ere, teoriatik praktikara jauzia zegoela, jauzi arriskutsua. Ondo gogoratzen zuen Angel Bengoechea, *El Vasco,* familiako laguna, hil zenekoa. Claudiok sei urte besterik ez zituen, baina haurtzaroko oroitzapenen artean esna zirauen gurasoek eta troskista hark egongelan edukitzen zituzten eztabaiden gomutak, frankotan haien kulunkan lokartu zelako. Bengoecheak 1964an eratu zuen Fuerzas Armadas de la Revolución Nacional gerrillari taldea, eta urte bereko uztailaren 24an hil zen, prestatzen ari zen leherkariak eskuartean eztanda egin zionean. Kolpe latza izan zen. Claudiok lehen aldiz ikusi zituen gurasoak negarrez.

Motxila hori hartuta, hamabost urte zituela sartu zen UESen. Oporretan, peronismoan aritzen ziren beste hainbat gaztek bezala, auzo txiroetako haurrei irakurtzen irakasten zien, eta matea hartzen zuen gero langileekin, kontatzen zizkioten istorioekin txoratuta: borrokak, sofrimenduak, ametsak.

1976ko irailean militarren errepresioa gorigorian zegoen. Ikasleak susmo txarrak hartuta zeuden, La Platako institutuetan gero eta nabarmenagoa baitzen betaurreko beltzeko morroien presentzia. Hezkuntza Ministerioa militarrek kontrolatuta zegoen erabat –Buenos Airesko probintziako hezkuntza arduraduna jenerala zen–, eta leloak ez zuen dudarako zirrikiturik uzten: «Unibertsitateetan, subertsiboen zulo horietan, ordena ezarriko da».

Gazte batzuk desagerturik zeuden jada, Claudio eta Adelaren adinekoak gehienak. Errebindikazioekin jarraitzeko gogo zutenak, hala ere, adoretsu ari ziren. Claudiok eta lagunek bere egina zuten gobernuak ezarri nahi zuen autobusen txartelen prezioaren igoeraren aurkako borroka.

Don Julio taberna zuten kuartel nagusi. Egunero han biltzen ziren, fakultatetik atera eta gero, banana batido famatuak hartu, zigarroren bat edo beste erre, eta ekintza berriak prestatzeko: pintadak, kartelak, komunikatuak, edozer jendearen artean nabaritzen hasia zuten desmobilizazioa gainditzeko. Dekanoaren bulegoan,

anartean, goizero izaten ziren itaunketak, bakoitzaren konpromezu maila ezagutzeko. Mezua garbia zen:

– Borroka hau galduta duzue. Hobe uzten baduzue...

Claudiok bazekien informeak militarrengana iristen zirela zuzenean, eta zerrenda beltzean bere izena azpimarratuta zegoela.

Hilaren 16an, goizeko 02:35etan, atea behera botatzeko moduko kolpeak entzun zituzten 73 kaleko 2.539 zenbakian. Ohean zeuden denak.

– Argentinako Armada! Ekarri armak!

Olga Koifmannek ireki zuen. Sukalderaino bultzatu zuten.

– Liburuak, non daude liburuak eta armak?

– Ez dugu armarik, eta liburu bakarrak haurrenak dira, eskolakoak –erantzun zuen, ahots zartatua.

Atetik, hiru urteko Pablok kuriositate handiz begiratzen zion hamar zentimetrora zuen fusilari, aho distiratsu eta beltzekoari. Amak beregana egin zuen baina ostikada batek galarazi zion.

– Arren, bihotza operatu berria dauka! –erregutu zien militarrei.

– Gauzak gehiago ez nahastu gero! –erantzunak ez zuen kezkarik–. Nor da hau?

Claudio eta aita ordurako pasilloan ziren, militarren kulatek zainduta.

– Seme nagusia, unibertsitatean ikasten ari da...

– Armadaren segurtasun arrazoiengatik gurekin eraman behar dugu.

Olgak Koifmannek 1985eko maiatzean egin zen epaiketan azaldu zuenez, agudo gertatu zen. Bi morroiek Claudio hartu eta korridoretik arrastaka eraman zuten, galtzontzilotan. Amak justu-justu luzatu ahal izan zizkion galtzak, eta laztandu egin zuen pixka bat. Ford Falconak kalean gora desagertu ziren gauaren babesean.

Franciso Lopez Muntaner (16 urte), Maria Claudia Falcone (16 urte), Horacio Angel Ungaro (17 ute), Daniel Alberto Racero (18 urte) eta Maria Clara Ciocchini (18 urte) egun bereko ordu txikietan eraman zituzten. Mario Benedetti, Martin Fierro, The Beatles, Joe Cocker edo Joan Manuel Serrat maite zituzten gazte ameslariok in-

dargabetzeko gaua eta bortizkeriaren botere guztia erabili behar izan zituen Armadak, «estatuaren segurtasunarengatik».

Pablo Alejandro Diaz, taldeko zazpigarren kidea, zain zegoen. Bazekien bere bila joango zirela. Besteen atxiloketak gertatu eta bost egunetara lagun baten etxera joan zen afaltzera.

– Gaur edo etorriko direla iruditzen zait. Nahiago dut sabela beteta itxaron –esan zion lagunari.

Inoiz ez bezala jan zuen. Gau hartan atxilotu zuten, eta zazpien artean bizirik atera zen bakarra bera izan zen.

Urte batzuk beranduago, Desagertutakoen Batzorde Nazionalaren aurrean deklaratu zuenean, Pablok dena kontatu zuen. Kontatu zuen azal kiskaliaren usaina, azkazal erauzien min jasangaitza, «Gora aberria! Gora Montoneroak!» oihuak ondoko ziegatik, kartzelako apaizen konplizitatea torturatzaileekiko, adorea emateko Daniel, Horacio eta Claudiorekin batera abestutako kantak:

Detrás de las paredes

que ayer se han levantado
te ruego que respires todavía.
Apoyo mis espaldas
y espero que me abraces
atravesando el muro de mis días.
Y rasguña las piedras
y rasguña las piedras
y rasguña las piedras hasta mí.

Eta baita *Zamba de mi esperanza*, hori batez ere, denek ezagutzen zutelako.

Kontatu zuen haurra edukitzekotan zegoen neska bat eraman zutela bere ziegara, han utzi zutela, eta mediku sasiko hark esan ziona:

– Laster iritsiko da unea. Beraz, kontrakzioak hasten direnean, hartu taupadak eta gero deitu. Guardiak etorriko dira.

Kontatu zuen taldeko guztiak, eztarria lehertu beharrez, haurra bazetorrela oihukatzen hasi zirenean nola iritsi ziren guardiak, nola eraman zuten neska biluzik, eskaileratan behera.

Kontatu zituen Maria Clara lagunaren erreguak guardiari gauez, afaldu ondoren:

– Ez ukitu! ez ukitu gehiago!

Eta libre utzi bezperan, zaintzaile batek lagunei agur esaten utzi zionean, 18 urteko neskak malko artean egin zion aitorpena:

– Tortura mahaian bortxatu ninduten, aurretik, atzetik... Ezin dut gehiago. Abenduaren 31 guztietan topa egin niregatik. Ni hilda egongo naiz ordurako.

Epaile eta torturatzaileen aurrean kontatu zuen, jakinik ere ez zuela ezertarako balio, lagun guztiei oihukatu ziena eskaileratik gora eraman zutenean:

– Aterako zarete! Denak aterako zarete!

Olga Koifmannek eta Javier Achak La Platako bulego eta erakunde militar eta polizial guztiak zeharkatu zituzten. Guztietan ukatu zieten Claudioren bahiketa, ukatu zieten semea inongo taldek noizbait eraman zuenik ere! Azkenean apezpikuarengana jo zuten. Idazkari batek aurpegira bota zien:

– Ez duzue inoiz gehiago zuen semea bizirik ikusiko.

– Jauna –galdetu zuen amak, erotuta–, baina nola dakizu?

– Zuen semea irailaren 15etik 16ra bitarte atxilotu zuten, ezta?

– Bai, baina nola dakizu?

– Ez duzue berriro ikusiko.

1978ko irailean Suediara erbesteratu ziren.

Claudioren eta beste gazteen nerabetasun akabatutako honi buruz *La noche de los lápices* liburua idatzi zuten Maria Seoane eta Hector Ruiz Nuñezek 1985ean, eta izen bereko filma egin zuen gero Hector Olivera zinemagileak.

River-Boca

– Che! Ezin duk klasikoa galdu!

Osabak antiojoen gainetik begiratu dit, sugarrak hartuta futbolaren aipamen hutsarekin. Duda egin dudanez, epaia eman du:

– Tribunarako sarrerak neuk ordainduta.

Senideekin, areago urrunekoak badira, hala gertatzen da. Elkar apenas ezagutu arren, bisitak enbarazu besterik egiten ez badu ere, urte luzez zure zain egon izan balira bezala mintzatzen dira, galdera asko egiten dituzte familiari buruz, eta euren herriko edertasunak azpimarratzen dizkiote Euskal Herri txiki, atzeratu eta baserritar hartatik sekulan atera ez den lehengusuari.

Bisita egunean River Plate-Boca Juniors futbol partida suertatzen bada, sentitzen dute hori ikusi gabe joatea bekatua dela ia, arduragabekeria ezin onartuzkoa, eta gonbidatu behar dutela etorri berria.

– Ezin duk galdu! –errepikatzen dute denek.

Ez nuen deitzeko asmorik, baina denbora gehiegi joan zait hemendik hara presaka, egun batez lasai aritzeko betarik gabe. Solasaldi hutsal bat, bazkari goxoa, horrek ez zidala kalterik egingo pentsatu dut, burua askatu nahi dut-eta apur bat. Egia esanda, ez dut damu etorri izana.

Aurpegiera ederra eman didate atera azaldu naizenean, eta ahalegin guztiak egin dituzte egiten ari naizenaz ahal bezain gutxi hitz egiteko. Haiek ez dute jakin nahi. Nik, gaur, ahaztu egin nahi dut. Eskertu diet.

Muga horrekin, denetaz aritu gara solasean bazkarian. Txerri konfitatuari ekin diogu hasieran, argentinar erako papak eta txahaltxo errearekin jarraitu dugu eta, postrerako, amonak egindako txokolatezko tarta hartu dugu. Etxea, bazkaria, zerbitzaria... zortea izan dute, ez zaie ezer falta.

Kafea mahaian jarri dutenean atera da gaia: futbola, jakina.

– Hara, guk ez ditugu mundial gehiago irabazi ez dugulako nahi izan –azaldu dit, serio, osabak.

Bost urte zituela egin zuten River Plateko bazkide. Biloba jaio berriak badu jada karneta. Hemen erlijioa da ia. Etxeko beste guztiek –izekok, bere amak, lehengusuak, zerbitzariak– baietz egiten dute buruarekin, eztabaidarik ametitzen ez duen egia baita Argentinak, okela eta futbol kontuetan, ez duela parekorik.

Whisky botilarekin batera atera du mahaira bere taldearen historia biltzen duen liburua. Inoiz entzun ez ditudan izenekin zorabiatuta –«Pederneras, Muñoz, Pontoni, De la Mata... denak Di Stefano bezain onak»– nik Ardiles aipatu diot, zerbait esateagatik.

– Niri gustatzen zitzaidan –desenkusatu naiz.

Maradonarengana iritsi gara, nola ez. Aste honetan egunkarietako azalak bete ditu, klasikoa jokatuko bai jokatuko ez eztabaidarekin. Futbolari jenial honekin gorroto-maitasun harreman eskizofreniko samarra dute argentinarrek, ezin kontrola dezaketena.

Hamaika aldiz zin egin du, jainkoaren eta gizasemeen aurrean, sekula ez zela itzuliko Argentinako talde batera, baina aurten fitxatu du Boca Juniorsekin, River Plateren talde antagonikoare-

kin. Zale askok uste zuten ez zela inoiz jokatzeko moduan izango, bi urte zeramalako partida ofizialetan parte hartu gabe, baina lehen jardunaldian, egin zituen maitemintzeko moduko jokaldiei esker, Bocak irabazi zuen. Bigarren partidaren ondotik egin zitzaion analisian positiboa eman zuen: kokaina. Drogaren mamua berriro ere.

Esan izan dute orain bai, betiko erretiratuko zela, utziko zuela Argentina, baina... klasikoaren atarian azaldu da. Eta denak txoratuta dauzka bere showak. Baita River Platekoak ere.

Astelehenean entrenamendura joan zen ustekabean, ez nolanahi joan alajaina: erosi berria zuen kamioi izugarria –500 CVko kabina puska– eraman zuen. Hantxe aparkatu zuen, zelai bazterrean. Hurrengo egunean komunikabide guztietan ez zegoen beste berririk: «Maradonak jokatuko ote?». Asteartean Buenos Airesko kaleetan salgai zeuden bi taldeen elastikoak, posterrak, partida telebistaz ikusteko deskodifikadoreak...

Asteazkenean kamioia garajean utzi zuen: Ferrari gorria aukeratu zuen orduan. Jokalarien-

tzako aparkalekuan toki egokirik ez nonbait, eta futbol zelaira sartu zuen autoa. Saioan estu samar aritu ziren jokalariak, baina denak pozik. Izar handia euren artean zen.

Eguna hurbildu ahala ikusmina gero eta handiagoa da, morboa dario toki guztietatik norgehiagokari. Adibidez, litekeena da Caniggiak ere jokatzea. Maradonak bezala, aurrelariak arazo gogorrak izan ditu kokainarekin, eta Italiara izarren moduan joan ondoren burumakur itzuli behar izan du, izen eta osperik gabe.

– Maradona eta Caniggia tano-ek izorratu zituzten –dio osabak.

Tano-ena –italiarrak, alegia– garbi utzi nahi izan du osabak.

– Europan gaizki jokatu dute argentinarrokin.

Kopa bigarrenez bete dit. Halako batean aurpegi larria jarri zaio, eta giroa ere seriostu egin da. Badakit zerbait inportantea esan behar didala, denak isildu eta niri begira daudelako. Ni ere erruduna ote naizen pentsatzen hasi naizelarik bota du azkenean:

– Inbidia digute, guk bi mundial irabazi ditugulako.

Besteek berretsi dute baieztapena, buruarekin. Arnasa hartu dut eta tragoa egin diot whiskyari, ospatzeko.

Bi jokalariok, Maradona eta Caniggia, heroien gisa hartu zituzten Argentinara itzuli zirenean, kontinente zaharrekoen mesprezu aspaldikoaren biktimak bailiran, baina Estatu Batuetako futbol lehiaketan Maradonari kokaina arrastoak aurkitu zizkiotenean, Argentina osoa gelditu zen sinetsi ezinik. Mitoa haragizkoa zen, eta gainera kokainazalea.

– Min handia egin zigun –onartu du osabak–. Txapelketarako faboritoak ginen, sekulako taldea genuelako, baina hark hautsi egin gintuen. Jokalariek iparra galdu zuten, eta harrezkero noraeza hasi zen jokoa banatzen.

Argentina berehala kanporatu zuten. Jende askok ez dio barkatu Maradonari.

Boca Juniorsekoek bai. Aurrelaria talde honekin jokatutako denboraldiei esker famatu zen mundu osoan, eta bera bosteroa izan da beti gero. Hemengo zaleentzat jainkoa da. Bere gehiegikeria guztiak ahaztuta gelditzen dira zamarra hori-urdina janzten duenean. Gainera,

orain mundu guztiak badaki drogazalea dela, ez besterik. Caniggia eta beste batzuk bezala, jokatzeko eskubidea errebindikatzen ari da: ez duela kokaina erabiltzen hobe jokatzeko edo fisikoki emaitzak igotzeko, baina menpekotasuna duelako. Hortxe dago eztabaida.

– Begira ezak, motel, Bocakoak burutik fanda daude.

Kalean jada entzuten dira Libertadores etorbidea ziztu bizian zeharkatzen duten autoen turuta hotsak. Osabak Riverren alde egingo dudala ziurtatu nahi du, jakina.

– *Bambino* Veirak, Bocakoen entrenatzaileak, duela gutxi epaiketa izan zuen gaztetxoekin harreman sexualak edukitzeagatik. Ez du aulkian esertzeko inolako eskubiderik!

Partidak piperrik beharko balu hor legoke Maradonaren eta Riverko entrenatzailea den Ramon Diazen arteko ika-mika. Biak selekzioko jokalariak ziren garaian, Maradonak betoa ezarri zion *Pelado* Diazi, honek salatu zuelako droga hartzen zela jokalarien artean. Geroztik ez diote elkarri hitz egiten, eta jakinmina badago bien erreakzioa ikusteko. Jokalariak iragarri du boste-

koa luzatuko diola. Entrenatzaileak esan du ez dakiela onartuko duen.

– Tira, toki ona lortuko badugu abiatu beharra daukagu –martxan jarri gaitu osabak. Mahaitik altxatu garenean besoa sorbalda gainean jarri dit, paternalki:

– Gaur ikusiko duk zer den futbola.

Osaba aurreratu da txartelak hartzera. Guk oinez egingo dugu bidea, ordu erdikoa edo. Zelaira hurbiltzen garen heinean gero eta urduriago antzematen ditut lehengusua eta laguna. Riverkoak dira, jakina, *oiloak*, amorratuak gainera. Euren auzoan badaude ere, mesfidantzaz eta kezkaz ikusten dute gero eta bostero gehiago dabilela inguruan. Saiatzen naiz txantxak egiten, baina ez daude bromatarako. Niretzat jaia da hau, beraientzat borroka.

Poliziaz inguratuta dauden zaleekin ez topatzeko itzulingurua egitea erabaki dute. Ziurtatu didatenaren arabera, hildakoak izaten dira askotan River-Boca derbietan, haien estadioan partidak direnean astakeria izugarriak egiten dituzte,

eta Monumentalera –Riverren futbol zelaia– etortzen direnean oso biolento jarduten bide dute. Basapiztiak nonbait.

Orain arte ikusi dudanarengatik ez zaizkit Riverkoak baino arriskutsuagoak iruditu, baina kale batean aurrez aurre aurkitu dugu Bocako urdina eta horia aurpegietan marraztuta daraman taldea. Guk ez dugu ezer Riverrekin goazela erakuts dezakeenik. Hala ere, beraiekin gurutzatzean nabarmen jaitsi ditugu begiak, edo azkartu egin ditugu urratsak edo, besterik gabe, *oilo* aurpegia dugu, haietako batek oihu egin baitigu:

– *Oilo* aurpegia duzue gero! *Oiloak* zarete, ezta?

20 urte inguruko mutikote puska ez da txantxetan ari, benetan haserre dagoela ematen du. Ni berari begira gelditu naiz, estatua bati edo indioilar bati begiratzen zaion bezala, beste asmorik gabe. Gelditu egin da bera ere. Niregana etorri ez etorri dago.

Segundo bat izan da. Amorru izugarria irakurri diot begietan, urtetakoa, betikoa. Lehengusuak besotik tira eta aurrera bultzatu nauenean

erreakzionatu dut. Urruntzen garelarik, pare bat irain mastekatu ditu oraindik ere bosteroak –errebaleko hizkera zoragarrian eraikitako irain porteñoak, benetako arte-lanak–. Gero buelta eman eta lagunen atzetik jarraitu du.

– Tira, ez da hainbesterako izan... –haserre diruditen lehengusu eta lagunarekin estakuruka ari naizela, burua irekita eta kamiseta odoldua duen Riverko jarraitzaile batekin topo egin dugu.

Kale-kantoi guztietan jende-mugimendu urduriak dabiltza. Horren inozoak izateagatik, otsoaren ahoan sartzeagatik maldizioka, kaleska bat hartu dugu eta iritsi gara, azkenean, estadiora. Hemen denak dira Riverkoak. Kolorea itzuli da gure musuetara.

Partida hasteko bi ordu falta dira zelaira sartu garenean, baina ia beteta daude harmailak. Jendea saioak egiten ari da kantekin eta leloekin, gero etorriko denaren erakusgarri. Ate baten atzealde osoa da Bocakoena. Gainontzekoa, River. Helikoptero bat estadio gainean hegaldatzen ari da, tai gabe.

Hemen ez dago nahasterik, ez adiskidantzazko keinurik. Gorroto handia dago jarraitzaileen

artean. Argentina osoan esaten da Bocakoak direla erdia eta bat gehiago, baina kirol arloan River izan da beti nagusi.

Dale Boca, dale Boca
que vamos a ganar
y en el 97 la vuelta vamo'a dar
En la Argentina
hay una banda
que es la gloriosa número 12;
te sigue siempre
a todas partes
no como River que es vigilante

– Zerri hauek estadioa hautsiko dute... –osaba inoiz ez da ohituko bere estadioa bosteroez beteta ikustera. Eta Poliziarekin parekatzen dituen abesti hori entzutera.

Partida hasteko hamar minutu falta direnean bi tarte handi ireki dira porterien atzeko harmailetan. Ordura arte lepo betetako tokietan porlanezko lerro luzeak ikusten dira orain, ondo gizahesituta, norbaitek toki hori aurrez hartua balu bezala. Tentsio berezia arnasten da. Kantak gero

eta beroagoak dira. Hutsik gelditu diren tarteetan talde bakoitzeko zale sutsuenak –*barras bravas*– sartu direnean, eraikina erortzeko moduko zalaparta egin da.

Orroak lehian dira orain inoiz baino gehiago. Eszenografiaren une gorena da. Mundu guztia ari da kantuan eta dantzan. Porlanen gainean egiten dituzten saltoek gerrarako danborren soinua dute. Kamisetarik gabe, bular hutsik, zaleek elkarri egiten diote desafioa. Ez dira taldea animatzen ari, baina pare-parean dituztenak beldurtu eta kikildu nahi dituzte. Ikuskizun tribala da, primitiboa ia.

Bi taldeak zelaira ateratzerako eromena!

Azkenean 1-2. Aurreratu dira txurigorriak, baina Bocakoek buelta eman diote partidari european, epikoki ia, barrukoak jota. Amorrua eta etsipena izugarria da Riverkoen artean, eta kantuekin nahastuta irainak entzuten dira asko. Baita oihu arrazistak ere. Bocako aurrelari kaskazuriak bigarrena sartu duenean osaba altxatu eta kanpora joan da. Ezin izan du jasan.

– Javier!

– Bai?

– Izan nintzen klasikoan! Irabazi egin genuen!

– Zer iruditu?

– Izugarria. Eta hara, txorakeria irudituko zaizu agian, baina partida ikusten ari nintzela pentsatu nuen, ez dakit zergatik, torturatzaileak, errepresoreak, Riverkoak izango zirela gehienak.

Ez zuen erantzun, baina telefonoz bestaldetik barre egiten zuela iruditu zitzaidan.

Tello Biskaiart anaiak

1978ko munduko futbol txapelketa hasi bezperan, La Plata hiri ondoko ontziola batean, Rafael Tello Biskaiart azken ukituak ematen ari zitzaizkion txalupa zaharrari. Kresalak usteldurikо oholak aldatuta eta motorra garbituta, pintura besterik ez zen falta. Arratsalderako bukatuko zuela kalkulatu zuen. Orduan ontzia prest egongo zen Avellanedara edo Buenos Airesera, Rio de la Platako itsasertzetik gora eta behera, merkantziak berriro garraiatzeko.

Rafaelek, urdina nahasten zuen bitartean, bezperan nagusiarekin izaniko solasaldia zuen buruan.

– Lanak behera egin du nabarmen, badakizu, eta egoera larria da –esan zion Rafaeli, berak egiten baitzuen langileen ordezkaritza lana–. Ez dakigu ordainketak garaiz egin ahal izango ditugun...

– Garrantzitsuena da inor kanporatua ez izatea –ihardetsi zion berak.

Etxean moldatuko ziren, gastu handiak ez zituzten inoiz izan, baina egia zen gero eta lan gutxiago zegoela ontziolan. Goiz hartan ajeak jotako hiru txalupa, besterik ez.

Anaiarengandik gertu, Pablo Tello lankide batekin eztabaidan ari zen Argentinako taldeak txapelketan egin zezakeenaz.

– Kempesek dakiena erakusten badu, Argentina txapeldun.

– Baina ché, Holandak oso talde ona du, eta Frantzia eta Alemania?

Zenbat aldiz eztabaida bera! Rafael, batzuetan, haserretu egiten zen, bazirudielako diktadurari dena barkatuko ziotela kopa preziatua irabazten bazen. Baina pareta buruarekin jotzea bezala zen. Bi anaiek militatzen zuten talde anarkistaren bileretan ere maiz amaitzen zuten futbolaz hitz egiten.

Brotxarekin, kontu handiz, egurra estaltzen hasi zen. Arratsalde hartan berriro joango ziren anaia eta bera hainbestetan ikusitako orubera, behingoz erabakitzeko erosiko zuten edo ez. Etxea egiteko aukera polita zen, oso garestia ez, bi familientzako adinakoa bai. Azkenean ausar-

tzen baziren, Parisen erbesteratuta zegoen amari esan nahi zioten itzultzeko, familia berrosatzeko.

Puskatzen hasia zen familia berrosatzeko. Hiru urte lehenago Marcelo anaia desagertua zen Cordoban. Viviana Serafini, bere andrea, Brasilera alde egina zen bera ere atxilotu zezaketelakoan. Hain zuzen Marcelo anaiak errepikatzen zuena aintzat hartu beharko zuten orduan:

– Garai zailak datoz milicoekin; horiek, behin hasita, ez dute atzera egingo. Bada garaia erretirada estrategikoa egiteko: ezkutatu eta pentsatzeko.

«Ezkutatu eta pentsatu», horixe egingo zuten. Kartelak jarri eta idazkiak kaleratu, horra taldearen subertsio guztia, baina bolada gogorra zen benetan. Rafael eta Mariana emaztea bederen uste horretakoak ziren, txikiengatik batez ere.

Larzabaleko (Nafarroa Beherea) artzain baten bilobek, Tello Biskaiart anaiek militantzia bolada batez uzteko erabakia hartua zuten.

– Argentinako Armada! Denak lurrera!!

Agindu lehorrak erauntsiak legez eten dizkio gogoetak. Filmetan bezala, lantegiaren atetik sartzen ari diren militarrek amenjesus batean hartu dute tokia. Haietako bat Rafaelengana hurbildu eta kulataren kolpeaz lurrera bota du. Pintura urdina marea bezala zabaldu da porlanezko zoruan.

Rafaelek berehala pentsatu du euren bila datozela, eta Marianarekin gogoratu da. Militarren buruak, ordea, langile guztiak atxilotzeko agindua eman du, nagusia barne. Rafaelek Pablori begiratu dio. Honek, lurretik, keinu harritu bera itzuli dio.

Kamioira igoarazi dutenean, fusilen ahoak sentitu ditu sorbaldara zuzenduak. Lankideei erreparatu die. Gehienak horixe dira, langile hutsak. Kolpe militarra baino lehenago sindikatuan aritu ziren bakanek ere desagerpenen lehen berriak iritsi zirenean utzi zioten militantziari. Sinetsi ezinda daude orain denak.

Kamioia martxan jarri da. Atxilotutakoekin bi soldadu. Atzetik, beste kamioi batean, gainontzekoak. Ekintza garrantzitsua da noski. Rafae-

lek ezin du asmatu zergatik. Ordu erdiko bidaia eta taldeko buruaren ahots larria berriro:

– Jaitsi denak!!

La Plata inguratzen duen errepide ondoko bideberrian daude, eukalitu-baso baten muturrean. Asfaltoa hor bertan amaitzen da. Larrea dago bi aldeetan eta bide-bazterretan ur asko, olio poteek eta txatarrak usteldutako ura. Toki lasaia da hala ere, apartatu samarra; lekukorik ez izateko ona, oso ona.

Haizea dabil fina. Rafaelek ulertu du. Izerdi hotsa lehertu zaio gorputz osoan militarren nagusiari entzun dionean:

– Aurrerago, lerroan!

Artalde izutua dira hamalau lagunak soldaduak aurrean jarri eta fusilak bular parean jarri dizkietenean. Norbaitek protestatu nahi duela iruditzen zaio, baten baten arrenak entzun ditu.

– Baina... honela hilko gaituzue?

Eta bera kontatzen ari da, begiak itxita.

– Bat, bi, hiru....

Ez daki zergatik baina kontatzen ari da.

– Zortzi, bederatzi, hamar...

– Igo denak atzera!

Eta berriro gora. Eta hamar kilometro aurrerago, bestearen fotokopia dirudien kamio bazterrean, berriro parodia krudela, eta kapitainaren barre urduria, eta soldadu baten –haur bat ia– begiak, su txatar bi eginik. Kontzentrazio esparrura iritsi arte beste bi aldiz jaitsiaraziko dituzte denak, berriro igotzeko.

Ziegetan sartu dituztenean ez dakite, baina Mariana eta Maria del Carmen ere –Pabloren emaztea– arratsalde hartan bertan atxilotu dituzte, umeen aurrean. Gau hura tortura zentro berean egingo dute laurek, denak bereizirik.

Urte oso garrantzitsua izan zen militarrentzat 1978koa. Bi urte bete berriak zituen diktadurak, eta errepresioarengatik ordura arte jasotako kritiken ondotik itxura ona eman nahi zuten futbol txapelketarekin iritsiko ziren kazetarien eta agintarien aurrean. Arazo nagusia gainera –gerrillari taldeak–, soluzionatuta zegoen: Montoneroen taldeko ehun bat lagun baino ez ziren gelditzen Argentinan. Beste talde handia, ERP, hori ere txikituta zegoen: Mario Santucho buruzagia segada

batean harrapatu ondoren estrategiarik gabe, taldekide gehienak atxilotuta edo hilda.

Tamainako efikazia lortzeko militarrek lana banatu zuten, hasieratik. Marineriak montoneroak harrapatuko zituen, lurrekoek ERPkoak. Kolpea eman eta lehen hilabeteetan usapalak sareetan bezala erori ziren militanteak. 1977ko hasierarako zuzendaritzak erbestean ziren. Argentinan eusten ahalegintzen zirenek ez zuten inolako loturarik elkarren artean, ez zegoen moralik. Ez zegoen zer eginik. Batzuek garbi ikusi zuten, eta hala ere buruzagiek dei egiten zuten erresistentziarako, borrokarako. 1977 hilerria izan zen. Hamar mila militante izatetik ezerezera.

Gehiegizkoa atzerrian horren berririk ez izateko. Kanpoko gobernuen presioa handia inoiz izan ez bazen ere –komertzio hitzarmenak eta interes ekonomikoak, jakina–, gobernuak normalitate itxura eman nahi zuen. Horrek salbatu bide zituen Mariana Arcondo eta Maria del Carmen Resano, Rafael eta Pabloren emazteak. 1976an atxilotu izan balituzte gaur ez ziratekeen bizirik izango.

Rafael eta Marianaren semeak zabaldu dit etxeko atea, La Plata hirian. Mutiko luze eta garaia da, mototsa atzean lotuta duena.

– Ongi etorria. Ama berehala iritsiko da.

Irrista batean begiratu dut etxea matea prestatzen duen bitartean. Egongela argitsuan eskegita dituzte Picassoren *Guernica* eta Bartzelonako Diagonal kaleko argazki handi bat. Pasillo luzearen alde batera hiru logela daude, eta beste aldera, patio txiki bat, landarez betea. Ez da inolako luxurik, baina oso atsegina da, argiarengatik akaso.

Pipari lehen zurrupada eman diodanean azaldu da Mariana. Emakume polita da, interesgarria. Berrogei bat urte, kaskazuria, begirada eta hizketa modua oso erakargarriak dituena. Begi grisak, ezpain lodiak; adinak xarma eransten dionetakoa. Indarra komunikatzen du, grina. Arerio zaila borrokan, dudarik gabe. Garbi hitz egiten du, gordinik azaltzen ditu gertaerak eta oroitzapenak, baina sentiberatasun apartekorik gabe. Horrek harritu nau hasieran, baina gero konturatu naiz beste mota bateko mina dela

berea, isilagoa, ez oso agerikoa baina oso sakona, oso barneratua.

Kontzentrazio esparrura iritsi eta berehala, burua estalita eta eskuak eta hankak lotuta, korridore baten bazterreko bankuan eserarazi zuten Mariana.

– Ordurako banekien gutxi gorabehera non nengoen. Arkitektura ikasi nuen, eta bidean kaputxaren azpian entzun nituen zaratekin –autobidea, abioi bat, asfaltorik gabeko lurra, orain ezkerretara, gero eskuinetara–, traza hartu nion inguruari: La Plata ondoko eraikin militar bat zen.

Zaindari batek araudien berri eman zion berehala. Aurrerantzean G-28 izango zen bere izena, hori erantzun behar zuen izena galdetzen ziotenean. Arcondok, temoso izaki, ez zuen agindua begiratu nahi izan. Bere izenarekin erantzuten zuen beti, oihuka erantzun ere.

– Asmo bakarra nuen –adierazten dit matea ematen didan bitartean–. Rafaelek jakin behar zuen ni ere barruan nintzela atxilotuta. Horregatik, izena galdetzean «Mariana Arcondo!» erantzuten nuen. Jotzen ninduten, baina hurrengoan

berdin oihukatzen nuen. Bospasei aldiz galdetu ondoren bakean utzi ninduten.

Ordurako Rafaelek bazekien emaztea ere barruan zegoela.

– Gela batera eraman ninduten gero. Han zegoen psikiatra bat torturatu berria, garusain fuertea zuena. Militar batek esan zidan: «Orain egingo dinate itaunketa, eta ez eutsi, okerrago izango dun eta. Galdeion bestela honi, ea zer den hobea». «Eutsi flaca» esan zidan gizon hark. Lehertuta zuten, baina hori esan beharra zegoen, eutsi egin behar zitzaion ahalik eta gehien lagunek jakin zezaten norbera atxilotuta zegoela, denbora izan zezaten alde egiteko. Hor erabakitzen zen erakundearen patua. Haiek desegin nahi zuten erresistentzia zen oro, horregatik jazarpena etengabekoa zen. Itaunketa egiten zuten bitartean ahalegintzen ziren izen berriak ateratzen, ideia zutelako jendeak babestu egiten zituela bere lankideak, bere taldekideak, baina ez erresistentzian zebiltzan gainontzekoak.

Mariana korridorean zen berriro psikiatra, konorterik gabe eta bi guardiek helduta atera zutenean. Gorputz erreen kiratsa are nabarmenagoa

zen. Gero Rafael ikusi zuen, tortura-gelarako bidean bera ere. Kaputxa batek burua estaltzen zion eta ezin izan zion ezer esan.

Hiru egun zeramatzan barruan azkenean Rafaelen ziegara eraman zutenean.

– Militarrek nahi zuten bietako bat biguntzea. Sinestarazi nahi ziguten batek dena aitortzen bazuen bestea salbatuko zela. Guk, ordea, uste genuen ez ginela handik aterako, tortura bukatuta hil egingo gintuztela. Noiz arte iraungo zuen, hori zen duda bakarra. Horregatik egin zitzaigun harrigarri hiru urte zeraman jendea han topatzea.

Kontzentrazio esparru guztietan izan ziren kolaboratzaileez ari da Mariana. Gai zaila eta konplikatua, urte batzuk «laguntzen» egin ondoren haietako zenbait azkenean berdin-berdin hil zituztelako militarrek. Baina bizirik atera ziren gehienentzat benetako traidoreak izan ziren, taldekideak salatzearen truke pribilegioak lortu zituztenak.

Miguel Angel Lauletta *Caín*-ek, kasu, milaka agiri faltsifikatu zituen ESMAn atxilotutakoen ondasunak –etxeak, autoak, kontu korronteak– mi-

litarren eskuetan uzteko. Lan hori bera egiten zuen Montoneroetan militatzen zuen garaian. Tortura zentro hartatik bizirik atera ziren askok leporatzen diote taldekide ohiak entregatu zituela, eta behartu zutenaz harantzago joan zela bere kolaborazioarekin. 1979an militarrek libre utzi zuten, beste nortasun bat eman ondoren. Desagertutakoen zerrendan, bere izenaren ondoan, «desagertua» irakur daiteke. Egun bolondres lan egiten du parrokia batean. Bera bezalako asko izan ziren. Emilio Massera almiranteak, errepresioaren ideologoak, alderdi politiko bat eratu nahi izan zuen haiekin guztiekin.

Mariana eta bere senarrarentzat egunak motel, esperantzarik gabe igarotzen ziren barruan. Pabloren joan etorriak tortura gelara etengabekoak ziren, zapatak kendu behar izan zizkioten arte, hankak erabat puztuta zituelako pikanaren eraginez. Rafaelek eta Marianak ere maiz egin zituzten bisitak tortura gelara. Pare bat aldiz benda kendu zieten begietatik, ikus zezaten torturatzeko zuten tresneria makabroa. Horrek areago goibeldu zuen andrea, barruan

esaten zelako benda kendu ezik libre gelditzeko aukera handiak zirela.

Egun batez «hau perrexila da» entzun zion torturatzaile bati, alegia, ez zela garrantzitsua. Ez zuten berriro torturatu.

– Sartu eta bi astera, patiora atera gintuzten denak. Ziegak desinfektatu behar zituzten nonbait. Gu sartu ginenean laurogei ginen; ehun eta berrogeita hamarreko taldea osatu genuen patioan.

Kaputxaren azpitik, Rafael sumatu zuen ondoan.

– Zertaz hitz egiten zenuten barruan? –galdetu diot.

Semea elkarrizketa osoa jarraitzen ari da, adi-adi, baina elemotz. Listaria darabil eskuartean elkarrizketa osoan. Tartean behin gelditu egiten ditu eskuak eta amari begiratzen dio. Gero jarraitu egiten du.

– Kontu intimoak ziren gai bakarrak: norbait ateratzen bazen haurrak zaintzeko, ea esperantzarik bazegoen...

Astebete beranduago zurrumurrua zabaldu zen atxilotu batzuk legeztatu behar zituztela.

Mariana eta Maria del Carmen libre gelditu ziren. Hilabete beranduago beste lagun bat atera zen, eta esan zien Rafael bendarik gabe zebilela barruan. Hori seinale txarra zela.

– Uztailaren 15ean «trasladatu» zituzten, hau da, hegaldi famatu horietako batera eraman zituzten.

Kanpora libre atera izanak ez zuen sofrimendua baretzen; aitzitik, inoiz larritu ere egiten zuen.

– Denok egiten genuen gauza bera: kartelak itsasten genituen paretetan, diktaduraren aurka hitz egiten genuen fakultateetan... zergatik atera baino zergatik atxilotu gintuzten. Hori da gure galdera.

Giza eskubideen batzordeetara joatea izan zen atera osteko lehen lana. Eta Amengana jotzea.

– Barruan lagun batek esan zigun ohartarazteko kanpokoei Amei indar guztiekin babestu eta lagundu behar zitzaiela, min handia egiten zutelako kuarteletan. Militarrentzat oso deserosoa baitzen hura, borrokarik latzena: armek ez zuten balio haien kontra, amen sentimendua zegoela-

ko han, erraietatik ateratako zerbait. Ezin zuten ezer egin.

Baina urteak joan dira, eta denboraren higadurak itxaropenak eta animoak ere poliki amatatzen ditu. Ezarian heltzen den heriotza ikusezin hori da makurrena.

– Gogoa, esperantza ere hiltzera behartzen zaituzte. Hori da gogorrena. Doluentzat badira epe desberdinak: bi urtera egiten da hildakoena, baina desagertu batena? Hori ez da inoiz bukatzen.

Tello anaien hiru emazteek –alargunak? bizialargunak?– elkarrekin eraman zuten borroka, eta gogor saiatu ziren fronte guztietan. Suediako enbaxadatik indarrez atera behar izan zuten Mariana bere seme-alabekin, Frantzian zegoen anaien amak errepikatzen ziolako herri horrek laguntza handia ematen ziela senitartekoei, tematzeko enbaxadorearekin hitz egin arte. Hiru izateak ere asko lagundu zien egoera aurrera eramaten.

– Denok bizi genuen egoera hura familia barruan, etxean. Bazegoen beldur handia, eta baita sentimendu bat ere gizartetik kanpo geldi

gintezkeela etxean desagertutako bat edukitzeagatik. Horregatik, etxetik kanpo ez genuen horretaz hitz egiten.

Buenos Airesen bezala, beste hirietan ere amak eta desagertutakoen senitartekoak kalera ateratzen ziren astero familiarren aldarri egiteko. 1984ko egun batez, militarren ardura ikertzen ari zen garaian, La Platakoen bilkuraren aurrean gobernuko idazkaria azaldu zen.

– Ni han nintzen seme-alabekin, beti bezala. Gobernuko norbaitek aintzat hartzen gintuen lehen aldia zen, gauza handia beraz. Idazkari hark, orduan, esan zuen gobernuak ahalegin guztiak egin nahi zituela desagertutakoen seme-alabak aurkitzeko, «desagertutakoak hilda daudenez, haien alde ezin dugulako ezer egin».

Marianari damu-min gorde guztiak hantxe lehertu zitzaizkion. Ordurik gaziena izan zen hura. Seme-alabei eskuetatik oratu eta espaloi batean eseri zen. Umeak gogor besarkatzen zituen bitartean negarrez hasi zen. Negar errea.

– Nik banekien hilda zeudela, baina hitz horiek entzun nituenean konturatu nintzen barru-barruan oraindik banuela esperantza txiki bat bi-

zirik aurkitzeko. Jende askok esaten zuen lanean zeudela denak Armadarentzat, giltzapeturik oihanean, edo Brasilen edo Txilen, edo Europan... Bagenekien zaila zela, baina zurrumurru horiek elikatzen zuten gure itxaropena.

Marianak CGT sindikatuan lan egiten du gaur egun, unibertsitatean. Duela gutxi, Bartzelonara egindako bisita batean, ikusi zuen telebista saio batean *Turco* Julian torturatzaile famatua. Izuturik gelditu zen, basapiztia orain izar bilakatuta. Berriki ere, sindikatuko egoitzan zegoela, bera egon zen tortura zentroko zaindari bat ezagutu zuen, eskaileretatik gora heldu zena.

Bihotza gelditu zitzaion. Burura zetorkion barruko suarekin batera sumatu zuen izu-ikara handia, hanka egiteko gogoa. Eutsi zion gogorrago heldulekuari eta aurre egin zion. Bere parera iritsi zenean begietara esan zion, lasai baina halako bat zintzurrean:

– Alde egin ezak hemendik.

Inguruko guztiek berehala ulertu zuten. Torturatzaileak ere bai.

– Hitz egin dezagun lasai...

– Alde egin ezak agudo!!

Alde egin zuen.

– Horixe da jarrera bakarra –garbi dauka Marianak–, erakutsi behar zaie badakigula non dauden, zein diren, eta ez dugula ahaztu.

Gaur egun dagoen kontzientziarik ezak biziki amorrarazten du, izu garaian gizarteak hartu zuen jarrerak baino areago.

– Azken aldi honetan jazarpenak eta baztertzeak gertatzen ari dira gure unibertsitatean, politika dela-eta. Joan nintzen hori guztia salatzera idazkari batengana eta esan zidan ezin zuela ezer egin. Bera desagerturik egon zen militarren garaian eta torturak jasan zituen, baina orain onartzen zidan ezin ziola ezer esan izorratzen ari zen horri, bere alderdi politikokoa zelako. Horixe, gauza bera gertatzen zen diktadurapean! Militar edo apaiz batengana joaten baginen beti esaten ziguten ezin zela ezer egin, baina beti egin daitezke gauzak. Horregatik ez genituen inoiz besoak jaitsi. Haurrei jakinarazi behar diegu zein izan ziren beren aitak, maitasunez, pankartekin edo leloekin azaldu behar diegu borroka egin zutela diktaduraren kontra, horregatik hil zituztela. Hori guztia azaldu behar diegu ez borrokalari handiak

garelako, ez, baina desagertutako batek behartzen zaituelako beti, egunero. Hori ezin duzu inoiz ahaztu.

Salvador Arestin

Behiala, Buenos Airesko etxekalteentzat ez zegoen Mar de Platako kasinora joatea bezalakorik. Hiriburuko Palermo edo Belgrano auzoko jatetxe dotoreetan bife hartu ondoren auto amerikarretan abiatzen ziren barnealderantz jotzen duen errepidea hartuta, eta gaueko ordu txikietan iristen ziren Miarritze argentinar honetara. Han sosak xahututa eta txanpaina ausarki edanda –*bien frappé*, jakina–, goizaldean hartzen zuten itzulerako bidea, hiribururako.

Gaur egungo errepideak zerikusi gutxi dauka ordukoarekin, Menem lehendakariak bideekiko duen setari esker 35 pesorengatik autobidez egin daitekeelako bidaia, bost bat ordutan. Tokia, ordea, ez da asko aldatu, oraindik porteñoen aisialdirako eginiko hiria baita Mar de Plata. Udatiarrak diren guztiak bezala, udan salbu triste, hotz eta desatsegina.

Itsasoa mehatxuka dabil itsasertzean, eta Parana ibaiaren bokalean nagusi den lohitasun bera ikus daiteke hemen ere. Orain badakit ez

dela jotzen duen haizea, honaino iristen den kutsaduraren ondorioa baizik.

Eguraldia ez dago hondartzarako, baina harearen gainean dozena erdi gorputz tematzen dira orain bai orain ez berotzen duten eguzki-izpiak xurgatzen. Ondo-ondoan, agureek bazkalondokoa uxatzen dute kubo metaliko astunekin pilota txiki bat jo nahian. Kamingainean bi gaztek tomate eta gaztazko pizza jaten dute musuka aritzen ez diren tarte laburretan, eta hondartzaren erdian-edo dagoen hotel zahar batetik iristen dira hiriburuko jubilatu taldeen oihu urduriak. Aurrezki kutxaren batek antolatutako olinpiada jokatzen ari direnez, auzo bakoitzaren izena marraztuta dute kolore biziko petoetan.

Hiriak ez du alde handirik duela hogeita hamar urte Salvador Arestinek lehendabiziko aldiz ikusi zuen Mar de Plata harekin. Salvador eta Pilarren seme nagusiarentzat hirugarren bizitokia zen: Errenterian jaio eta koskortu zen, Patagoniako Rawsonen gizondu eta hezi, eta hemen, Mar de Platan, bukatu zituen ikasketak, ezkondu zen, eta egin zen abokatu. Hementxe

bahitu eta torturatu zuten. Hemen desagertarazi.

– Ni joango nintzateke Errenteriara –azaldu dit Salvador Arestin aitak–, baina andrearentzat bidaia luzeegia da.

– Gainera, hemen ditugu bilobak, Salvadorren seme-alabak –dio Pilarrek–. Hori da gelditzen zaigun bakarra.

Hondartza parean dagoen logela bakarreko etxebizitza txiki eta tristean semearen argazkiak du toki aukeratua: dena betetzen du. Bi galiziar hauentzat bizitzak interes oro galdu zuen 1977ko uztailaren 6an, armaturik zeuden bi lagunek Salvadorren bulegoan sartu eta semea eraman zutenean.

– Bi beso genituen, eta bakar batekin gelditu ginen.

Salvador aita 17 urte zituela iritsi zen Euskal Herrira, Trintxerpera. Galiziar asko bezala, marinel, Pasaiako itsasontzietan lan egitera. Han aritu zen Prantxeskasekin eta Freirerekin, eta Lekeition gero, Mendietarekin. Lan nahiko finkoa

zuelarik, bere zain zegoen Pilar ekarri zuen Rias Baixasetatik, eta hurrengo urtean, 1948an, jaio zen Salvador, Errenterian, han bizi baitziren orduan.

– Nahiko ondo moldatu ginen. Lana bazegoen, senideak genituen inguruan... gustura geunden. Egun batez, ostera, Argentinako osaba batek hots egin zigun, joateko probatzera. Garai hartan Espainian eskas zen, eta animatu egin ginen.

Salvador eta Pilar parez pare dauzkat egongelako mahaian eserita, kafesnea eta pastak nola jaten ditudan begira. Salvador azkar mintzatzen da, xehetasun asko sartzen ditu lehen garaiak kontatzen dituenean. Pilarrek begiratu egiten dit. Ez du ezer esaten baina behin ere kliskatu gabe nabari dezaket begirada lokian, finko. Bere lasaitasun etsi horrek aitaren azalpen guztiek baino gehiago esaten dit.

Hirurogeien bueltan daude biak, baina zaharragoak dira, baldin eta zahartzaroa ilusioa galtzen deneko garaia dela onartzen bada. Galiziarren hizkera triste, ia negarti horrek baino gehiago hunkitu nau Salvadorrek andrea babesteko

duen joerak. Irudi luke bera gabe Pilar hortxe gelldituko litzatekeela, itzaltzen den kandela bezala.

Harrituta gelditu dira Euskal Herritik natorrela esan diedanean, eta emozionatu egin dira, urte hauetan guztietan inork ez dielako sekulan deus galdetu, deus esan. Pilarrek pasta gehiago eskaintzen didan bitartean –pasta mikatzak, gorrotatzen hasia naizen arto-irinarengatik, hain segur–, ezer ez dudala apuntatzen ohartarazi dit Salvadorrek.

– Grabagailuak hartuko du dena –lasaitu behar izan dut.

Argentinara iritsi eta berehala bakailaoaren arrantzan hasi zen Salvador, Rawsonen. Ez zebilen jende asko lanbide horretan, kostaldeak aproposak izan arren ez dagoelako han tradiziorik itsasorako. Rio Negro eta Santa Cruz probintzien artean dagoen Chubut eskualdea famatua izan da beti petrolioarengatik, Valdes penintsulan ikus daitezkeen baleengatik edo mundu osoko dinosaurioen aztarnategi garrantzitsuena izateagatik. Salvadorrek, bere esperientziarekin, aukera onak izan zituen, eta aprobetxatu zituen.

– Hiru urte eman nituen lanean, harik eta han zebilen donostiar batek lantegia jartzea proposatu zidan arte: bakailaoa lehortzeko enpresa egin nahi zuen. Pilarri esan nion: «Arriskatzera etorri gara, ezta? Horretarako atera gara etxetik». Onartu nuen.

Bi bazkideek arrakasta izan zuten: haiek lortzen zituzten inguruko bakailao solomo txurienak, Patagoniako barrualde lehor eta hotzetik zetorren haize zorrotzak ontzen zituelako espezial. Fama berehala zabaldu zen, eta Argentinako hegoalde honetan dagoen presondegi handienaren buruarenganaino ere iritsi zen.

– Egun batez lantegira azaldu zen. Galdetu zuen norena zen lehortegiaren ardura eta nirea zela esan nion. Gero galdetu zidan ea presoak onartuko genituen itsasontzian eta tegian langile, inolako kosturik gabe. «Nik ez dakit presoak tratatzen, ez dut egunero labana gerrian ibili nahi», erantzun nion. «Zenbat kobratzen duzu orain? Horren halako bi jasoko duzu aurrerantzean».

Zuzendariak lanbidea ikasteko aukera eman nahi zien presoei, handik ateratzean zer edo zer

eduki zezaten kanpoan moldatzeko modukoa. Salvadorrek onartu zuen. Itsasontzi berria erosi zioten, eta presoz betetako talde harekin bakailaoa ez ezik langostinoak, txangurroak eta izokinak harrapatzen hasi ziren.

– Presoak langileak ziren, gero! –harrotasun txinparta da Salvadorrena.

Handik iritsi ziren Mar de Platara, beste lan hobe baten eskaintza poltsikoan. Salvador semeak bertan bukatu zituen Rawsonen hasitako bigarren mailako ikasketak, eta Zuzenbideari ekin zion Unibertsitate Katolikoan. Titulua atera eta epaitegietan lan egin zuen bederatzi urtez, eta bulegoa bere kabuz jartzea erabaki zuenean aitak utzi zion behar zuen dirua. Han, beste bi lagunekin, hasi zuen abokatu-ibilbidea. Gogor hasi ere.

– Salvador abokatu laboralista zen, horrela esaten zioten –semeaz hitz egiteko mintzo da Pilar, hark betetzen ditu bere oroitzapenak–. Berak eramaten zituen Mar de Platako eta inguruko herrietako marinel eta nekazari askoren kontuak. Talde bat ziren, lan arloa bereziki zaintzen zuena.

Bulegoa artean jarri berria zuen Salvadorrek Mar de Plata osoa astinduko zuen gertakaria jazo zenean.

Argentina, 1973an, egunero esnatzen zen bortizkeri giroak asaldatuta. Montoneroen edo ERP-koen ekintzei erantzuteko toki orotan ugaldu ziren talde eskuindarrak, boterearen babesa zutenak. Atentatuak, bahiketak, hilketak... ez zen giro. Mar de Platan Concentración Nacionalista Universitaria (CNU) taldea famatu egin zen berehala, erabiltzen zituen metodoengatik.

Peronistak, unibertsitate irakasleak, abokatu laboralistak, denak egin ziren CNU faxistaren mehatxuak entzutera, ezkerreko jendea jipoitu eta markatzen zuelako maiz. Abokatu baten gidaritzapean, jarraitzaile zintzoenak fakultate askotako ikasleak zituen CNUk, baina txikia zen berez. Poliziaren informazio taldeek ematen zioten laguntza estimagarriari esker, ordea, arrakasta izaten zuten askotan bere ekintzek.

Urte hartako apirilean tentsio politiko eta sozialak goia ukitu zuen. Ia hogei urteko erbestea-

ren ondotik Peron itzultzekotan zen. Hainbeste urtetan amestutako unea zen peronistentzat, bukatu gabeko iraultzari berrekiteko garaiaren hasiera. Militarrak urduri zeuden, alderdi eskuindarrak ere bai...

Argentina osoan bezala, Mar de Platako ikastetxeak borborka zeuden hainbat ideologiatako taldeen komunikatu, deialdi eta agiriekin. Zuzenbide Fakultatearen bilkura orokor batean gertatu zen ezbeharra.

Areto nagusian hurrengo egunetarako mobilizazioak eztabaidatzen ari ziren ikasleak. Mahai gainera igota, ordezkariak proposamen berriak azaltzen ari ziren ikasleen aurrean CNUkoak gelara sartu zirenean. Tiro hotsek, zigor batek bezala, jarduna eten eta garrasiak piztu zituzten.

Hizketan ari zen hemeretzi urteko neska fardelaren gisara erori zen lurrera. Burua lehertuta zuen.

Kalapita handia izan zen. Hiltzaileak egun berean atxilotu zituzten, denak ere oso ezagunak zirelako fakultatean eta epaiketa urte hartan bertan hasi zen, akusazioaren aulkian abokatu laboralisten taldea eseri zela. Frogak eskanda-

luzkoak zirenez, hilketan parte hartu zutenak kartzelara joan ziren.

Zigorra ezerezean gelditu zen, ordea, hilabeteetara, Peronek, boterea hartu bezain pronto, amnistia orokorra sinatu zuen-eta. Kalean berriro, CNUkoei biztu zitzaien mendeku gosea. Gau batez kartzelara sartu zituzten abokatuon etxeetara joan ziren. Ez zuten inor topatu, baina lehen abisua emanda zegoen.

Etxean ez dira oroitzen Salvadorrek parte hartu ote zuen CNUkoen kontrako epaiketa hartan, baina ondo gogoan dute inoiz ez zutela ezer susmatu semearen jardueran arriskutsua izan zitekeena.

– Nik etxean ez nuen sekula armarik ikusi –aipatu du aitak–, Salvador oso gizalegekoa zelako, eta apolitikoa. Behin baino gehiagotan galdetu nion nori eman behar nion botoa, nik ez bainuen ulertzen, eta berak esaten zidan ez emateko inori, denak berdinak zirela.

– Ez zuen inoiz galdu Espainiako pasaportea, eta beti esaten zuen hangoa zela, Errenteriakoa –amaren ahots lasai eta barea berriro.

– Semea eraman zutenetik irrigazioa falta du –argitu dit Salvadorrek–. Egunero pastillak hartu behar ditu memoria ez galtzeko.

Bahitu baino hiru hilabete lehenago eraman zuten lehen aldiz. Pilarrek etxeko atea zabaldu zuen gau batez eta Salvador bi poliziaren artean ikusi zuen. Larritu egin zen. Semea saiatu zen lasaitzen, ez zela ezer gertatzen, baina agindu zehatza eman zion:

– Ama, deitu lagunei.

Gau hartan bertan atera zen libre, berekin maiz lan egiten zuen epaileak hala aginduta. Hurrengoan ez zen izan bera libratu zuen epailerik.

Gaueko zortziak ziren. Salvador Buenos Airestik etorri berria zen. Bere bulegoan lankide batekin hizketan ari zela oihuak entzun zituen harrera-gelan, eta atera zenean bi lagun armaturik ikusi zituen, eztabaidan bere idazkariarekin. Salvador hartu eta bulego barrura bultzatu zuten.

Harrera-gelan zeudenek eta lankideek entzun zituzten Salvadorren itaunak:

– Identifikatu gabe ez dizuet...

– Isil hadi, edo hementxe garbituko haugu!!

Gero kolpe hotsa. Salvador kaskezurra irekita atera zuten gelatik. Bertan zeuden guztiak gela batean gilzaperatu ondoren, telefonoak deskonektatu zituzten eta ospa egin zuten. Bulegoaren zoruan odol arrastoa gelditu zen.

Gau hartan bertan Mar de Platako beste hiru abokaturen etxeetara azaldu ziren militarrak. Denak eraman zituzten hiri ondoko radar-estazio zahar batera, La Cueva izena zuena. Han zegoen Marta Candeloro ere, Jorge Candeloro abokatu laboralistaren emaztea.

– Arestin eta besteak iritsi zirenerako nire senarra eta beste abokatu bat torturak hilda zeuden jada.

Talde osoa barruan zegoen, beraz. Gorbaten Gaua deitu zitzaion gau hari.

Marta Candeloro Mar de Platako kanpoaldeko basoan bizi da egun, zentrotik ordu erdira autoz. Taxistak bidai-agentziek eurena nahiko luketen moduko aldarrikapen turistikoa egin du bidaian. Kasinoa erakutsi dit –«Argentinako garrantzitsuena»–, argitu du eguraldia ez dela beti horre-

lakoa –«aldakor samarra bai, baina oraindik udaberrian gaude»–, eta argudiatu autoak ematen dituen jauziak inguru horretan egiten ari diren lanengatik direla, berehala oso txukun geldituko dela dena.

Ez diot jaramonik egin, ezin dudalako burutik kendu hau dela Alfredo Astizen jaioterria, Arestin bezalako jendea hil zutenak oraindik kalean dabiltzala, eta jendea eguzkipean dagoela kolorea hartu nahian. Ez da gertatzen zaidan lehen aldia baina ondoeza, orain, sakona da. Ez zait erraz pasatuko.

Kaleak asfaltatu gabe ez baleude barruti garesti eta elitista dela esango nuke, baina kaleak asfaltatu gabe daude, putzuz beteta: gehiago ematen du txabolentzako ingurua txaletentzakoa baino. Candelororen etxea, hala ere, polita da barrutik, dotorea ez nuke esango baina bai kattutteroa, beroa.

Zigarroa piztuta aurkitu dut torturaren ondorioz eztul kronikoa duen emakumea. Señoritaren keak dekorazioaren detailea dirudi. Argi motelak, kolore gorrixkako besaulkiak, alfonbra eta apalategi marroiak... dena dago egina giro erla-

xatua lortzeko. Ematen du urteek horixkatutako beira batetik ikusten dudala etxea.

Aulki kulunkari handi batean eserita, Candeloro hauskortasunaren giza-irudia da. Beltzarana, iharra, luzea eta eroria, keinu edo esaldi bakoitzarekin hezurren bat kraskatuko zaiola dirudi, oso ahul baitago barruan jasan zuenarengatik.

– Salvador Arestinek oso zauri sakona zuen buruan iritsi zenean. Ziegatik entzun nizkion oihuak, bertan odolustuko zela esaten zien zaindariei, baina ez zioten jaramonik egiten.

Jorge Candeloro, bere senarra, alderdi komunistatik zatitutako talde bateko kidea zen, ideologia maoistakoa. Berak parte hartu zuen faxisten kontra Mar de Platan egin zen 1973ko epaiketan. Kolpe militarra gertatu zenean senaremazteek pentsatu zuten Argentinatik alde egitea, giroa oso bortitza zelako, baina «ebaluazio txar baten ondorioz», emakumeak dioen bezala, barrualdeko Neuquen herrira –Patagonia eta Pampa artean– joan ziren, pentsaturik han bakean utziko zituztela. Errepresoreek, ordea, ez zituzten mugak ezagutzen. Han atxilotu zituzten

biak 1977ko ekainaren 13an, eta La Cuevara ekarri. Senarra handik bi astera hil zuten tortura mahaian.

Arestinengandik gogoratzen duena kontatzeko eskatu diot.

– Salvador ez zen isildu gau hartan, min izugarria zuen buruan. Gauerdia-edo izango zen zaintzaile bati entzun genionean: «Hator, sendatu egingo haugu!». Torturatzera eraman zuten. Gero esan zioten mediku bat bazegoela han, sendatuko ziotela zauria: josi egin zioten, anestesiarik gabe. Basakeria izan zen.

Lehen egun haietan inork ez zekien benetan zer gertatzen ari zen. Presoek etengabe entzuten zuten «traslado» hitza, eta poztu egiten ziren apur bat, presondegi zibilen batera joatea –hots, legeztatzea– zelakoan.

– Gogoan dut –jarraitu du Candelorok–, egun batez gurekin zegoen neskatxak esan zigula trasladatu behar zutela, baina sekula abioiz bidaiatu gabea zenez, zerbait eman behar ziotela ez zorabiatzeko. Pozez zoratzen zegoen gaixoa. Itsasora botako zuten hegaldi haietakoren batean, erdi drogatuta gainera...

Zaintzaileak mozkortzen zirelarik atxilotuek baliatzen zuten laxatze uneetako batean Candelorok Arestinekin jardun zuen luze. Hitz egin baino, bero pixka bat eman zioten elkarri.

– Oso zaila da azaltzea zer bizi genuen han edo zertaz hitz egiten genuen. Senarra hil berria nuen, denok geunden torturak jota... Egoera horretan hizketaldiak beste maila batekoak dira, eta primitiboena, oinarrizkoena da ia gai bakarra: ukitu, galdetu zer moduz zauden, minik duzun... Hitz egitea zen kontua, infernu hartatik une batez sikiera ateratzea.

Candelorok bi hilabete eman zituen La Cuevan. Beste lau komisaldegitan egon zen kalera irten baino lehen. Tortura zentrotik atera bezperan eskatu zien zaintzaileei lagunak agurtzen uzteko. Utzi zioten. Denei agindu zien jarriko zela harremanetan familiarrekin. Arestin artean bizirik zen, eta Candelorok Salvador eta Pilarrekin hitz egin zuen.

Hori izan zen gurasoek izan zuten –duten– berri bakarra, bilaketa lehenagotik hasia bazuten ere. Aitak, Rawsongo presondegiko aspaldiko harremanaz baliatuta, espetxe guztietan gal-

detu zuen, baina ez zuen ezer lortu. Candelorok esan zienean Salvador La Cuevan zegoela hara joan ziren, galdetzera, baina semea atxilotuta zeukan koronelak berak dena ukatu zien.

– Izen hori duen inor ez daukagu hemen.

Egun batez parrokiako apaizaren deia jaso zuten etxean.

– Esan zigun barrualdeko herrixka batean ikusi zutela Salvador, Armadarentzat lanean.

Jarraitu zuten galdezka. Urte batzuk beranduago apaiz berak onartu behar izan zien gezurra izan zela dena, ez zuela inoiz berri txikiena ere izan Salvadorri buruz, baina laguntza eman nahi izan ziela fedea gal ez zezaten.

Pilar, bitartean, hilabetero joaten zen Buenos Airesera, Barne Ministeriora, semearen berririk ote zegoen galdetzera. Zerrenda begiratu ere egiten ez zuten bi funtzionariok, leihatilaz bestaldetik, ezetz esaten zioten buruarekin, itzultzeko hurrengo hilabetean.

– Bi urte eman genituen horrela, engainatuta. Geroztik gaizki gabiltza. Haiek hiltzaileak dira, ez besterik –lehor mintzatu da Pilar.

Hitz hori –hiltzaileak–, emakume honen ahotik, bereziki gogorra egin zait. Zartako bat.

– Zein esker txarrekoa izan zaigun herri hau! –erantsi Salvadorrek.

Gelako leiho zabal batetik sartzen den argia gero eta leunagoa da. Zeruak adreilu baten gorria du. Bihar euria botako du.

Gelditzeko egin dizkidaten gonbidapenei ez entzunarena egin behar izan diet. Lehen autobusa hartu nahi dut. Lehenbailehen alde egin hemendik, eta ahaztu, gehiago ez entzun. Aski dut.

Buenos Airesko bidean berriro, maldizioka ari naiz deus gertatu ez balitz bezala aurrera jarraitu nahi duen herri honen kontra. Oka eginda nago hainbeste tragediaz.

Hogei urte beranduago

Buenos Airesek atsedena hartzen du igandeetan, arnasa. Egunkaria zabaltzen du, gurina eta mermeladazko opiltxoekin gosaltzen eta matea prestatzen du goxo-goxo. Autobusak ere, astegunetan bufaka ari diren autobus zaharrak, igandeetan lasai igarotzen dira etorbide hutsetatik, eta aurpegia laxatua dutela dirudi.

Bakar bakarrik ari gara San Telmora daramaten kaleetatik. Trinkoegia omen da arrapaladan bizi den hiri honetan astelehenetik larunbaterainoko tartea, eta ahal duten gehienek alde egiten dute Tigrera txalupetan paseoak ematera, edo inguruko herrietara familiakoekin haragi errea bazkaltzera. Hemen, San Telmo auzoan, nostalgikoak eta turista bakanak biltzen dira, eta merkatu txikia antolatzen da igandero, bitxiak saldu, tango doinuak entzun eta matea hartzeko.

– Zergatik gertatu zen guztia? –galdetzen dut–. Nola interpretatu behar da naziez geroztik munduan egin diren basakeria handienetakoak hemen justu eman izana?

– Lortzeko gertu egon ginen, horregatik izan zen horren gogorra errepresioa.

Montoneroen taldeko buruzagia izan zen Carlos Aznarez, sei mila izatera iritsi zen armada hartatik 1978an Argentinan gelditzen ziren bakanetakoa.

– Kuba eta Aljeriako adibideak oso present genituen, eta Latinoamerikako tradizio ezkertiarra uztartu nahi genuen peronismoaren populismoarekin, Peronek hasitako iraultza hartan sakontzeko.

«Sozialismo argentinarra» eraikitzeko zuten asmoa azaltzen didan bitartean ideal horien alde erori ziren haietaz guztiez ari naiz pentsatzen.

– Hemen ez zen errugaberik izan –moztu dit berak–. Erori ziren senitarteko batzuk, bai, haurrak ere bai, baina bahitu zituzten gehienak Montoneroetan edo beste erakundeetan zeuden. Inor ez zen errugabea garai hartan.

Eguzkia atera ez atera dabilen bitartean, plazako erakusmahaietan zintzilik dauden latorrizko te-ontziek, sifoi botila zaharrek eta ez dabiltzan erlojuek txin-txin egiten dute haize bilduaren bultzadatxoekin.

– Peronek zapuztu gintuenean hasi zen dena, Maiatza Plazan bilduta geunden milaka gazteei Etxe Arrosaren balkoi batetik «sozialismoa amaitu da» esan zigunean. Guk aurrera jo genuen, itsu.

Rodolfo Walsh, bizirik zeuden fusilatuei buruz liburuak izkribatzen zituen idazle eta kazetariak ohartarazi zien: «Erakunde armatu batek jendeak ibil dezakeena baino askoz aurrerago egiten duenean abangoardia bihurtzen da, ez du atzera begiratzen, eta ohartzen denean oso urrun dago. Gero ezin du jendea zaindu, eta jendeak bizkar ematen dio azkenean».

– Gu izan ginen izan ginena –onartzen du Aznarezek–, urteetan jendeak gure helburuetan bere ametsak ikusi zituelako. Baina kanoiekin hastean, guk baino usaimen politiko handiagoa izan zuen jendeak, eta ikusi zuten pistola batekin ezin geniola arerioari aurre egin. Guk pentsatu genuen baietz. Hor amaitu zen dena.

Buenos Aires zaharreko etxe hauen artean ohartzen ari naiz ez dudala ordu bat ere eman hiriarekin, pertsonak ezagutu ditudala, baina hi-

riburuaren arima ez dudala usaindu. Dagoeneko berandu da.

– 70eko urte haietan oso azkar jiratzen zen mundua eta gu ere horrela bizi ginen. Gero konturatu ginen astiroago joan izan bagina, gelditu izan bagina une batez pentsatzera, hainbeste jende ez zela joango heriotzara joan zen bezala. Uste genuen kalea gurea zela, Armadari ere aurre egin ahal izango geniola, baina txitoak bezala harrapatu gintuzten. Orduan ihes egitea beste pentsamendurik ez zegoen. Ezinezkoa zen politika egitea edo antolatzea, ezta horretaz pentsatzea ere. Ihes egitea, besterik ez. Arerioa gutxietsi genuen, hori izan zen gure errua.

Urteak eman ditudala iruditu zait, eta egun batzuk besterik ez dira izan. Trinkoak hala ere, astunak beruna adina. Nire begien aurrean igaro dira Tucumango eskualdean desagertu zen Yoyi Goizueta argazkilariaren lagunak, ama bahituta eduki zuen Hector Karrika sindikalistaren lekukotasuna, aiton-amonak Fernando Garat eta Clara Pikabea zituen Eduardo Hector Garaten kasua, edo Luis Alberto Bereziarte, edo Juan Carlos An-

zorena, edo familia Sakanakoa zuen Alberto Senar, edo inoiz ezagutuko ez ditudan guztiak...

Izkina batean andre batek tangoak abesten ditu kaset zahar baten laguntzaz.

> *Nostalgia de las cosas que han pasado*
> *arena que la vida se llevó,*
> *pesadumbre del tiempo que ha pasado*
> *y amargura del sueño que murió*

Ez zen oso gaztea izango dena gertatu zenean. Ateak itxita dituen kafearen aurrean zangoak ligero beltzak apaintzen dizkio, eta ezpainak, min ematerainoko gorri biziez pintatuak, lotsagabe zabaltzen ditu kabaretetako boa gorri eta beltzaz lepondo dardartia estaltzeko keinu egiten duenean. Jendeak txanponak botatzen dizkio.

Irribarrea egin dit dantzaren neurria bakarrik eramaten ahalegindu den bitartean. Emaitza are patetikoagoa da. Berandu iritsi da izkina honetara, une honetara.

Gogora datorkit orain Felipe Armendarizek begitan eman zidana –«non zeundeten duela

hogei urte?»–. Burua motel eta zapaldua sentitzen dut, eta orain badakit zergatik. Ni ere hogei urte beranduago iritsi naiz beraiengana.

Errepresore zenbait

Salvador, Jon Pirmin, Celia, beste guztiak, gaur egun bizirik egon zitezkeen begiak itxi nahi izan zituen gizartea izan ez balitz eta soilik ero batzuen buruan tokia izan zezakeen estrategia errepresibo basati, klandestino eta koldarra burutzeko prest egon zen jendea izan ez balitz. Gizarteak bestaldera begiratu zuen ordea, oso gutxik atera zuten hitzik. Militarrak azkarrak izan ziren: desagerpenarekin senideak ere zotz eta mutu gelditzen ziren, ez hara ez hona, edozein galdera, edozein mugimendu, atxilotuta zegoenaren kalterako izan zitekeelakoan.

Batzorde Militarreko buruek agindu zuten bidea ez zen orijinala izan. Brasil, Txile, El Salvador, Guatemala... Hego Amerikako herrialde askotan zeuden desagertutakoak, baina, dudarik ez da, Argentinak marka guztiak hautsi zituen.

Lehen atxilotze zentro klandestinoa Tucumango eskualdean ireki zen, 1975eko hasieran. Demokrazia garaian beraz. Bigarrena Cordoban

–Argentinako bigarren hirian–, urte berean. Han 600 gazte desagertu ziren.

Diktadura militarrarekin estrategia bazter guztietara zabaldu zen: La Ribera, La Cueva, Pozo de Banfield, Campo de Mayo, ESMA... eraikin militar eta polizialak kontzentrazio esparruen gisara erabili zituzten, torturaren bidez lortutako informazioarekin atxiloketa eta bahiketa gehiago egitearren. ESMAn bakarrik 4.500 lagun hil ziren.

Zenbait kalkuluren arabera, 1.200 inguru izan daitezke krimenotan ardura izan zutenak. Atxilotutako ohiek emaniko lekukotasunetan bostehunetik gora izen agertzen dira. Horien artean 62 euskal jatorrikoak.

Orobat, Adolfo Scilingo kapitainak Baltasar Garzon epaile espainiarrari eman zion zerrendako –ESMAko torturatzaileena– 120 izenen artean zazpi dira euskaldunak: Luis Maria Mendia almirantea, Horacio Zaratiegui, Guillermo Arguedas eta Hugo Eguillor kapitainak, Alfredo Astiz eta *Vasco* Bengoechea tenienteak eta Omar Eyzaguirre *Sagua* kaboa.

Hona hemen bakar batzuen merituak. Ezagunenak dira akaso. Denak izan ziren epaituak, baina denak gelditu ziren libre, zenbaitetan zigorraren zati txiki bat bete ondoren.

ALFREDO IGNACIO ASTIZ

Fragata-tenientea. Nafar baten semea, Mar de Platan hasi zituen ikasketa militarrak, eta 1975ean Estatu Batuetan aritu zen terrorismoaren kontrako borrokan trebatzen. 1976an ESMAn zen jada, Buenos Airesen. Montoneroak atxilotzeko ekintza ugari zuzendu ondoren, 1977an Maiatza Plazako Amen barruan infiltratzeko lana agindu zioten ESMAn. Astiz urte hartako martxoan joan zen lehen aldiz plazara. Amei azaldu zien anaia nagusia zuela desagertua, eta berarekin zetorren neska ilehori eta polit hura arreba zela. Senideek gezurra irentsi zuten: inoiz ez zuten ezer susmatu. Gustavo Niñok –Astizek ezizen hori erabiltzen zuen– eta bere arrebak –Silvina Labayru militante montoneroa, lau hilabete lehenago atxilotua eta alaba jaio berria militarren es-

kuetan zuena– ama guztien estima lortu zuten. Urte hartan taldeak antolatu zituen bilera eta ekintza guztietan parte hartu zuen bikoteak.

Amen artean eginiko espioitza lan honi esker 1977ko abenduaren 8an talde honetako hamabi lagun atxilotuak izan ziren. Horien artean zeuden Alice Domon eta Leonie Duquet moja frantziarrak eta Azucena Villaflor Amen fundatzailea. EsMAn torturatuak izan ondoren, denak desagertu ziren. Abenduaren 10ean, taldeak publizitate orria sartu zuen egunkari batean, atxilotutako guztien alde. Eskaera sinatzen zutenen artean Gustavo Niñoren izena zegoen.

1978an Parisera bidali zuten Alfredo Astiz, han ere infiltrazio lana egin zezan erbesteratutakoen artean. Manifestazio batean EsMAn egondako atxilotu ohi batek ezagutu zuen marinoa, baina Astizek hanka egin ahal izan zuen Polizia iritsi baino lehen. Trenez etorri zen Euskal Herriraino, eta Pirinioak oinez zeharkatu ondoren, Espainiako Guardia Zibilaren zaintza postu batean bere burua aurkeztu zuen. Argentinara itzuli ahal izan zuen inolako arazorik gabe.

Malvinetako Gudan berak sinatu zuen Argentinako indarren errendizioa, HMS Plymouth itsasontzian, agindupean zituen soldaduek tiro bakar bat ere bota gabe armak entregatu ondoren. Argazki harengatik desagertutakoen senitarteko askok ezagutu zuten Amen konfiantza osoa eskuratu zuen gazte gisakoaren benetako nortasuna. Britainia Handian preso zegoela, Margaret Thatcherren gobernuak presio handiak izan zituen Frantziara estradita zezan, baina honek, entzungor, libre utzi eta etxera bidali zuen marinoa.

1986an epaitua izan zen Argentinan. Derrigorrezko obedientzia legeari esker, kargurik gabe kalera atera zen. Bi mojen kasuarengatik Frantzian egin zen epaiketan zigortua izan zen, eta geroztik bilatze eta atxilotze agindua du bere aurka. Ezin du, beraz, Argentinatik atera, Interpolek atxilotu lezakeelako.

Erreserban egon da 1998ra arte. Elkarrizketa batean esandakoarengatik –diktaduraren metodoen justifikazioa, besteak beste– egotzi zuten Armadatik.

MIGUEL OSVALDO ETCHECOLATZ

Buenos Airesko Probintziako Poliziaren komisario nagusia. Ramon Camps *Buenos Airesko harakina*-ren konfiantzakoa, bere agindupean antolatu zuen Etchecolatzek indar honen inteligentzia zerbitzua, errepresiorako poliziaren baliabide guztiak baliatu zituena. Pozo de Quilmes, Pozo de Banfield, Puesto Vasco edo Arana bezalako atxilotze zentro klandestinoetan ehundaka desagertutako izan ziren, horietako asko ikasleak.

ALBANO JORGE HARGUINDEGUY

Jenerala. Barne ministroa Batzorde Militarren garaian. Harguindeguyk zeharo burugabetu zuen botere judiziala, bere aldeko militarrak paratuaz postu garrantzitsuenetan. Horrela, desagertutakoen senitartekoen eskaera judizial gehienek bidea itxita izan zuten beti.

Amak oraindik antolatzen ari zirelarik, egun batez hiru ordezkari jaso zituen bere bulegoan. Han erakutsi zien libreta txiki bat, non desagertutako batzuen izenak apuntatuak zituen, gehienak militarren senideak.

– Ezin kontrola ditzakegun bandak egiten ari dira hau guztia –esan zien Amei.

– Baina jauna –galdetu zion, haserre, ama batek–, zuk, Barne ministro horrek, ezin baduzu kontrolatu, zer egiten ari zara gobernuan?

– Zuek ez zenuten inoiz pentsatu semeak putaxkaren batekin joan zitzaizkizuela? –bota zien, irrikor, ministroak.

– Ez jauna, zuek dituzue gure semeak, zuek bahitu dituzuelako.

Harguindeguyk ezin izan zien amen begiradei eutsi.

– Bukatu da audientzia! –moztu zuen, mahaian ukabilkada emanez.

Beste behin, militar batzuekin batera, eztabaidan aritu zen Buenos Airesko artzapezpikuarekin, errepresioaz. Ministroak tortura justifikatu nahi zuen. Eta jarri zuen adibidea: gerrillari batek leherkaria jarri du etxebizitza batean; ez-

tanda eginez gero berrehun lagun hilko lirateke. Galdetu zion gero elizgizonari ea zilegi al zen gerrillaria torturatzea bizitza horiek guztiak salbatzearren. «Ez», erantzun zuen artzapezpikuak, «helburuak ez ditu bide guztiak ametitzen».

1997ko irailean galdetu zioten lasai bizi ote zen. «Ez dut pilula bakarra ere hartzen lo egiteko. Epai atzeraezin bakarra Jainkoarena eta nor bere kontzientziarena da, eta nik lasai asko lo egiten dut».

ARTURO JAUREGUI

Jenerala. Armadako komandantea. Leopoldo Galtieriren bigarrena. Honek pentsaturiko Mexiko Operazioa –herri horretan ezkutatzen zen Montoneroen buruzagitza osoa atxilotzeko ekintza– ez zuen begi onez ikusi, eta Armadarekin kolaboratzeko prest zeuden gerrillariak fusilatzearen alde egin zuen. Galdu zuen.

1978an, ESMAn atxilotuta zegoen Jaime Dri diputatu peronistarekin izaniko elkarrizketa batean, Lurreko Armadaren sentimendu antimar-

xista azaleratu zitzaion barru-barrutik. Dri esposaturik zen, kaputxatuta, eta torturaren ondorioz jasandako zauriak sendatu gabeak zituen oraindik. Aulki batean eserita, entzun zuen jeneralak bere laguntzaileei esan ziena:

– Jende honekin ez dago hitz egiterik. Jendilaje hau akabatu beharra dago. Minbizia dira eta minbiziarekin ez dago hitz egiterik, erauzi egin beharra dago!

LUIS MARIA MENDIA

Almirantea. Itsas-Ekintzetarako komandantea. Emilio Eduardo Massera Itsas Armadako buruaren laguntzailea. 1976ko martxoaren 10ean, subertsioa akabatzeko armadetako buruek prestaturiko egitasmoaren lerro nagusiak berak jakinarazi zituen. Buenos Aires ondoko Puerto Belgrano itsas gunean izan zen, ofizial eta agintari militar guztien aitzinean. Horrela aletu zituen Mendiak estrategiaren ildo nagusiak: ekintzak bizkorrak izango ziren, eta zibilez jantzitako agenteek eginak; informazioa lortzeko itaunketa

trinkoak eta torturak erabiliko ziren, eta, atxilotutakoak desagertarazteko, hegaldien sistema, «heriotza kristaua ziurtatzeko». Almiranteak, bere diskurtsoan, nabarmendu zuen gaizkileen kontra gogor aritu beharra zegoela, «herri ezberdina, baketsua, lasaia eta ekonomikoki paregabea» lortu nahi bazuten.

Hamahiru egun geroago, kolpe militarraren egun berean hain zuzen ere –1976ko martxoaren 23an–, Mendiak jakinarazi zien gradu goreneko ofizialei, Itsas Armadak parte hartze zuzena izango zuela errepresioan, eta gogor jazarriko zutela mendebaldeko ideologia kristauaren aurka erabiltzen zen guztia. Mendiak komunismoa errotik erauzteko militarrek pentsaturiko beste metodoa ere jakinarazi zien marinoei: subertsiboen haurren bahiketa. Horretarako, haurdun zeuden atxilotutakoak bizirik eduki behar zituzten atxilotze zentroetan, erditu arte. Ama desagertarazi ondoren, haurrak militarren familietan banatuko ziren, ESMAN bertan antolatuko zen zerrendaren ordenaren arabera. Adopzio sistema bitxi honen bidez, belaunaldi berria gurasoen eragin txarretatik libre utzi nahi zuten militarrek.

Eskaera handia zegoen, nonbait, ofizialen artean.

Baltasar Garzon Madrilgo epaileak bilaketa eta atxilotze agindua erabaki du bere kontra.

JUAN BAUTISTA SASIAIN

Jenerala**.** Campo de la Ribera (Cordoba) izeneko presondegi militarreko komandantea. Egiazki atxilotze zentro klandestino gogorrenetakoa izan zen honetan Sasiain torturen eta hilketen arduradun zuzena gertatu zen, horien artean Amelia Neliza Inzaurralde gaztearena. Geroago Argentinako Polizia Federaleko burua izendatu zuten. 1976ko apirilaren 10ean, *La Nación* kazetari emaniko elkarrizketa batean, Sasiainek zioen: «Armadak badaki gizakia baloratzen, Armada kristaua da-eta». Zuritasuna, eskuindartasuna, nazionalismoa eta erlijio kristaua goraipatu egin zituen beti.

Batzorde Militarreko arduradunei eginiko epaiketetan kartzela zigorrera kondenatu zuten, baina zati txiki bat besterik ez zuen bete, milita-

rren presioengatik. Akusatuta dago Italiako justiziak herri honetako desagertutako batzuen aferak argitzeko zabaldu duen auzian.